

A76
2843

PLATE 1

13.

"SANTXO JAKITUN IDARTIDI" diru
Adeier

Urestaratu tañ Andoni

Gasteizen 1984ko oriararen 22n

A.T.V
1843



1968ko aztaren 30'garānesan
Landsburu sendiak (alarguno
ta semeak) egin zidun beruz.

Christarozitai Andoni



1850
A
in
the

M. 10007
R. 4406

JESUS , MARIA

ETA

JOSEREN DEVOCIOA ,

EDO IRU PERSONA DIVINO OYEN

EGUIAZCO AMORIOA .

Lurrean icusi zahan Ceruco Trinidadere
ederrenari , edo Jaincoaren familia-
rie sagraduenari ,

JESUS , MARIA ETA JOSERI,

Animen Devocioraco , Jesusen compa^ñiacó
AITA AGUSTIN CARDAVERAZEC , bere
biótz guciarequin esqueiñteen ,
eta consagratcen diena.

PAMPLONACO OBISPO JAUNAREN BAIMENAREQUIN

TOLOSAN :

**Mendizabalen alargunaren mol-
diztegnian 1855 garren urtean.**

Toledoco eta Sevillaco Cardenal Jainac
eun bana eguneco barcacioac, edo In-
dulgenciac eman ditue, liburucho onetan
oja bat iracurten dan gucian edo emen-
go devocio bacoitza eguiteagatic.

Orobat Pamplonaco Obispo Jaunac eman
ditu beste berrogei eguneco Indulgenciac.

SARRERA.

IRACURLEARI CERUCO

AMORIOA.

GAUZA jaquiña dá, edo cristanac
bear duen dotriña erraza, Je-
sueristoren Ama Virgiña, e-
do Santuen eguiazco Devocioa, errezo lu-
ce, Novena, eta beste orrelneo oracioetan
ez dagoela. ¿Certan dago bada, edo er da
orien Devocioa? Eguiazco Devocioa da,
gure Religio Santuaren egercicio, edo ac-
tu bat, gure biotz edo anima Jaungoi-
coaren vorondate, eta gustoco gaucetará
gogo vici batequin daramana: eta gogo

santu au iru gauza oyetan dago; emen eracustendan becela.

Lembicicoa da Adoracioa, edo gure Jaungoicoa, Ama Virgíña edo Santuac, fede vici, espiritu humill, firme, eta prest batequiñ biotcetic adoratcea.

Bigarrena Invocacioa; edo biotcez aytara gure estutasun, eta nequeetan oyen erremedioraco biurtcea, eta deitcea; Santuen bitartez neretzat edo besterenzat nai dedana Jaunari escatu, eta alcanza-iceco.

Irugarrena Imitacioa, edo Santuac imitatcea, beren virtutectan jarraituaz, concienciaco garbitasunean, humildade, paciencia, caridade, misericordia, eta besteetan.

Devocioaren izan gueyena, edo gucia irugarren onetan dago; eta onec zure Devocioco Santuai atseguíñic andiena ematen die: Ayec eguin zutena, zue eguítcea, edo Jaungoicoaren vorondatea beti, ayec bezala zure estadu, edo vici moduan zue eguitea lurrean, guero ayen lagun dichoso beti izateco Ceruan.

Cristau asco, beren buruz Devocio, eta errezo luceac artu, eta ecin cumplituric, presaca eta itotcen bezala oïdabilitza; eta bearrago diran obligacioai eranzuteco, lecu eta gogo guztia quendu, eta etsayac alde orretatic engañatcen ditu: eta errezo guciac beren gustora eguiten ez badituzte, paqueric ez eta inquietude aundian guelditcen dira. Ez: Jaungoicoac, Ama Virginiac, edo Santuac orrelacoric ez dute nai. Obe da errezo guchiago eta ondo eguitea: zure dicha eztago gauza andiac eta asco eguitean; ezpada zure egunoroco chiquiac ondo, eta Jaungoicoac nai duen espiituarequin eguitean. Santu asco bide jaquin onetatic Cerura joan ciran. Zure errezo luceen bearric Santuac ez dute: nayago dute berai deitu, eta zuc beardezun biotceco arguia escatcea ayen gisan, Jaunaren vorondateari eta obligacioai ondo eranzuteco.

Alere animaco devocio, eta amorioa Jaunari eta Santuai guc eracusteco, Eleiza Santac bere oracioetan, cer eta nola:

eguin bear degun , ondo eracusten digu ; eta biotceco gogo , edo afecto santuen señalear , aoz eguiten diran errezoac dira. Señale aguiri oen artean provechu andicoac. eta animen consuelo beticoac, dudaric gabe , dirade Ama Virgñaren erro-sario , Jesus-en Calvarioco Pausoac, Aita San Joserren Misterio divino , gozo ta doloreac , eta orien eta beste Santuen Novenac. Oyec ondo eguiten badira chitasco valio dute biotceco devocio gordeberoa camporonz berai eracusteco.

Jesus , Maria eta Joserren amorioric gozoena , eta bearren-au nolaco consideracio , espiritu eta animen irabaci aundiarequin eguin bear dan , iruren devocioan eracutsi nai det. Baña Ceruraco joya au ondo estimatreco , lenago eazagutu bear dá , eta orren berri eman bear da.

LEMBICICOA.]

*Calvario eta Errosarioaren Misterio ez-
cutatuac aguertcen dira.*

Mundua galtceco zorian cegoanean , edo pecatuen otzac , eta gaitzac eriotzaco as-nasectan ceucanean , Jaungoicoaren misericordia guztia , bere amoriozco su gozoan Cristauen biotzac irazaqui , eta sendatececo , Ceruco eta mirarizeco er-remedio bi , eta ayec bere escutic bece-lacoac , dembora hatean eman cituen. Bata , gure araguizeco Serafin , edo Aita San Francisco Serafico humillari bere llaga preciosoac , eta bestea , Aita Santo Domingo gloriosoari bere Ama Santisima-ren Errosarioa eman cionean. Batari mundu guciaren Redencioco señaleac , Jaunaren Justicia aserrea gurequico bi-gundu , eta gozatceco ; besteari , Misericordiazco Ama maitearen bitartez be-raren piedade guztia gugana eracarceco.]

Munduaren erremedioac oycer dira : eta
 eciñ indar , virtute eta poderio aundicoac diran , berac ondo eracusten dute :
 obrac dira amore , señalet eta argumentu seguruenac .

Santu pare au , paragabeco prodigio
 aundiz mundua bete , arritu , eta peccari-
 en conversioac eguiteco , Jaungoicoaren
 Ama-Semeac beren Ceruco armaz jan-
 cirit bialdu zuten . Batari Ama Virgiñac
 bere Semearen amabost Misterioac eman
 ciozan : eta besteari Jaunac bere bost
 llagetan Pasio sagradu guztico beste
 amabost Misterio edo Pausoac . Santo Do-
 mingo eta San Francisco gloriosoac Ce-
 rucic arturicaco arma oyequin mundu
 galdua irabazten asi ciran : eta arrez-
 quero eta oraiñ eta beti orien Seme
 Santuac gloria eta dicha aundiaz ani-
 mac irabazten ari dira . Arma oyequin
 infernuari guerra vicia eguiten diote :
 eta egunoro eta gueyago mirarizco de-
 vocio oycer bioc bata bestea baño mai-
 teago Eliza Santan animenzat frutu aun-
 di ederrez eguin dirá .

Santu glorioso biac beren devocio , Re-
 ligio Sagradu ta Seme famatuquin Elei-
 zaren campo , edo jardin Cerucoan ¿Cér
 lore eder, eta cer frutu gozoac eman ez di-
 tuzte? ¿Cér maravillac? ¿Cér , eta nola-
 co animen conversioac eguin ez dituz-
 te? ¿Baña cér arritceco da milagroac eta
 alacoac eta aimbeste Jaungoicoac eta
 bere Amac munduan Ceruco beren adis-
 quide maite biauquin eguitea ; baldin
 biac leya , cantu edo empeñoz becela ,
 biai obeto laguntceco , seme santuz bete
 bacituzten? ¿Beguirá Aita Santo Domi-
 goren ondoren San Jacinto eder bat ,
 San Pedro Martiri bat , Santo Tomas Es-
 coletaco Aingueru Maisu bat , San Vi-
 cente eta San Luis gure Españiaco hon-
 ra aundia , San Antonino , eta aimbeste
 Aita Santu , eta orien artean San Pio
 V. eta San Benito XI. Santa Catalina ,
 Santa Rosa , eta aimbeste Martiri , eta
 munduaren Maisu eta Predicadore ?
 ¿O cer Ama Virgñaren lore eta frutu
 ederrac ! San Francisco zori oneco ,
 Jesucristoren imagiña viciari , ¿Cer

Seme gloriosoac eman etciozcan herac?
 San Bernardo here lagun maitea, Doc-
 tore Serafico San Buenaventura, San
 Antonio Paduaco milagrosoa, San Pas-
 cual, eta San Diego, Santa Clara, Viter-
 boco Santa Rosa, jeta cembat Martiri,
 Elizaco Buru, guizon aundi eta Maisu San-
 tuac? Ecin contatuala. Eta onela Or-
 dena Sagradu ta fundadore Santu biac
 Ama-Semeac honratu, eta gloria andiz
 bete dituzte.

Santu oyec herriz, eta Aita oyen Se-
 me miragarriac Calvario eta Errosa-
 rioaren devocioaz Ceruco bidean animac
 sartceco eguin dituzten mirari, eta con-
 tu pare gabeac esatea, Ceruco izarrac
 contatcea becela, edo are gueyago da.
 Milla, eta ogueita bi izar aundi omen
 dira beste izar chiquiaquin apaioduac.
 Baña Ceru eder orretaco chiqui eta
 aundi guciac baño ere, Santu bien ma-
 ravillac gueyago eta aundiagoac dirade.

BIGARRENA.

Calvarioco Devocioaren Mirariac.

Misterio oyen sustraitic asitcen guerra-
 la, erraz eta hitz batean esan dite-
 que munduan icusi diran, eta Santuac
 eguin dituzten milagro guciae Calvario-
 co gurutce Santuaren virtutez eguiñac
 dirala. Ala dio Aita Ribadeneirac gu-
 rutcea Calvarioan arqutu zaneco festan.
 Baña Jesusen devocioric gozoen onetan
 nie arqutcen eta admiratcen dedan
 graciazco mirariric aundiēna, eta guciē
 gañecoa Ama Virgiña Santisima bera da.
 Onen biotz sagradua amorez eta dolo-
 rez bere Semearequin chit bat zan: eta
 arequin batean arantzaz, iltcez eta lan-
 tzadaz, esan diteque, nolere bait gure
 pecatuac josi, eta erdiratu zutela. ¿ Cer
 milagro aundiagoric bada munduan icusi
 diteque, Calvarioco estacio eta Pauso

gucietan aurrenekoa Ama Virgiña bere Semearen ondoren ibilli, ta gurutcearen oñean alaco biotz firme eta animo aundiarequin bera icustea baño? ; O cer panna gozoac, eta cer amorezco-doloreac Ama-Semeen biotzetan ordu illun triste ayetan sortuco ciran! ; O cer Cerueo leccioac, gure Jangoico eta bere Amac Calvarioco bide, pauso eta Estacioetan gure salvacioraco eman cizquiguten! Aita Cornelio Alapidee contateen ditu era onetan. Ostiral santu eguna, gure peccatu gucien baccacicoo egun aundia izan zan: eta egun onetatic vici izan zan artean, egunoroco eta betico Ama Virgiñaren contemplacio divinoaren gaya, Calvarioco estacio eta dolozco Misterioac izanda ciran. Nore daqui Ama-Semeac baicic, ; Cer arguiac, cer maravillac, cer favoreac, cer erregalo, cer doai eta cer dicha Calvarioco bidean, eta gurutcearen ondoco estacioan, eta bere vici lucean, Pasio sagraduaren egercicio oyetan egunoro, orduoro eta puntuoroaren Anima santac mereci, irabaci eta

logratu cituen?

Bigarrena, eta Ama Virginiaren ur-
 rengo milagroa becela, peccatori santa,
 penitente guztien eguiazeo ispillu, Mag-
 dalena, penitente zori onecoa, izan zan.
 Onec Calvarioco icas-bidean eta Pau-
 soetan, Ceruco Catedra batean becela,
 Ama-Semeen ondoren, ¿er amorezco lec-
 cioac, cer suac, cer garrac bere biotz
 samur gozo artan icasi, artu eta josi
 cituen? Guero ogei eta amar urtean
 Eremuan eguin zuen penitencia, eta Cal-
 varioaren egunoroco ausmarrean edo me-
 ditacioan, ¿Cer amorezco negar, eta do-
 lorezco suspirio gozoac? ¿Cer Ceruco gosc
 eta egarriac? ¿Cer irabaci, eta prove-
 chu esan al baño andiagoac? Argatic,
 eta ala egunean zazpi bider urte orietan
 Aingueruac Ceruetara, augo canta eta
 musicac aditcera, jasotcen zuten.

Pecatori guztioi Jesus maitearen oñe-
 tara penitenciaico bidea eracutsi-ciguna
 Magdalena Santa, lenena izan zan: an
 bere peccatuen barcacio osoa Jesucristoren
 botic aditu, eta Jannac berac Santa aun-

di eguin, eta gurequico canonizatu zuen. Calvarioan berriz gurutcearen oñean, eta Ama Virgiñaren aldean, Apostoluac ignes cebiltzala, Santa au amorez eta dolo- rez josirie firme egon zan: eta Jauna ill, eta enterratu ezquero ere, bildur ga- be, amorioac ematen cion valore segu- ruaz bere Maisua billadatu zuen. Magda- lenari, Jesus resucitatua, lenengo aguer- tu citzayon. Santu guztien artean Mag- dalena da Jesucristoren estimatuen, eta laztanen-etatic bat, eta beraren Esposa guztizeo gozoa, Calvarioco Estacio eta Misterioetan bere amore ederrari betico sillua josi ciona.

Irugarren lecuan, gurutce Santuaren, eta Calvarioco Mirari aunditzat, San Juan Discipulo amatua eta Ama Virgiñaren se- me estimatu onetsia contatcen det. Onec Jesusen biotceco Misterio escutatuae icusi, eta gure salvacioco iturriaren ondasunac aguertu cizquigun.

Ama-Semeen pauso gucien testigu fiel, eta Calvarioco testamentuan obratu, edo mejoratua San Juan izanduzan, Emen

contateen ditut San Simon Cirineo zori edo suerte oneco guizon Jesucristori gurutcea eramaten lagundu ciona; Ama Virginiaren aldean ibilli ciran andre santac; eta gure Salvadore eta Maisuari alaco devocio eta animoarequin Calvarioco pausoetan jarraitu ciotenac. ¿Cór milagro andiagoric?

Gurutce santuaren mirari icusgarria izandu zan, gure Jauna Calvarioco bidetan cijoala, eta nequez, odolez, icerdiz eta autsez heteric, Jesusen arpegui ederra garbitcera, añ viciro borreroen artean sartu zan Beronice, edo Veronica Santa; eta bere Jaungoicozco arpeguiaren erregalo edo prenda, Imagiña eder artan zapi garbian iru aldetara josiric utci ciona. Misericordiazco Milagro paregabea izan zan, Jesus maitea lapur gaizto birequin Calvarioco Pausoetan ibilli, orice lagun cituela, eta lotsa aundian orien erdian gurutcean bere burua josiric icusi, eta araco Aita eternoari gugatic erregutu cionean. Lapur bata, San Dimas, edo Jaincoaren semea ezagu-

tu , confesatu , eta Indulgencia egunean gurutcean bertan Santu eguin , edo salvatu zana . ¡ O lapur , len infamo , eta bertan f.a.a aundico Santu dichaz , eta ondasunez hetea ! ¡ O gurutcearen virtutea !

Azquenic Calvarioan iru ordu ayetan milagro aundi asco icusi ciran , Evangelioac , edo Fedea dion becela . An San Longinos Centurion , Erromaco partez cebillena , Jesucristo gana biurtu zan : An San Nicodemus eta San José , Jesus ill ezquero , gurutceic jechi , eta bere Aldarean becela , Ama Virginiaren besoetan utci eta devocio aundiaz , obi berrian sartu zutenac . An beste asco , milagroac icusi , eta Jaungoicoa ezagutu , ta convertitu ciran . Evangelioac dion gurutcearen milagro aundia da , Jesucristoc limbotic aterra cituen Santu asco Jaunaren ondoren erresucitatu , eta Jerusalem aguertu cirala . Adan , gure gucien Aitaren buru ezurra , gurutce Santua sartu zuten lecuán , lur pean omen cegoen : gurutcearen oñetic bigarren Adan , Jesucristoc piztu , edo erresucitatu cezan . Eta one-

la Santuac contateen dute : Eta Aita Cornelioe dacar gucia.

Oriez dira Calvarioco , edo Jesus crucificatua ill-zaneco milagroren batzuec. Baña gure Salvadorean Cerura igo ezquero guciac, ¿noro conta ditzaque? Alacrogaurco Santu miragarriaren maravillaric aundiena contatu gabe ecin utcico-det. Au escribitcen dedan eguna, San Francisco gloriosoaren eguna bera da. Jesus gu-gatic ill-ezquero, milla eta berreun urterontz cijoan, eta Cristau gueyenen biotzac ill-otzac becela ceudenean, Jesusen biotceco amorean guztia berrero irazaqui nai-izan-cituen, eta orretaraco seculan icusi etzan Ceruco maravilla, edo prodigio bat, bere pareric lurrean icusi ezduena, eguin-izan zuen. Baña ¿Non, edo nor gan? Guizon Serafin, edo Francisco Seraficoagan.

Guizonen artean berequico chiquiena, eta gurequico gucien artean aundia; bada Jaungoicoaren beguetan eguiatz aün aundi señalatua izan zan. Ascotan gogoratcen-zat, eta guztioi bear-zagu, eta

cein gogora diteque, Jesucristoreu humildade, eta anforioa, Santu onetan, Ceruco escolan becela, icusi, eta icasi gabete: leccio alde gucietara miragarriac eman eizquigun. Gure araguizeo argaltasuna aiiñ gora, eta aiiñ altu igoric, icusi, eta nie ez daquit cerzaz gueyago admiratu: edo Franciscoren humiltasunaz, edo aren amorezco altutasunaz. Gauza ciertoa da, batac, eta besteac leya santu, eta pelea viciac Ceruco Serafin eder au lurrean Jaungoicoaren escuaz gure egemplo, eta devocioraco ala moldatu zutela.

Eliza Santac San Buenaventurarequin dio, Francisco humilla ill, edo Cerura igo baño urte biz lenago, barau, eta oraciozco garizuma Aingueru San Migueli aterateen Alberniaco mendian cegoela, Irallaco gurutce santuaren festarontz, Franciscoren biotz humilla bere amorezco egoaquin Jaungoicoagana oracio be-roan ariñ igo zan: eta Serafin eder gurutcean josi bat aguertu citzayon, eta bere biotza arguizaguia becela, beraa, amorez, eta lastimaz catibutu cion. Orduan

gure Jesusen amorean Calvarioan borre-
roen tormentuaquin bere gorputcean era-
man, eta sufritu zuena, Serafin llaga-
tu orrec San Franciscoren gorputz dicho-
soan eguin zuen. Bost su-gar argui vici
amorezco saetae becela, bialdu, eta Jesus
maitearen bost llagac eguin ciozean.

Francisco gucia sutegui bat eguin zan;
eta gure Redentorearen amore suae, eta
garrac Santuaren biotza artu, eta zori
oneco molde onetan bost llaga precio-
soac amore dolozco, eta dolore amorez-
co milagrosoarequin gorputcean atera,
josi, eta aguertu ciran: eta Santu aun-
di, pobre, aberatsa, cembait eta honra-
tuago, ambait humillago: len bere animan
Jesus Crucificatuaren Ispillu vici, eta anz
eguin eguiña zana, gorputcean ere bera-
ren erretrato vici, edo imagiña eder egui-
ñic menditic jechi zan. ¡ O amore portitza-
ren lanic miragarriena ! ¡ O milagro be-
guiz icusi dan arrigarriena ! ¡ O munduco
biotz epel, edo otcen Ceruco berogarri,
Jaun crucificatuac guri emana !

Au da gurutce Santu egunean, edo

aren festaronz Francisco humillagan e-
 guin-zan milagroa , baña len eta gue-
 ro maravilla aundiz betea. Eta gure pro-
 vechuraco cerbait esateco , favore seña-
 latu ori arteco , Santua nola Jaunac
 prestatu zuen , bere Seme maite Docto-
 re Serafico San Buenaventura adi de-
 zagun. Santu onec dio ece , Aita San
 Francisco oracioan jarri baño len , Jaun-
 goicoac esan ciola Evangelioco liburua
 idiqui cezala , eta esango-ciola Francis-
 cogan cer nai-zuen. Aldaretic liburua ar-
 tu , eta bere lagun bati eman cion ,
 idiquiteco. Iru bider onec idiqui , ta
 iruretan Jaunaren pasio edo calvarioco
 pausoac irten-ciran , eta Jaunaren mila-
 grozco favoreren-bat artu bear zuela .
 Santuac ezagutu zuen , eta bestetan ba-
 ño ere devocio aundiagoaz oracioan jar-
 ri-zan.

Orduan Serafin bat amorezco argui eder-
 rez betea distiatcen guztia , eta egaca San-
 tuaren beguietara etorri zan , baña gu-
 eiz icusgarria. Sei egoa cituen : orien
 artean Serafin irazaqui orrec ceucan gui-

zon crucificatu bat, escu eta oñac iltceez gurutcean josiac : onen gañera egoa biac gora igoteen ciran : beste biac gorputza estaltzen zuten ; eta beste biac egateco zabalteen ciran ; eta onela beguira cegoela, Santu Serafico onen gorputcean , eta era eta molde artan Jaunaren bost llaga sagraduac josi , eta aguertu ciran. Santu precioso onen escu eta oñetan ceuden aragui gogorrezco iltceac beren buru biribill beltzaquiñ escu gañetan , eta oñ orracietan : puntac berriz luceac beste aldera igaroac , eta an martilluz macurtu eta erremachatuac becela : Escuyeco aldean costaduro llaga , aradizagorri baten guisa , eta onetatic odol asco Santuac eman oi zuen eta aiñ ugari , non oyal edo zapiac , eta tunica ere busti-oi-cituen.

Arrezqueroco urte bietan Ceruco guizon Seraficoa , edo lurreco, Serafin Francisco ¿nore daqui nola vici izan zan ? Jaunaren señale , eta joya precioso ayequin bere burua icusi , eta cerutarrari becela beguiratcen cion , andic aurrera onen ani-

ma amorez Ceruan vici zan : eta gastea bazan ere , amore portizac aiñ estu , aiñ hero , eta aiñ viciro artu zuen , non , eta aren gabac , eta egunac beti nequez , dolorez , miñez , suspirio , eta deadarrez , amore gozoaz urtu deseguin , eta beti vicitceco , ill arteraño izandu ciraden . ¡ O Calvarioco milagro vicia ! Berrogei , eta bost urtecoa , Santua ill zan , eta oyetatic oguei urtean Jaunari bere biotza aguindu ezquero , aimbeste maravilla berac , bere Religio milagrosoac , bere Seme Santuaquin eguin cituen , eta beti eguiten arida ; eta ala andic urte bira , berariaz Aita Santua Asis , Santuaren Errira joanic , solemnidade aundiaz Canonizatu zuen .

Aita San Francisco Cerura zaneco , ta gueroco aren milagroac caburic ez dute : Bere Hlaga Sagraduen insigniac estali , eta gordetceco aleguin guciac eguin cituen , vici zala ; baña ill , eta bereala aguertu , eta patenteac egon ciran , eta eciñ contatu ala gende errico , eta campoco etorri , eta devocio aundiaz icusi .

eta adoratu cituzten. Gorputz Santua eramán zuten Ama Santa Clararen Conventuco Eleizará, eta Santac bere Monjaquin Ilaga sagraduac devocio, eta negar aundiaquin adoratu cituzten. Canonizatu, eta andic urte bira Asisco Conventuan Santuari Eliza berria eguincioten, eta Franciscoren gorputz sagradua an sartu zuten.

Baña andic iruroguei eta amabi urtera maravilla gucien coroa Francisco humillari gure Jaungoicoac eman cion. Dembora onetan Aita Santu bide zan Nicolas VI ceña lenago San Franciscoren Semea, eta Religioo Ministro Generala izan zan. Deseo aundi batec oni eman cion Aita San Franciscoren gorputz sagradua icusteco, eta berequin Cardenal bat, Obispo bat, bere Secretarioa, eta Aita Guardianá chit isillie gau batean artu, eta bostac Santua cegoen lecoronz joan ciran: Bobedan sartu ciran, eta billatu zuten Ceruco ondasun, edo Gorputz Santua: Poz aundiarequin icusi zuten, Aita santuac gau artan bere laguna-

quin cer eguin zuen , guero jaquiñ zan ; eta ezcutuan luzaro egon zana Cardenac bere eriotzaco orduan bere adisquide aundi bati aguertu cion ; eta Santua-
ren historiae dionez , onela contatu cion.

» Gauza mirari aundicoa zan guizon ill baten gorputza cegoan becela , edo era artan aimbeste demboran egotea ; bada zutic , eta zucen cegoen , eta ez batera , eta ez bestera arrimaturic.

» Beguiac , persona vici batenac becela , iriquiac ceuzcan , eta ceruronz cerbait alchaturac ere , edo modu onean.

» Gorputz guztia osoric , eta ustel ba-
gue cegoen , zuri gorria , vicia balego be-
cela.

» Escuac habituaren manguetan estali ,
edo sartuac , eta hularraren aurrean , aren
semeac oi duten guisan.

» Aita Santua , au icusi , eta erreve-
rencian , eta devocio aundiarequiñ belau-
nico jarri zan , eta oñaren aurrean ceu-
can habitua jaso , eta berac eta an gueun-
denac icusi guenduen , oñ Santu artan
nola ceucan bere llaga odol berri edo aiñ

frescoarequiñ, nola gorputz vici batean orduanche burniaz equiña bazan.

» Beste oña erquiñion icusi, cergatic habituz estalia, eta au bere oñaren azpian sartua edo artua ceucan.

» Aita Santuac escuac aguertu cituen, eta ayetan oñean becela, llagac icusi guiñituen: eta escuetan eta oñean muñ-eguiñ guiñion.

» Aita Santuac escui aldera beguiratu, eta habitua idiquia icusi zuen, eta costaduco llaga aïñ berria eta frescoa, nola besteac.

» Llaga onetan, eta Santuaren aon Aita Santuac bacarric (ez gue) muñ-eguiñion, eta bere biolcean aibeste devocio eta santidade gozo sentitu zuen, non eta maravilla bat zan camporonz eracutsi zuena.

» Azquenic aibeste consuelo, eta alaco suavidadea anima eta gorputcean guztioe artu guenduen, ece gau gucia igaro zanic ere beguiratcen edo uste ez guenduen.»

Mirari aundi au contatu, eta Cardinal dichoso ori ill zan. Onelaco milagroric munduac seculan icusi ezta, eta

host esan diran personac, San Franciscoren gorputcean mirari au icusi, miratu, eta admiratu zuten. Gorputz ori bertan gueratu zan, eta arrezquero inore ere ez biredu icusi: eta Ceruco tesoro aundi ori an dago gorderic: ta bere seme Santuac alde bictatic gau, eta egun Jauna alahateen dute, eta beren Aita gloriosoari honraric aundiena bere Elizan ematen diote.

Gare erredencioeo señalear Santuacartu cituenetic, milagro aundiac eguiten Alberniaco mendi dichosotic asi zan; bada lenago ehit calte aundi asco, turmoi, eta arriac eguin oi cituen eta fruta guciac galdu oi ciran; baña llaga sagra duac Franciscoe an artu ezquero, Ceruco bendicioz mendia bete zuen, eta calteric gueyago icusi etzan, eta bedeincatuac becela lurrac bere frutuac eman oi ditu.

Santua ill ezquero, Aita santu ordaan zana, duda aundi batean jarri, eta Francisco bere adisquide zanaren costaduco llaga, ala otezan cegoela, Santua bere insigniaquin aguertu, eta aser-

re guisan mañchatu zuen, ta han ceu-
can ampolla, edo oncicho bat escatu-
cion. Aita santuac ori eman, eta Fran-
ciscoc bere costadu au idiquia eracutsi, eta
aren odol fresco cerionaz bete, eta biur-
tu cion: Eta Aita santuac, esan degun
becela, Santuac ill, eta bigarren urtean
Canonizatu zuen: Eta onela bere llaga
sagradaquin beste milagro aundiac eguin
izan ditu, Santo Domingo, eta San
Francisco beren religioaquin mundura
etorri baño len, Abad Joaquin fama-
tuac Veneciaco San Marcosen Elizan,
Santu biac beren habituaquin, eta Fran-
cisco bost llagaquin piatatu cituen.

Calvarioco devocioa dntenezat egem-
plo, eta leccio ederrac dirade oyec. Gu-
re Redentorea an ill zanetic beti Cris-
tauen artean Erri Santua, eta Calva-
rioco estacioen deyocio chit aundia izan-
du zan: eta ehit asco Jerusalena joan
oi ciran, eta ascoc voto eguñic, pau-
so sagradu ayec ibilli, eta visitateco
devocioa artu eta eguin zuten, Santu as-
coren vicitcetari au icusten degu, Jaqui-

ña dá beste Jaun edo Caballero baten visita santua : lecu sagradu ayetara joan , eta devocio aundiaz confesatu eta comulgatu , eta Calvarioco estacio guztia ibilli , eta Jesus Cerura igo-zan Olive-teco mendian amorez urtu , eta deseguin , eta esan cion : Jauna , zure Pausoetan eta zure ondoren ibilli naiz : Ez daucat non zu lurrean billatu , ez bada Ceruan : emen zu Cerura igo ciñan , nic or arquitceco. Cerura beguiac jaso , eta amorioz irazaqui , eta esan cion , Nere Jesus , Jesus nere amorea ; eta onetan illic guelditu zan. Eta biotza amorez erdi-bi-eguiñic arquitecioten. ; O zori oneco Jauna !

Beti Aita San Franciscoren Seme devotoac lecu Sagradu orieac eta sepulcro Santua , infielen artean-ere beren Ceruco Patrimonio Seraficoa becela , edo beren Aitaren herencia , ondasun precio-soa , gorde izan dute. Orain ere eta gure alde oetatic ere beren devocioz Religiosoasco Jerusalena joaten dira , Calvarioco lecu , eta pauso santuac visitatu , eta an

luzaro egon, eta vicitcera. Nic nai nuqueana dá au ecin dutenac, guizon, eta andre eri eta oaturic daudenac ere, besteric ezpada ere, beren eche edo dauden lecuan, Estacio oriee edo visita au espiritu ta eguiaz ondo eguitea.

Estacioac egoera esan nai du: eta egoera au pauso Divino orietan soseguz guelditu, eta devocioaz pensatcea da: gure ondoren, edo billa Jaunac eman cituen pausoac, eta gure animac ari cembaitamorre, eta dolorezco nequeac costa citzayozcan ondo pensatcea. Guero ematen ditudan Consideracio eta oracioac batec ascori ondo iracurri, eta bacoitzac bere biotcean Calvarioco visita eta devocio au chit ederqui eguin dezaque; eta onela eguiten bada inor ere ecin dagoque bere animan provechu eta irabaci aundibat aseguratu gabe; bada Jaunaren guruceco Eriotza gure vicitza dá, pecatuen erremedio eta gure salvacioco bide segurua: Eta ori bera da Ama Virgiñaren Errosarioco Misterioetan, eta eguiazco orien devocioan degun Ceruco dicha, bal-

din sosegus , biotz onaz, fede , eta espirituarequin eguiten bada ; eta orren gañean oraiñ hitz eguin nai det.

IRUGARRENA.

Errosario Santuaren maravillac.

Jaungoicoaren Ama miragarri , edo Ceuuetaco Erreguiñaren egun alde gucietara aundia ; eta Ama Virgiñaren Errosarioco , Jaungoicoaren Misterio guztien Ceruco ondasunez hetericaco solemnidadea , gaur , edo dicha aundiaz nic zu escribitcen dedan eguna dá pensatcen nago gaur , eta onelaco Errosarioco egunetan Ceruco , eta lurreco Erreguiñari Aingueruac , eta guizonac ematen , eta predicatcen diozcaten alabanzac , Cerucoac , lurrecoac baño obeto , baño han , eta emen caburic ez dute eta arrazoi aundiarequin ; ceren Ama Santisimaren Errosarioco favoreac neurri , eta conturic dute.

din sosegus , biotz onaz , fede , eta espirituarequin eguiten bada ; eta orren gañean oraiñ hitz eguin nai det.

IRUGARRENA.

Errosario Santuaren maravillac.

Jaungoicoaren Ama miragarri , edo Ceuuetaco Erreguiñaren egun alde gucietara aundia ; eta Ama Virgiñaren Errosarioco , Jaungoicoaren Misterio guztien Ceruco ondasunez hetericaco solemnidadea , gaur , edo dicha aundiaz nic zu escribitcen dedan eguna dá pensatcen nago gaur , eta onelaco Errosarioco egunetan Ceruco , eta lurreco Erreguiñari Aingueruac , eta guizonac ematen , eta predicatcen diozcaten alabanzac , Cerucoac , lurrecoac baño obeto , baño han , eta emen caburic ez dute eta arrazoi aundiarequin ; ceren Ama Santisimaren Errosarioco favoreac neurri , eta conturic dute.

Gaur Errosario Santuaren virtutez, bere Semearen, eta beraren enemigoen contra Ama Virgiñac eguin dituen favore, eta eman dituen victoria gloriosoac predicatcen dira. Gaur San Pio Quintoren demboran Lepantoco ichasoan Turcoen contra Don Juan de Austriac Errosarioaren bidez irabaci zuen milagroco batalla, eta beste orrelaco maravilla asco munduan Virgiña Amaren alabanzac contatcen, eta predicatcen dirá; eta orregatic oriee guciac gauza jaquiñac dirá. Nic oraiñ Ama Santisimaren Cernuco devocio onec peccatarien erremedioraco eguiten dituen milagro, eta favore batzuec contatu nai ditut, eta lenago Santuen devocio, eta egemploac.

Eta onetatic asitcen guerala, gure euscaldunenzat, asco da jaquitea, gure mendi tarteco Santu biac, edo Aita San Ignacioc, eta Aita San Francisco Javierrec Errosario santuarequin iduqui zuten fede eta devocioa. Goizero Aita San Ignacioc Jaungoicoari Ama Virgiñaren escuetatic bere biotza, eta obrac agundu eta

lenengo eguiten zuen egercicioa edo gauza zan, bere biotceco devocio guciarequin errosario santua errezatcea. ¿Cer egemplo ederragoric, eta cer Ceruco egercicio oberic Ama Santisimari zor gozo au goiz, edo len baño len onela pagatcea baño? Jesusen Compañiaco Aita Teofilo Rainaudo jaquinsuac dio devocio guztien Erreguiña Errosario santua dala: Ceruco Erreguiñari ematen zayon doay divinoa.

Errezo guztien Erreguiña becela, Errosarioa Indietara ango apostolo San Francisco Javierrec berequin eraman zuen; eta aibeste milla animari eracutsi, predicatu, eta ecin contatu ala milagro aundiaquin confirmatu cien. Errosarioa predestinatuen marca, eta Ceruco atearen guilza becela ceucan vicitzan, Jesuita gazte Juan Bermans, Ama Virginiaren gdisquide maiteac, eta ori escuetan ceucala ill naiizan zuen. Santu oyec berac Errosario santuaren bidez Cerutic artu cituzten erregalo eta favoreac gatic, guciai oracioen Erreguiña au encargatcen cien.

Aita Antonio Vieira samaric andieneco , eta virtute aundiagoco guizona , eta munduco predicadoreen artean bere pareric secular bear bada icusi ez duena , Errosario santuaren ehit devoto señalatu izan zan. Eta ala ichasoetan nola leorreetan , bere aimeste viaje eta peligro icaragarrietan Ama Virgiñaren Errosarioaz beregan icusi cituen Ceruco favoreac-gatic , devocioen Erreguiña au beti predicateco votoa eguin , edo Ama Santisimari aguin du cion. Eta Ceruco Erreguiñac lagunduric onen eta bere Seme Jaunaren errosarioaren gañean ogei eta amar sermoi mundu guztia admirateen dituenac , secular iñor ez becela , errosarioco misterio divinoen devocioraco , doai aundiaz eguin , eta predicatu cituen.

Orietatic dotriña aundico ejemplo edo milagro batzuec , Santo Domingo gloriosoaren honraraco , eta Errosario santuaren devotoen consueloraco , cmen contatunai ditut. Eta lenengoa , ta guciz miragarria Aita Vieirac onela contateen du. Aita Santo Domingo , Aingueru baten guisan ,

animae Ceruraco irabazten cebillenean , eta Carcasonan bein batean errosario sagraduaren maravillac predicatzen cegoalla , gazquiñac cituen guizon triste edo endemoniatu bat bere aurrera eracarrizuten : Chit furiazua cegüen ta bere burua chiquitcen zuela , eta catea andi batequin lotuta bacegoan ere , inolaco moduz , eta ez inore ere ecin iduqui edo sugetatu zuen.

Baña Santu gloriosoac, Escritura Sagraduco Aingueru catea dunac bezala , catea Cerutic artua eta segurua , ceña Errosario santua zán , herequin zuen : Dicha gabeco guizon galdu orri bere Errosarioa bereala lepota bota , eta icara eta visage isugarriaquin sugetatu zán. Araco Ama Virginiaren cateaz sosegatu zanean , Santa aguintaria becela , deabruari galdetzen asi zán , eta aü bere gogoaren contra bazan ere , eranzuten. Guizonaren barrenan aditcen zan iscamillac , lengoaje ascotaco barbullac , eta deadar arrigarriac , argan ceuden demonioac chit asco cirala , claro aditcera ematen zuten.

Lenengo Santo Domingoc galdetu cion-
 na zán: ea gorputz artan ceuden deabruac
 cembait ciran, ta cergatic an sartu ciran?
 Eranzun cioten: Gu guera amabost milla
 demonio, eta Jaungoicoac aguindurie gui-
 zon au gucioc atormentatcen degu, cerren
 Errosario santuaren etsai, heresi, blasfemo
 bat izandu dan; eta Frai Domingoc predi-
 catcen duen devocio onen contra gorrotoz
 heteric, eta chit gaizqui hitz eguiñaz,
 anima galdu ascoren conversioa eragozten
 zuen. Santuac estuago artu, eta esan cien:
 ¿Ea amabost milla contatuac cergatic ci-
 ran? demoniac esan zuten: cerren Erro-
 sarioco amabost misterio sagraduen ofen-
 san gaizqui esaca escandalo aundian ibilli
 dan. Gure gogo guztiaren contra guizon
 onetan sartu guñan; cerren au infernuc
 ministro latz bat guenduen, eta onega-
 tic anima asco condenatu diran, eta ira-
 baci aundi ori gucia galdu degun.

Gauza oyce aditu, eta Elizan ceuden
 guztia arritu eta bildur santuz heteric
 ceuden; eta enzun-zuten, nola guizon
 galdu ori Santo Domingoc eracusten zuen.

Errosarioaren contra errevelatu, edo bihurtu zan; eta argatic alaco tormentu icaragarriaz, ez demonio batequin baicic amabost millarequin Jaungoicoac castigatzen zuela. Onela Errosarioaren etsaya etsai infernucoai Jaunaren justiciac entregatu cien. Errosario santua erraz utci, eta aztutcen diran naguiac bildurtu ditacen.

Bigarrena Santo Domingoe demonioai galdetu cien gauza zan, cristauen artean condenatcen ciranetatic gueyenac nor, edo ceñ, edo nola ciran? Eta beraren lagunetatic, edo Frai Francisco bere anayaren lagunetatic; ea infernuan inor ote cegoen? Oni demonioen artean batec esan cion: Araco aundi nai, noble, poderoso, aberats erregalatu, ala guizon nola andreetatic infernuan chit asco ditugu. Oyec beren aundi nai, soberbia, vanidatea, envidia, lujuria, edo araguiaren gasto loi, eta beste orrelaco pecatu, eta vicioac eriotzaraño berequin dituzte; eta pobreaki eguiten diezten calte eta agravioac erremediatcen ez dituzte; eta ala di-

ranac edo gueyenac infernura dijoaz. Baña gendecho necazari pobre humilletatic chit guchi condenatcen dira : oyec Santuac ez badira ere, beren pobreza, neque, billatu bearrac asco ocupateen ditu, eta pecatu ascotatic libratcen ditu, eta erraz penitencia eguiten dute.

Zure, eta zure anai Franciscoren lagunetatic, eguia da, infernuan batere oraindic ez degula. Baña gure sareac bota, eta aleguiñaz sayatuco guera, eta gueldica beren obligacioaz aztu crazo, eta besteentzen guisan, batzuec gure atzaparretaraco ditugu. Onen claro Santuari demonioac hitz eguin cioten: Eta ay ¡Cer lotsa Jaunaren juicioan Evangelioac eguiac, bear becela, claro eracutsi bear, eta eguiten ez dutenai demonio oriec emango dien! ¡Eta ay aberats galdu bearrac, beren limosnaquin billatcen ezpadute, pobreac arquitec duten penitencia, eta Jaunaren misericordia!

Irugarrena, Aita Santo Domingoc demonioari galde cion: ¿Ea Ama Virgiñaren Errosarioaren gañean arc predicatcen

zuena, eguia zan? ; Eta Ceruan bildurric
 aundiena nore ematen cien? eta lurrean
 guc ceingueyena honratu, eta amatu bear
 guenduen? Araco au aditu zutenean, ama-
 bost milla demonioac chit lazqui arazotu,
 eta deadar eta garrasi añ izugarriac eman
 cituzten, nunda Elizan euden gende asco
 arrituric erori eiran. Beren aleguiñaz,
 aguirian eranzun-nai etzuela, cioten. Baña
 errosarioaren virtutez estutu, conjuratu,
 ta bereala esateco aguindu cien. Orduan
 arrabia viciaz irazaqui, eta guztiai esan
 cien onela.

Ceruan zuten etsairic aundiena Jaun-
 goicoaren Ama Santissima zutela; eta aren
 poderio eta amparoa ez balitz, cristau
 guciac beretuco cituela. Ama Virgiña-
 ren suspirio edo nai batec, Aingueru eta
 Santu gucien erreguac baño gueyago
 Jaungoicoarequico valio zuela. Eta, bada,
 gure damu gorri gogorrean badere, eguia
 eta secreto escutatu au aitortcera obliga-
 tzen gaituzte, Cristau guciac jaquizute,
 Ama Virgiñaren devocio, eta amorioan
 fielquiro, edo ondo irauten duenic, bat-

ere condenatcen ez dala ; Eta beguiaz dascusu , Frai Domingoe predicatcen duan guztia , eguia hera dala : eta devocio orretan firme dagoenic batere galduco ezdala secular.

Au demoniac esan zuten , ta guezurraren aita deabrua badaere , eguia audioriee bi nulla eta gueyagoren aurrean esan cituen . Orduan Santuac endemoniatu triste ori bere poderio aundiaz guciendian ceucala , esan cien : Desdichatu ta libratceco Ama Virgiñari Errosarioa belaunico erreza diozagun . Devocioz guciac Santuarequin asi ciran , eta ¡ ó Errosario sagraduarèn poderio , eta gracia ! lenengo Ave Maria esan orduco , infernucosugar-beltz illun batzuen figuran , eun demonio guizonaren aotic lasterca irten ciran ; bigarren Ave Marian beste eun eta orrela beste bacoitcean ; eta amabost misterioac errezatu , eta amabost milla demonioac ayenatu , eta guizona libre gurratu zan . Baña ez gorputcean bacarric , baita animan ere , eta Jaungoicoagana biurtu , ta Errosarioco misterio divinoen

chitezco devoto aundia izan zan; eta aimbeste milla anima an ceudenac conversio milagroso, ta Ceruco exemplo argui onequin Jaungoicoa eta bere Ama Santissima alabatcen, eta Errosarioaren devotoago guelditu eiran.

Onelaco maravilla aundi asco oracioen Erreguiña Errosarioac animen favore eguin ditu, mundu guztiar. Zaragozaco Elciza batean Santua predicatcen cegoela, guizon aberats bat, ta abereac baño atsa-go, pecatuetan sarturic cegoena, ta Don Pedro ceritzana, sartu zan. Aldi biz Santuac aren anima icusi zuen alaco figura belz ihusi, ta demonio ascoc beste aimbeste ceterequin, nola eiran aren pecatuac, tiratcen ciotela. Orduan Santuac Jaunari escatu eion, guizonaren anima, estadu triste artan, Elizan ceuden guciai arren aguertu ceguiela. ¡ O Juicio Justu icaragarria ! An eiranai beguiac arguitu, eta aren anima icusi, ta aiñ bildur aundiac artu cituen, non da guciae, ezagun, aide, eta here emazte eta ehecoac batera eta bestera argandic lasterca igues egnin zuten.

Baña Ceruco catea bedeincatua , edo Errosarioa Aita Santo Domingoc bere lagunarequin bialdu , eta arequin damuz , lotsaz , negarrez eta deadarrez bere peccatuac esaten Santuaren oñetara pozez allegatu zan . Ama Virgiñaren icenean aguinducion Errosarioa egunero devocioaz esan cezala ; eta guizonac , erri guciac cecuzela , arrigarrizco penitenciac eguin cituen ; eta Ceruco devocio onen misterioac chit soseguz beti meditatcen cituela , viciera Santu bat , eta milagroac ere eguin izan cituen ; eta Don Pedro , len peccatari , erriaren beatz jopa , edo escandaloa , demonioz beteac icusi zutena , Ama Virgiñaren favorez Eliza artan bertan guero Aingueruen erdian , eta Ceruco gloriazco coroa ipintcen ciotela icusi zuten .

Irugarren milagroa : Francian familia bi , guztiz poderosoac , aserte , gorroto eta eriotcetan sartu , ta ondacten ciran . Eciñ ñore , ezta Santo Domingoren arrazoiaac ere paquera ecarri cituen , bere espiritu eraguille guciac hitz eguin ta orregatic ere alperric zan . Azquenic , Ceruco arma se-

gurutara , edo bere Errosarioco sagradura biurtu zan. Ama Virgiñari errozatu , eta banaca bacoitza Santuac artu , eta Jaungoicozco devocio au encargatu , eta esancien : Errosario Santuaren devocioa dembora guchico edo laburra , eta errazada : eta Jaunaren leguea , eta zuen obligacioac cumpliteco asco lagunduco dizutena. Santuac esan , eta Ama Virgiñac eguin , eta ala icusi-zan. Beñ batean familia ayetaco Jaunac edo buru biac usitez uste bague cale batean alcar topatu zuten. Guçiac , alcar erremedio gabe ilco zutela , uste zuten. Baña Ama Virgiñaren Errosarioco devocioac bien biotzac trucatucituen , eta alcarri bareatu , eta laztanga , anayac hecela , betico adisquide guelditu ciran , eta amorioz eta egemplo aundian chit ondo vicitu ciran.

Laugarrena. Oracioen Erreguiña , edo eguneroco errosarioa , Ama Santisimari zor diogun Ceruco coro eder bat da. Ama Virgiña Ceruan icusi nai dezun Cristauna , beguira coro eder ori eguiten , ez gueroco utci : zor gozo au pagatceco , ez

nagui, alper, eta ajolacabe izan, Ama Virgiña aserratu ez dedin : eta orrelaco andre galdu haten ejemplo tristea adiezazu. Au zan, ez alperra ece baita ere Errosarioaren eriozco etzaya, eta Ceruco devocio oni guerra vicia beti eguiten ciona. Deabruac engañatu, eta aihñ ichu cegoela, Virgiña Ama gozoac bere aviso bat eman nai izan cion; orretaraco gaitz andi batec artu zuen. Baña aviso ori asco ez izanic, Misericordiazco Ama bera aguertu citzayon eta arguitasun icuzgarri batean eracutsi cion, aren Errosarioaren eguiatzco devotoac Ceruan zuten gloria, eta devoto etziranac beren animetan cer calte andiac cituzten.

Eta orrez gañera, andre galdu orri lotsa andiagoa emateco Errosarioa errezatu gabeaz, berac mandamentu gucien contra eguin cituen pecatu guztiaquin Ama Virgiñac arpeguian eman cion. Eta ona, Errosarioa bear dan devocioaz errezatcea, pecatuetatic libratceco, ta mandamentuac ondo gordetceco, Ceruco erremedioa nola dan. Eta aú beren animetan icusteco, emen gure necazari onai berriz erregutcen diet,

Jaungoicoaren Ama maitearen Errosario santua arren afal-ondo, edo osteraco utzi ez dezatela. Deabru charrac orduan, oy duen bezala, lo galea, edo infernuco lo pisua eman ez diezaten: beti Ceruco devocio edo zor gozo aũ pagatu afaldu baño lén: ondo ciñatu, contriciozco actua eguin, hatec contu eramán, onec beti Ave Maria, ta besteac Santa Maria esanaz; guero afaldu, eta lo on bat paquean eguiteco.

Bostgarrena. Esan diran milagroac baño andiago baicic ez da, Ama Virgĩnae bere Errosarioarequin conventu batean eguin zuen maravilla, eta favoreca. Monjae emen chit lasai, ardura bague, eta galduric vici ciran, eta erremedioa eman nayagatic, artu nai etzuten. Eche artan Monja bat bacarra Errosarioaren devotazán, eta onen bitartez, guciai beren Preladuae Ceruco devocio gozo erraz aũ chit biotcetic encargatu cien. ¡O prodigio miragarria, eta Ceruco virtutezco erremedio berria!

Beste bague bereala Errosarioa devo-

cioaz errezatcen asi ciran ; eta beste ba-
 gue , dembora guchiñen buruan , Monja
 guciac trucatu ciran , eta Conventu gu-
 cia Ceru vici bat eguin zan ; eta berac
 Jaungoicoagana eguiatz biurturic biotz
 osoaz reforma escatu zuten , eta ori aiñ go-
 gotic artu zuten , Jaunaren vorondateac
 naiduen becela , nun eta orrezaz eta be-
 ren erregla Santuac ederqui gordeaz, san-
 ta batzuec eguiñic vici izan ciran. Ama
 Virginiaren favore, ta milagroric aundiena
 ejemplo aũ da. Jaincoac , eta bere Ama
 maiteac , gucioi beren arguia ta gracia
 digutela , bien misterioac Errosario san-
 tuan meditatceco ondo , eta ori egunero
 devocioaz errezatceco ; biac orain alaba-
 tceco lurrean , ta guero beti Ceruan Glo-
 rian. Amen.

Orain Aita San Joserengloriac icuste-
 ra igaro gaitean. Emen, iracurlea contuan
 zaude , nola esan ditugun Jesus onaren
 Pasio ta Eriotzaco Pauso eta maravi-
 llac . Aita Cornelio Alapidec Evangelioen
 gañean chit ederqui dacartci , eta San-
 tuetatic contatcen ditu ; ala berac San-

tu eta Doctoreric andienaquin, Aita San Joseren Excelencia chit andiac eta asco contateen ditu, eta onen gaudic eta Aita San Joseren devocioco liburucho Salamancean aguertu zan batetic, onen alabanzac nic artu ditut.

LAUGARRENA.

Aita San Joseren noblecia Errealá, eta dignidadea.

Jaungoicoac bere Seme bacarra mundu galdua salvatcera biraldu baño len, Patriarca-Santuai aguintu eien, ta bere profeta ascoren aotic aren etorrera, lecu ta modu ascotan aguertu zuen. Inoren, ta eceren bearric ez duen Jaunac, ta guciarren Jabe zanae becela, bere ontasun, aberats eta misericordiaz hetericaco gunganonz zuen vorondatea bear becela cumpliteco, bere Ama Maria Santisima, Virgíña miragarria, onen Esposo Jose Santua, eta Amaren guraso Joaquin, ta Ana

tu eta Doctoreric andienaquin, Aita San Joseren Excelencia chit andiac eta asco contateen ditu, eta onen gaudic eta Aita San Joseren devocioco liburucho Salamancean aguertu zan batetic, onen alabanzac nic artu ditut.

LAUGARRENA.

Aita San Joseren noblecia Errealá, eta dignidadea.

Jaungoicoac bere Seme bacarra mundu galdua salvatcera biraldu baño len, Patriarca-Santuai aguintu eien, ta bere profeta ascoren aotic aren etorrera, lecu ta modu ascotan aguertu zuen. Inoren, ta eceren bearric ez duen Jaunac, ta guciarren Jabe zanae becela, bere ontasun, aberats eta misericordiaz hetericaco gunganonz zuen vorondatea bear becela cumpliteco, bere Ama Maria Santisima, Virgíña miragarria, onen Esposo Jose Santua, eta Amaren guraso Joaquin, ta Ana

zori onecoa, lurreco guztien artean se-
ñalatu, eta bere familia sagraduraco artu
cituen. Joaquinen Icenac Jaunaren pres-
taera, edo preparacioa esan nai du: Anac,
Gracia edo graciazcoa: Eta Josec, Jaun-
naren aumentu edo gucitatea. Mariac, go-
ra igoa. Beren misterioa guciac dute.

Mundu galduari pecatuen erremedioa
emateco, ta Jaunaren etorrerarequin egui-
azco vicitza berria ta osasuna guc ar-
teco, prestaera ta gracia, Ana eta Joa-
quinez aditeen dana, ta ontasun gueyago;
Jose Santuaren icenac diona, bear ciran:
Bitartean, Jaungoicoaren guizon, Patriar-
ca eta Profeta onac, contatuac izan ciran:
eta Aita Eternoaren semeac artu bear
zuen bere jatorrizco ta jayotzaco etor-
quin edo casta erreguetacoan, Erregue
santuac guchi, ta gaiztoac gueyenac izan
ciran. Argatic mundua pecatuaquin gal-
teco ta illteco zorian, eta esperanza
guciaren atea ichita becela cegoenean,
Jaunaren erremedio eta salvacioco atearen
guitza S. Jose izandu zan.

Patriarca paregabe onen nobleciarequin

Jesu Cristorena, Evangelista bitan Espiritu Santuac aguertu digu. Jose gandic gora San Lucas igoaz Aitatic Aitara, eta Asabetatic Asabetara, guztia eta bacoitza banaca contatuaz, Adan gucien guraso-raño igotcen da. S. Mateo berriz Abraham santutic bera Jose gloriosoa gana jechitcen da: eta gurequico munduaren asieratic, belanetic belanera generacio guztia zori oneco Jose nobleagana datoz: eta fedeco noblecia edo Idalguiric garbienaren aguiria, Patriarca eta Erreguetatic, secula gucien Erregue bacar Jesucristorentzat, Jose, Aita ustecoraño, Espiritu Santuac claro ematen digu: Bay eta noblezarequin batean, Jose maitagarriaren virtute aundien aguiria, eta berri onac ere.



NOR, EDO NOLACO SANTUA ta cein Jaungoicoaren guztizcoa dan Aita San Jose, onen devotoac ondo aditceco, lenago Jaungoicoaren bere obretaco governu miragarria beguiratu bear degu, eta Evangelio edo historia divinotie berri on gucien sustrai seguroa artu.

Lenengo erregla ciertoa, eta jaquiña da: Jaungoicoaren obrac nola alde gucietara cabalac, eta aiñ ederqui eguiñac diran, ala guizon bat bere gloriaco siñ alturen batequin artu, ta señalaten duenean, orretaraco bear diran eta ondo dagozquion gracia, edo deai ta prenda on guciac, bere escutic becela, eta ondo daquien ta nai duenac becela ematen diozea. Bada, Jaincoac manduan izanda duen eguiteco, obra edo misterioric divinoen, altuen ta ezcutatuenaraco, nola Jose Santua guizon gucien artean antesi edo escogitu zuen, ala oficio ori Jaungoicoaren gustora bete batean eguiteco,

beaz ciran gracia , doai ta privilegio gu-
cia eman eiozean.

Orrela ¿ nór edo cér dá Jose Santua?
Da Jaungoicoaren Amaren Esposo eguiaz-
eoa , ta Jaungoicoaren Semearen Aita-
ustecoa. Orra cer dion Evangelioac , ta
orra esan al gucia batean. Guizonen ar-
tean , Cernan ta lurrean izan aldite-
quean dignidade ta dicharie andieneco
guizona eta Santua. Jose zorionecoac ba-
carrie bay , ta bestee seculan ezdu izandu,
ta ez izango ere privilegio ori , Ama Virgi-
ñaren Esposo , ta Jesusen Aita ustecoa
izatea.

Jaincoa Guizon eguindaco , edo En-
carnacioco misterioan Fedeco Articulo ja-
quiña da , Jesucristoc Aitaric lurrean ez
duela ; edo guizonaren obra gabe , eta
Espiritu Santuaren milagroaz ta graciaz
Ama Virgiñaren sabelean sortu , ta gui-
zon eguin zala. Eguiazco Aita du Ce-
ruan , eta eguiazco Ama du lurrean. Ba-
ña Amaren eguiazco Esposoa , ta Jesucris-
toren Aita usteco bacarra Jose Santua dá.
Ta Aitaren icen glorioso eta paregabe

ori Trinitade guciaren gustora Evangelio-
Sagradae eman cion.

Jaungoicozco dignidade, edo sustrai
divino-onetatic datoz, ta berez becela sor-
tutcen dira, Aita S. Joserren beste doai,
eta privilegio esan al baño andiagoac;
ta diranae orretan sartcen dira. Baldin
Doctore Santu, ta maisuac Evangelisten
historiatic aterateen dituzten S. Joserren
privilegio ta erregaliae, contatu nai ba-
lira caburic ez luque izango; alere devo-
toen consueloraco guciac ecin utzi ditezque
Jose Santuaren dignidade bigarrenic ez-
duenaren maravillaric señalatuen, ta pri-
vilegio, favore ta milagroen batzuec esan
bear ditugu.

BOSTGARRENA.

*Jaincoac bere Jose maitea nolacoa eguin-
zuen.*

Ori berequico nola zan Jaunac berac da-
qui bacarric; gurequico cer eguin zuan,

ori Trinitade guciaren gustora Evangelio-
Sagradae eman cion.

Jaungoicozco dignidade, edo sustrai
divino-onetatic datoz, ta berez becela sor-
tutcen dira, Aita S. Joserren beste doai,
eta privilegio esan al baño andiagoac;
ta diranae orretan sartcen dira. Baldin
Doctore Santu, ta maisuac Evangelisten
historiatic aterateen dituzten S. Joserren
privilegio ta erregaliae, contatu nai ba-
lira caburic ez luque izango; alere devo-
toen consueloraco guciac ecin utzi ditezque
Jose Santuaren dignidade bigarrenic ez-
duenaren maravillaric señalatuen, ta pri-
vilegio, favore ta milagroen batzuec esan
bear ditugu.

BOSTGARRENA.

*Jaincoac bere Jose maitea nolacoa eguin-
zuen.*

Ori berequico nola zan Jaunac berac da-
qui bacarric; gurequico cer eguin zuan,

Santuaren devotoac jaquin nai date. Beren odoleco noblecian Aita S. Jose , eta Ama Virgiña bat ciran, edo berdiñac biac Jaunac eguin cituen : ta biac , ta Jesus, guizon eguiazcoa dancz , David Santu ta beste Erregueen odoletic cetocen. Jesus , Maria eta Jose onetan bat , edo berdin ciran. Alá , iruren gorputz santuac chit antz andicoac beren garbitasun , edertasun ta beste prenda estimagarri gucietan Jaunac eguin cituen ; ta munduaren beguietan ala ciran. Aita San Jose lenago bialdu zuan mundura , ta aguer-tu zan gurequico aiñ egoquia , aiñ eder-qui eguiña bere arpeguian , talle, visaje eta era gucian , nola Jaungoicoaren Ama-Semeai ondoena cegoquien. Traza eder ori gucia Jaunac bere escuan ceucan.

S. Justinoc , Gersonec ta beste Doctore ascoc diote, Jesucristoren antic andietra San Josec iduqui zuela, eta ala com-beni zala; eta ala guizonen artean eder-rena Aita San Jose izango zan. ¡O dicha ! ¡O lurreco Trinidadc ederra ! Jaunac, ce-quiencac becela, bere escutic eta bere gus-

tora eguin zuen , baña animaco perfecio edo virtuteac ¿nôre daquizqui? Jaincoac bacarric : eta oyetan Jose bere Esposa Santisimaren antecoa izan zan , edo Jaunac nai zuen guisan eguin zuen bere Jose Santuaren Anima. Ala Jaungoicoaren ontasunac escatcen zuen , ta aren Ama Santisimari ala cegoquion ; bien diñaco guizon cabal , Esposo ta Aita , echecho nagusia , jabe eta aguintari prenda on gucietacoa Aita S. Jose Jaungoicoarequico eta guizonaquico izatea.

Ama Virgîña amalau urtecoa Esposatu edo ezcondu zan , munduan izan dan doncellaric ederren garbiena. Eta aren lagun , ta Jaunaren escuticaco esposo cegoquiona izateco , gure esaeran , Jose Santuac eda dearen lorean , edo ogeui eta amar urteronz ibilli bear zuen , ta zarrago pintatcen badute ere , gauza ciertoa da , taju ta ardore onecoa bear zuela izan , guero bearra eguiteco , eta Ama Virgîña ta bere Semearequin nequezco viajeac , ta penazco tratuac igaro , ta eramateco. Gure Jesus maiteac ogeui ta a-

mar urte cituenean ere, Aita San Jose-
ren semetzat, dio San Lucasec, beren
ustez cecatela; baña oriee misterio edo
milagroa etciequiten, ta ala beren be-
guiaz cecuztenaz gobernatu, ta Jose Je-
susen Aita zala uste zuten; ta Evange-
lioac au eracusten digu.

Alere onen gañean Ceruco argui aundi,
edo eguzqui San Agustinec ederqui adi-
eraguiten digu: Jesu-Cristoren Divinida-
de eta sorce milagroso eta Encarnacioa
ondo ciequitenac ere, edo Ama Santi-
simac, eta San Lucasec Jose Santuari
Jesusen Aita deitu ciotela, eta icen aun-
di ori eman ciotela; eta gurequico du-
darie gabe, gucien beguietan Jesus e-
derrac Aita San Jose iduringo zuen, eta
aren antz aundia izango-zuen. ¶ Eta cem-
bait bider, beste aurchoac, cariñoz zo-
ratu ta becela, beren Aitagana laztanga
joan oi diran guisa, gure aurcho chi-
qui, eta Jaungoico aundi, Jesus eder go-
zoa, bere cariño obeaz, eta amore di-
vino guztiarequin. besochoc zabaldu,
eta Aita San Jose-gana joango zan! Arc

berre besoetan artececo zaletu, eta aiñ gozoro esaten ciola : ¡ Nere biotceco Aita : Nere Aita maite laztana, nere Aita Eternoac zure contura lurrean naucana ! Arc nigatic pagatuco dizu Ceruan. Aren vorondatea oraiñ eta beti daguigun ; ori dá gure gloria vicia.

Onela, edo Jesusen Jaquinde guztia obeto cequien becela, ¿ cembat bider Aitaren icen amorosoaz Jose houratuco zuen ? Eta onec bere Jaungoico guztia ala icusi, eta bere besoetan artu, ta ¿ cer esangocion, edo cer eguingo zuen ? Amore Cerueco hatean irazaqui, urtu eta deseguingo zan. Bere Jangoicoa berequin ceucala, Santu eta Aingueru guctiac baño dichosoago, eta Jangoicotasunaren ondasun, honra eta atsegin guctiaquin bere burua aiñ aberats icusi, eta zori onecoaren animac, edo Jose santuaren biotzac, ¿ cer eguin al cezaquean, ezpada amorezco Jesus, aurreho Jaungoico onen ondo gabeco ichaso artan ondatu, eta lurrean Glorian becela sartu ta vici ?

Eta ¿ cembat onelaco zoragarrizco goza-

aldi Aita San Josec artuco cituen, Jesus maitearen aurtasunean echean, eta bere viage edo bideetan Ama Santisimac bere besoetan eramateco ematen cionean? ; Cer biotecco laztan estuac, cer cariñozco musu gozoac batac besteari emango ciozcaten? Ez da erraz esatea. Eta onela Jesus, Maria eta Joseren nequeac arintcen ciran. Guero Jesus azi edo andiago zanean, eta Aita S. Jose bere bearrean ari zanean, Jesus eta bere Amari sustentua irabazteco, ; cembat bider Jesus maite humilla bere Aita onari bearrean laguntcera juango zan? ; O cer errespeto, cer obediencia, cer amore humildadez betea, Jesussec Aita San Joseri iduqui, eta eracutsico cion! O Aingueruac! ispillu au icusi, ta bien humiltasun, eta bien anditasunaz arri zaitezte.

Eta onela, edo berac daquiten beccla, irurac vici izan ciran; eta Jesus oguei eta amar urteetan cebillela, San Jose Evangelioac icendateen du: Eta gure adiera, edo esateco moduan, orduan Aita San Jose erregalo ta neque andiac icu-

si, ta eramán, gucietatíc librátu zan; eta eman cion bere azqueneco, ez gaitzac, ezpada amore sucarra eta dicha gozonen pasioz gucia irazaqui, urtu ta acabatu zan, bere Espiritu garbia Ama Virgiñaren escuetatic Jesusen biotceñ gozoro sartuaz.

Jesus maiteac berac Aita San Joseri beguac ichi eta obraco janci zuen, ta Ama Virgiñarequin batean Jauna alabaten zutela, Jose dichosoaren gorputz santua Josafateco celaian bere obian gorde zuten, eta guero obi orren ondoan Ama Virgiñaren gorputza ere Apostoluc gorde zuten. Aita S. Jose, Jesus ona illec artetic piztu, edo resucitatu zanean, berequin gorputz ta anima gloriáz janciric lurretic betico jaso zuen; eta Asencio egunean berequin Ceruetara igo zuen; eta an dago Jose bere Esposa Mariaren aldean; eta, Jesus, Maria eta Jose, gure bitartecoac, an daude batean.

Orañ dañó Aita San Jose, gurequico edo emen lurrean eta aguirian nolacoa zan esan degu; orañ Jangoicoac a-

requico eguin cituen maravillac esan bear ditugu.

SEIGARRENA.

Aita San Joserren maravillac.

Ama Virgîna Santissima Jaungoicoac bere Ama eguiazcoa eguin zuen becela, onen Esposo maite Jose Santua bere Aita ustecoa eguin zuen; eta nola Ceruelaco Erreguîñaren gracia, privilegio, doai ta maravilla guztia, Jaungoicoaren Ama Maria izatean, edo dignidade divino onetan beren sustrayean becela asi ciran, sortu ta sarturic dauden, ala bere modura Jose gloriosoagan Jaincoac eguiñac, eta arquiteen diran gracia, doai eta privilegio divino guztia, Ama Virgîñaren eguiazco Esposo, ta onen Seme Jesucristoren Aita usteco izatean sortu ta jayo, eta sarturic daude. Bien neurria au da; eta gure contu eguiazco zucenac, emendic atera bear ditugu.

requico eguin cituen maravillac esan bear ditugu.

SEIGARRENA.

Aita San Joserren maravillac.

Ama Virgîna Santissima Jaungoicoac bere Ama eguiazcoa eguin zuen becela, onen Esposo maite Jose Santua bere Aita ustecoa eguin zuen; eta nola Ceruelaco Erreguîñaren gracia, privilegio, doai ta maravilla guztia, Jaungoicoaren Ama Maria izatean, edo dignidade divino onetan beren sustrayean becela asi ciran, sortu ta sarturic dauden, ala bere modura Jose gloriosoagan Jaincoac eguiñac, eta arquiteen diran gracia, doai eta privilegio divino guztia, Ama Virgîñaren eguiazco Esposo, ta onen Seme Jesucristoren Aita usteco izatean sortu ta jayo, eta sarturic daude. Bien neurria au da; eta gure contu eguiazco zucenac, emendic atera bear ditugu.

Aitaren icen , edo Titulo Divino ori bere Jose maiteari Aita Eternoac eman cion , eta lurrean bere lecan , edo ordeco ipiñi , eta Jesus bere Semeari Aitac becela laguntceco , Oficio ori eman cion. Icen guztien gañeco icen pare gabea ; Oficioric Divinoena : Guizonen artean bestec iñore , Jose dichosoac baicic , seculan artu ez duena , ta seculetan bestec izango ez duenā. Aita Eternoaren escutic Jesus Ceruco ta mundu guztico Erreguea da : Maria Santissima onen Ama , da Erreguiña , ta Jose , onen Esposo ta aren Aita ustecoa , da Santu ta Aingueruen artean Principe bacarra. Onec bacarric bere mendean , bere escupean ta bere contura , Aingueru ta Santu guztien Erregue ta Erreguiña , Aita Eternoaren vorondatez ta gustora , Principe eta Aita guciz onac becela iduqui , gorde eta gobernatu cituen. ; O dicha , ó honra eta Dignidade Jaincozco edo guztiz Divinoa !

Aita San Jose bacarra bere Ondasun eta Misterio Divinoen Secretario eta Tes-

tigu fiela Jangoicoac eguin zuen : Mila-
 gro eta Misterio guztien ezcutatuenaren,
 edo Jaungoicoa Guizon eguindaco En-
 carnacioaren berri Josec, guizonen ar-
 tean, lenengo jaquin zuen: eta orretaraco,
 esan oi dán mandataria, sinistu diteque
 izandu zala Aingueru San Gabriel, Aita
 Eternoac Encarnacioco berri onakin
 Ama Virgiñari bialdu ciona bera; bere
 Espósarequin bat onetan, beste privi-
 legio ascotan becela, Jose maitea eguite-
 co. Eta San Gabriel eta beste Aingue-
 ruac; cér pozarequin, bear zan bece-
 la, Aita S. Jose gaba Jaungoicoaren
 mandatuac ecartcen ibillico cirán, San-
 tu glorioso aú Jaunaren aurrean ceñ
 estimatua, eta cer Principe andi pare ga-
 bea eta Jesus eta Mariaren laztana zan
 icusirie!

Beste Aita San Joseren maravilla eta
 Jaungoicoac eman cion privilegio andia
 dá, Ama Virgiñaren urrena, edo le-
 nengo guizonen artean castidadeco vo-
 toa eguin zuena izatea. Bere Espósa Vir-
 giña Erreguiñaren aucecoa, eta Santuen

Principe garbia izan cedin. Eta Doctoreac diote, Aita San Jose gorputz eta animan aiñ garbia Jaunac eguin zuela, eñ pecatuen eutsu edo arrastorie ere Santu privilegiatu onec izandu etzuela. Alaco escolan vici zan, eta Jangoicoari eta bere Ama Santisimari ori cegoquion, eta ez besteric.

Aita S. Jose justua zan, dio San Mateoc; ta esan nai du orretan, diote Santuac, Jaincoac Santu chit Justua eguin zuela; eta nola Santu gucien dichosoena zan bere Dignidadean, ala Santidadean guciai oraguin ciela; eta Ama Virgñaren urrena virtute guciaz betea, edo perfectorie andienecoa; Jangoicoaren amorioan eta onen vorondatea beti eguitean, guciai aurea artu ciela. Cerutarrae becela, eta bestec ez nola, Ceruco egercicio divino au bere Esposa Santisimandic, eta are gueyago Jesus amorezco Maisu Divinoa gandic icasi zuen, eta onetan beti vicituzan. Eta bear bada, Aita S. Joseri Jaungoicoac eguin cion favoreric andiena, lecio eta egercicio divino au

izan zan. Izan alditequean prerogativa,
dicha eta santidaderic altuena eta favore
gucien coroa dá, Jaunaren vorondatea
beti obeto eguitea.

Aingueru gucien gañeco doai señalatua
gure Josec Jauna gaudic artu zuen;
bada Jesus, bere humildadez eta gure
amorez Aingueruac baño berago jechi-
bazan; eta chiquiango Guizon eguin eta
lurrean aguertu bazan ere, emen Aingue-
ru Goardacoric artu etzuen, eta guztia
aren servitzari beti izandu ciran. Aita
San Jose bacarric Jesusen Aitaren icen-
ta Titulo divinoaz honratu zuan, eta Gui-
zon eta Aingueruen artean bere Gober-
nari eta Aingueru Goardacotzat becela es-
cogitu zuen, eta emengo trabaju gucie-
tan chit ederqui eta seguru gorde zuen,
eta peligro andietatic ta etsaien atza-
parretatic libratu zuen.

Aita maiteenaren Cernco officio oyeo
Jose Santuari Jesusec, Semeric onenac
becela lurrean ere pagatu eiozcan; baño
gacér arregalo, cèr atseguin, cèr gozal-
dlaquin? ¿Cembat bider Aur chiqui, Jan-

goico andí aú bere ontasun guciarequin
 Jose dichosoaren beso eta laztanetara joan-
 go zan eta esango cion. « O nere Jose
 maitea ? ; O nere Aita gozoa ! Zure ampa-
 roan , eta zure contura vici nai det. Ai-
 taren icen eta oficio onequin dituzun ne-
 que eta eguiteco guztien pagua, neri da-
 goquidan , ta zuri dagoquizun moduan e-
 mango dizut. Zure besoetan eta zure bio-
 tteco laztan amorosoetan daucat nie ne-
 re atseguñic andiena. ; O cembat onelaco
 erregalo esan eta eguingo ciozcan ! ; O ne-
 re Jesus ! eranzungo cion : ; O nere Jaun-
 goico gozoa ! Zu bacarricera nere On-
 dasun eta pagu osoa. Zu cera nere sa-
 ri gueyegua , nere guztia nere gloria
 vicia Éta biac onela icusi , eta Ama
 Virgiña-ren biotz sagraduac biotz Santu
 ayen maitetasunetan , ¿cér gloria artuco
 etzuen ? Ori berac baicic bestec ¿norc daqui ?

Eta baldin arrazoi ascorequin favore
 andi eta señalatua beccla contatcen bada,
 S. Antonio Paduacoari Jesus beñ aguertu
 eta erregalatu zuela ; orobat San Estanis-
 llo gaisoric cegoela , Ama Virgiñac Je-

sus bere Semea oi gañean utci eta consolatu, ta sendatu zuela eta S. Juan Bautista, Santa Isabelen sabelean ce-goela Ceruco arguiz beté eta santificatu bazuen, ¿ceiñ Guizon, edo Aingueruc esan dezaque gure Jesus maiteac Aita San Joserequin, egunero eta orduero aibeste urtean cereguin zuen? Cer eta nolaco favore, ta erregalo Divinoa? Aingueruai eta beste Santa banacai chitugari Jaunac bere doayac eman ciezen. Baña Aita S. Joseri bere ondasun gucien Jabe, edo toqui eta ontei egoquiari becela bere Doai, ta gracia Divino guztien gañez eraguin arteraño Jaunac isurri ciozcan.

San Juan Discipulu amatuari Jesus maiteac Guruteetic bere Ama Santisima Amatzat eman cionean, favore eta privilegio guciz andia eguin cion. Baña cer du cer icusi Ama Virgiña Jose Santuaren eguiazco Esposa eguin ta guztia beretzat ematearequin? Dicha onec pareric ezdu Aita San Joseren privilegio, inorc bestec ez duena dá aú. Aita Eternoac bere

Seme bacarraren Aita ustecoa eguinzen ,
 baña Ama Virginiaren eguiazco Esposoa.
 Eta Jesus bere Semea Esposa onen eguiaz-
 co Semea ; ala Jesus maitea , nola guz-
 tia bere Ama Santisimarena dan , ala
 bere Amarequin batean guztia Jose San-
 tuarena da. Arbola baten jabearena da
 orren frutua ; campo baten jabearena da
 iturri or sortu , edo jayoteen dana , mila-
 groz sortutcen badaere. Maria Joseran Es-
 posa garbiaren sabeleco frutu bedeincatua
 dá Jesus ; ta alá Jose dichosoari dagoquo
 guztia , arbolarequin batean. Maria dá
 jardin , edo campo Ceruco bat , ceñean
 milagro andiz Jesus, gracia guztien iturri
 ederra, sortu eta jayo zan ; eta guztia Jo-
 se gozoarena dá , edo Ama-Semeac , be-
 reac becela , dagozquo. ; O dicha gu-
 cien andiena !

Aita S. Josec , Jesus eta bere Ama mai-
 tearequin oficio eta eguitecorie andien
 oriec , bear becela eguiteco , Doctore bat-
 zuec diote ce , bere amaren sabelean Jose
 santificatu zuela Jaungoicoac , bere adis-
 quide chit onetsia becela. Ori Jaunari on-

do cegoquion, eta Jose gloriosoaren Dignidadeari ere bai. Besteac diote, chit letraduna ta escola eta jaquinduri andieoa gaztetatic Jose izandu zala. Baña çer escola obeagoric, eta çer jaquintasun andiagoric, Jesus eta Maria gandie zuena baño? Erregueen odoletic Aita San Jose bacetorren ere, Jangoicoac, bere Ama becela, pobre eguin zuen; eta munduco guizonic andienac ez becela, necazari izandu zan: bere bear honradu garbiarequin Jangoicoaren Seme eta Amari vicitcen laguntceco, bere echean eta bere ordu jaquiñetan, Jaincoac nai zuen becela, bearra poliqui eguiten zuen; eta guero Jesus aci zanean, Aita San Joseri bearra eguiten laguntcen cien, Cornelioe Santuaquindionez. Jesus maiteac onetan necazariai ejemplo miragarria eman cien.



ZAZPIGARRENA.

Nondic, eta nola Aita San Joseren Devocia asi zan.

Santu maite onen devotoenzat Ceruco consuelo ezti guciac baño gozoago dá oraiñ esango dedana: Jesucristoren eta Ama Virgiñaren devoto guciac Aita San Joserenac izango dirá. Baña ¿cer milagro, Aingueru eta Santuac diranean, zu onen devoto izatea? Ori baño gueyago jaquin bear dezu. ¿Santu eta Aingueruac Jose estimatcea eta honratcea cer dá, baldin munduan izan diran Joseren lenengo eta e-guiazco devotoac Jangoicoaren Semea eta Jangoicoaren Ama izan badira? Au bai dala maravilla eta privilegioa: bada ala da, Jesus eta Mariac, Jose baño criatura estimatu eta amatuagoric, ala Ceruan nola lurrean, ezdate. ¿Cer naidezu gueyago? Eta Ceruco berri on oyec aditu eta ejemplo Divino oyec zuc icusi ta ¿nola zure

biotza seculaco bertatic Aita San Joseren devocio eta amorioan berotu , irazaqui eta gozoro urtuko ez dá?

Eguia da , Aita San Joseren devocio an , aren beste Ceruco excelenciaquin batean , Evangeliotic ateratcen dala . Eta orren interprete , ta Doctore sagraduac Jose justuaren maravilla andiac Eleiza Santuan beti esan , ta escribitu dituztela . Alaere azqueneco demboretaraño ezcutatua becela , esan diteque egondu dala : eta oraiñ devocioric gozoen onec , gure Indietan eta emen Jangoicozco suac eta garrac irazaqui dituela , eta biotz gucien jabe eguin dala , eta gure dicha andiaz bere bombonadarie andienac eta zabalenac alde gucietara banatu dituela . Gure Españan lenengoetic bere Flos Sanctorum estimatuan ; San Joseren vicitza Aita Ribadeneirac chit ederqui escribitu zuen , eta Santuaren amore gozo bat artecco ascodiña bera dá .

Onetaraco , gure Españaco Serafin miragarri , edo Ama Santa Teresa de Jesus Seraficari chit asco zor diogu . Gusto andia da iracurtea , baña paper guchian

ecin diteque , Santac diozcan maravillac ,
 eta Santuaren erregaloac contatcea . Ema-
 cume guztien honra paregabe eta Car-
 mengo lore , Virginiñen ispillu eta Maes-
 tra onec , San Jose gandie favore señala-
 tuac , urte-ero ta beti artu izan cituen .
 Santac, gu becela, José gozoaren amparo,
 edo mantupean España guztia icusi etzuen .
 Baña ¿cér gloria aldia , Teresaren anima
 ederrac Ceruan artuco zuen España guz-
 tiaren Protectore veneratua , bere Aita
 S. Jose maitea eguin zanean? Santac be-
 rac daqui . Onec Santu gucien artean ,
 Aita San Joseran devocioa guztiai chit
 aguinteen die : eta berac dio , Santu au
 bitarteco zuela , nai cituen Jaunaren fa-
 vore eta mesede guztia alcanzatcen citue-
 la . ¡ O Santa onen devocioa norc luquean !

Besteen artean gueroago , Maria Jesus
 Agredaco ondo famatuac Ama Virginiña-
 ren argui ederraquin Aita San Joseran
 gloria eta privilegio andi asco esribitu
 cituen ; eta oyequin eta beste Autoreen
 liburuaquin , San Joseran ospea chit aguitz
 banatu dá , ta bere favore eta milagroaquin

famaric andieneco Santua eguin dá. Baña Maisu gucien artean , gure Españan , Aita San Jose gloriosoaren erreverencia ta amorean , Doctore Exsimio , Aita Francisco Suarez veneragarria chit berezquiro senalatu zan. Onec bear bada , hestec ez becela , Aita San Jose , Maria Santisimaren Esposo bacarraren santidade , Dignidade eta Prerogativa guciz divinoac , Escoletaco modura , ta Theologia Sagradu guztiaren argumenturie estuenaquin , eta arrazoi beti oi dituen chitezco argui sendoaquin ondeatu eta cimendu seguruen gañean aguerecten ; eta Ceruraño jasotcen ditu ; eta Aita San Joseren estimacio eta eguiazco amoreac eracusten dü.

Jesus , Maria eta Jose Evangelioan dau den becela , eta Ceruan oraiñ arquitecen diran becela , beren egunetan lurrean icusi ciran ; irurac alcarrequin beti , eta irurac eche eta mai batean. Au zan familia bat bacarra mundu guztian : familia bat guztia Cerucoa edo Divinoa. Oni gure erreverencia eta gure adoracio guztia zor zayo. Theologoac Eleiza Santarequin , Re-

ligioco iru acto, edo devocioaren iru se-
ñale ematen dituzte; eta irurac familia edo
lurreco Trinidad, Jesus, Maria eta Jose-
gan daude. Batari *Latriaco* adoracioa de-
ritza, eta Jangoicoari becela Jesusi bacar-
ric zor zayo: bestea dá *Hiperdulia*, ta ori
Mariari zor zayo; irugarrena *Dulia* San-
tuai ematen zayena, eta Santa gucien ar-
tean A. S. Joseri *Dulia*-suna gucien gue-
yena eta goyena bere adoracioan zor za-
yo; eta eguiazco devocioaren asiera ado-
racion onetan dago.

Jesus, Maria ta Josereren familia Ce-
ruco Trinidad Divino edo iru Personen
errettrato vici eder bat zan. Trinidad
onetan Aita eta familiaco burua San Jo-
se zan: Ama, Maria Santissima con-
eta Semea, Jesus maitea zan. Bere
Aita usteco, eta bere Amaren Esposo
eguiazcoa, bere ehecco, edo bere Amaren
eta bere buru Jangoicoac A. S. Jose eguin
zuenean, ¿ nolacoa eguingo zuen? bere es-
cuan ceucan. Gue Santuac neurritcen cein
andiago dan, sartu bear eztegu; ori gu-
cien Santuguilleac berac daqui. Gue da-

quiguna dá , batetic Jangoicoaren amore bere obra miragarrietan icusten ta ezagutcen dala ; bestetic munduan icusi eta izandu dan Matrimonioric santuen ederren eta egoquiena , Maria eta Jose Santisimoarena izan dala.

Baldin senar emazte Santuen beren arteco fede , errespeto eta amore aín andi , igual edo berdiña bada ; cerren esposa Santa batec bere biotzaren erdia bere senar edo esposo Santuan daucan , ¿ cer esan diteque Maria Santisimaren Matrimonio eta biotz Virgiñala gatic ; ceñac Jose bere Esposo garbian , ez besteac becela bere biotzaren erdia , baicic bere anima guztia ceucan ? Dudaric aleric gabe Ama Virgiñac naico zuen Jose bere Esposo maitea guizonic santuena , ta Jau-naren Ceruco ondasun eta ontasun guciaz betea izatea ; eta alacoa Jose Santua Jangoicoac eguingo zuen , eta bere Ama maitea izan bear zuenari emango cion. Eta Jangoicoac berac , Aitac , Semeac eta Espiritu Santuac , Maria eta Jose santisimoen Matrimonio , edo Jangoicozco Ezconza

onetan ¿cer naico zuen ?

Aú dá, eta ez besteric Joseren Santidade eta dicha guztien erregla segurua, ta neurri ciertoa; eta onec, ez bestec, izan bear da Aita San Joserequico gure amore guztiaren sustraya. Familia divino onetan Jose Santuac eguin cituen gauzac; onen lan ta bearrac, onen neque ta icerdiac, bere biotz gozoaren aleguin guciac, Jesusen Persona divinaa servitcen izan ciran. ¡O dicha bigarrenic lurreco guizonetan icusi ez duena ! Nola Jesus Trinitadeco Persona berazan, ala beren modura Josec ta Mariac, Jangoicozco espiritu eta perfeccio guztiarequin, beste persona bien anza zuten. ¡O eche onetaco Trinitade, Jesus, Maria eta Jose, Ceruco Trinitade, Aita eta Semea eta Espiritu Santuaren beguetan ceñ precioso zan! dio emen Gersonec. Oriec baño joia eta ondasun oberic ta estimagarriagoric lurrean etzan; eta Ceruac ere uolere-bait embidia zuen.

Eta ¿Aita S. Joserequico Jangoicoaren amore au guztia icusi, eta aren devotoac

devocio eta amoreric gozoenean nolá ur-
 tuco eztirá? Jose maiteari Aitac bere Ala-
 ba, Semeac bere Ama, Espiritu Santuac
 bere Esposa bacarra eman cion: Aitac,
 Semeac eta Espiritu Santuac edo Jaincoac
 Jesusen Aitaren icena Joseri Evangelioan
 eman cioten. ¿Cér da au? edo ¿nola?
 Jangoicoa, bere Magestadeari dagoquion
 Gloria berequín eta beregan duela dago,
 eta ori besteri emángo ez diola, esanic dau-
 ca. ¿Bere gloria orren maite baldin bada,
 eta Aita Eternoaren diñaco aiñ gloria andia
 bada, Jesusen Aita deitcean, A. S. Jose-
 requin gloria ori nola partitu du? ¿Seme
 hacar divínoaren diñaco aiñ gloria andia
 bada, Jangoicoari bere Aita deitcea, glo-
 ria eta icen ori nola Joseri emandio? ¿Es-
 piritu Santuaren aiñ gloria andia bada,
 Mariaren Esposo izatea, nola Joseri bere
 Esposatzat eman dio? ¡ O Joserén gloria!
 Ecin gueyago, edo andiago izan, edo
 esan diteque.

Oneraño Aita San Joserén devocio eta
 amoriaco beraren gloriae, Santidade eta
 dignidadeac esan ditugu: oraiñ Santuac

gure favoreraco dituen privilegioac esan
bear ditugu , gure devocioa vicitu , eta gu-
re amorioa berotu dedin.

ZORTZIGARRENA.

Aita San Joserren Privilegioac.

Beren lecuán becela , Aita S. Joserren per-
sonan privilegio guztia e cabiteen dira ,
cerren aren biotceco ontci garbian dicha
guztia e cabitu eiran . Privilegio guztien
diña da Jose , eta diranac berariaz becela
datozquio .

Lenengoa da : Jose Santísimoaren icen
gozoa lurrean esaten dan gucian , Santa
Getrudise e icusi zuen , Ceruco Santu eta
Aingueru guciac macurtu ta becela erre-
verencia eguiten ciotela ; eta pocic egui-
ten diote , ondo daquitenac becela , Jose
bacarric Mariaren Esposo , ta Jesusen Aita-
ren icen eta dignidadea goyenera , eta ecin
gucyagoraño Jaunaren amoreac igo zuela .

Bigarren Privilegioa : Jangoicoac mun-

gure favoreraco dituen privilegioac esan
bear ditugu , gure devocioa vicitu , eta gu-
re amorioa berotu dedin.

ZORTZIGARRENA.

Aita San Joserren Privilegioac.

Beren lecuán becela , Aita S. Joserren per-
sonan privilegio guztia eabiteen dira ,
cerren aren biotceco ontci garbian dicha
guztia eabitu eiran. Privilegio guztien
diña da Jose , eta diranac berariaz becela
datozquio.

Lenengoa da : Jose Santísimoaren icen
gozoa lurrean esaten dan gucian , Santa
Getrudisec icusi zuen , Ceruco Santu eta
Aingueru guciac macurtu ta becela erre-
verencia eguiten ciotela ; eta pocic egui-
ten diote , ondo daquitenac becela , Jose
bacarric Mariaren Esposo , ta Jesusen Aita-
ren icen eta dignidadea goyenera , eta ecin
gucyagoraño Jaunaren amoreac igo zuela.

Bigarren Privilegioa : Jangoicoac mun-

duan eguiten dituen favore eta mesede gu-
 ciac nola Ama Virginiaren escutic igaro-
 tzen diran, cerren bere Seme Jaunac Amari
 becela honra ori eguin nai-dion ; ala si-
 nis dezaquegu, favore guciac edo me-
 sede andi asco Jose bere Aitatzacoari hon-
 ra ori eguiteco, onen escuetatic gugana
 datocela. Beste Jose justuari Igitoeac
 esaten bacioten : gure osasuna, edo vici-
 tza zure escuetan dago : ¿Cembatez obeto
 guc Aita San Joseri esango diogu, gure
 animen vicia, edo salvacioa zure escue-
 tan dago, edo zure contura ? Fedeco eguia
 da : Jesus bacarric munduaren Salvado-
 rea dala : Jesusen escuetan dagoela gure
 salvacioa. Baña Jesusen escuetan dagoena,
 Jose bere Aita onetsiaren escuetan dagoela
 eguin contu ; bada Aita Eternoac Jesus
 bere Semea, Aita San Joseren escuetan
 eta onen contura utzi zuen.

¡O cer confianza ; cer favore, amore
 eta privilegioa ! Jesus maiteac Joseren
 contura bere burua, edo persona divinoa
 utzi zuen : Joseren escuetan edo aren men-
 dcan jarri zan ; Aita San Josec aguin-

teen ciona , Jangoicoaren Semeac eguiten
 zuen : Josec escatcen duena , Jesusec naidu
 ta eguiten du ; cerren guztia Joseran obe-
 diencian , vorondatean , ta escuetan ce-
 goen . ¿ Jaungoicoa Aur chiqui eguindaco
 onen escuac Jose Santuac artu , ta cembat
 bider berotu cituen ? ¿ Cembat bider lurre-
 tic Aurcho divinoa jaso , ta bere escuetan
 laztangozoquin artuzuen ? ¿ Cembat bider
 bere escutic artu , ta erabilli zuen ? ¿ Cem-
 bat bider Jesus aurchoari bere escuaquin
 jaten ta edaten eman cion , janci zuen eta
 lagundu cion ? ¡ O escu dichoso , escu be-
 deincatu , eta escu poderosoac ! Bada Jan-
 goicoaren escu eta poderio guztia Aita San
 Josec bere escuetan ceucan . Argatic Joseran
 escatcea , aguintcea eta eguitea becela da .

Irugarren privilegioa : Jesusen amo-
 rioa eta Ama Virgñaren eguiazco devo-
 cioa , nola predestinatuen señalea , edo
 gloriaraco marcatuen prenda segurua dan,
 alá dá bere modura San Joseran eguiaz-
 co amorioa : eta bata bestea gabe ecin
 dagoqueala esan diteque . Fede viciaz eta
 biotcetic eguiaz Jose amaten duenac , Ma-

ria bere Esposa eta Jesus, onen Semea,
 amatuco ditu; beti dira bat, eta irurac
 batean dabilta. Doai, gracia eta gloria-
 ren jabea da Jesus. Guztien guiltza bere
 escuan dauca. Beste guiltza bat Ama San-
 tisimari eta irugarrena Jose bere Aitaza-
 co estimatuari eman cion; bere devotoai
 munduco bidean lagundu, eta Ceruco atea
 idiquitceco. Ara egemploac: San Joser
 devocioco liburuan Aita Allozac contatcen-
 du, Religioso Agustino, berac ezagutu
 zuen bat, eta S. Joser devotoa, ill eta
 andic gueroago San Agustingo beste Re-
 ligioso bati aguertu eta esan ciola: Pur-
 gatorioco penetan cegoela, eta Jaunaren
 juicioan chit estu eta condenacioco peli-
 groan arquite zala; baña San Joser
 favorez eta iduqui cion devocio ta amo-
 rioac libratu zuela.

Beste egemploa: San Isidoro Isolanoc
 contatcendu, ta Aita Santuari escribitu
 cion, Venecian Jaun bat izan zala San
 Joser chitezco devotoa, bere bitar-
 teco Aita onen icenean pobreaki limos-
 na andiac eman, eta San Joser aldaz

reac apaindu , ta onen Eleictan beste
 amorezco señale andiac Santuaren reve-
 rencia eguiten cituala. Gaitz andi batec
 oni emancion, eta aleguñezco erremedioac
 alperrie izan ciran. Itzeco zorian cegoen;
 baña gorputzaren adisquide , ta animaren
 etsai oi diranac becela, nai gaberie ez ema-
 teagatic , iñore ere bere peligroaren con-
 tu eta avisorie ematen etcion. Baña Ce-
 ruco, eta eguiazco adisquide San Jose mai-
 teac obeto eguin zuen : bere devotoari
 aguertu, eta Santuac cer peligroan cegoan
 avisatu , ta bereala itzeco confesatcea a-
 guindu cion. Guizon devotoac , ondo pres-
 tatu , eta damu ta negar andiaquin gu-
 cia eguin , ta bere bitarteco maitearen es-
 cuetan bere anima eman zuen. Ona bere
 devotoai San Josee nola salvacioco bidea
 eracutsi , ta Ceruco atea idiquitcen dien.

Privilegio gucietan leccio eder bat ica-
 si bear degu ; au da Jaincoac guretzat
 Santu onetan eguin digun misericordia
 guztien escala misterioso bat. Gare esca-
 riac Jangoicoagana ondo igo, ta andic obe-
 to despachaturic gugana jechitceco , es-

cala seguru au Josè, Maria ta Jesus-ena da. Nai deguna alcanzatceco José gana joan bear degu, ta escatu, Ama Virgîna eta Jesus onâ mantentceco bear eguin zuten bere escu zorionecoac presentâ ditzala: Ama Virgînac, bere hular gozoac Semeari; ta Jesus onac bere lla-ga preciosoac Aita Eternoari; ; O cer presente erregalatuac Aitaren beguietara igoco diran! ; Eta guero? Edoceñec dacus. Aita Eternoac, pocic bere Semearen esana; Jesus Semeac, bere Ama maitearena; Mariac, bere Esposo gozoarena; eta Jose Santuac, bere devotoen esana, edo escaria pocic eguingo du; eta onâ dicha gucien Ceruco escala seguru bat, Jose-gandic asi, eta Jose-gan acabatcen danâ.

Jangoicoac bere jaquinde guztiarequin Eche privilegiatu bat Josegan eguin zuen: zazpi columna jaso cituen; oyec dira Jaincoaganonzco iru virtute, Fede, Esperanza ta Caridadea; eta orien urrengo lau andien eta bearrenac Prudencia, Justicia, Fortaleza eta Templanza: Eta Jose Santuaren animaco Eche Jauregui edo Jau-

naren diñaco Temploa oyec apaintcen zu-
 ten. Oyei, gure favoreraco, beste zaz-
 pi privilegioc eranzuten die. I. Castida-
 dea alcanzatceco, eta onen contraco pe-
 ligroetan gu gordetceco. II. Pecatutic li-
 bratceco, eta Jaunaren graciara biurtce-
 co socorru poderosoac izateco. III. Ama
 Virginiaren devocioa alcanzateco. IV.
 Eriotza on bat, eta ordu artaraco Jose-
 ren amparoa iristeco. V. Joseran icen san-
 tuaz demonioac icaratceco. VI. Osasuna
 eta gaitcen erremedioa arquiteco. VII.
 Umeac, familien consueloraco, Jose-gan-
 die alcanzatceco.

Zazpi favore oyec Maria Jesus Agreda
 Veneragarriac Ama Virginiã-gandie ja-
 quin cituen, eta onec esan cion : Juicioco
 egunean damu eta tormentu andia conde-
 natuac izango dutela, cerren Aita San
 Jose ezagutu eta estimatu etzuten, eta be-
 raz valiatu etciran. Privilegio guztien di-
 ña Jaungoicoac Jose eguin zuen, eta gure
 vicitzan eta eriotzan guri laguntceco eman
 cigun. Ori baño gueyago. Erregue guz-
 tien Erregue, edo mundu guztico Erre-

gnea da Jesus ; Erreguiña dá Maria ; ta Erreguiñaren esposoa dá Jose ; ta Erregueren Aita becela Aita Eeternoac bere ordean , ta bere dignidade , ta oficio gucietan señalatu ta eman zuen Ama Virgiñaren amparoraco , ta onen honra gordetceco , eta bere Seme Jesus ta gure Salvadorea eriotzaren peligroetatic Jose Santuac guretzat libratu ta gordetceco.

¿ O eta cembat Jose maiteari zor diogun ? Guztia zor diogu , Jesus ta bere amagan .
 ¿ Eta au icusi eta norc Jose amatuco ezdu ?
 ¿ Nor biotz guztitic onen devoto izango ez da ? ¿ Nor onen amparoaz valiatuco ez da ? ¿ Norzaz obeto valiatuco guera ? ¿ Norc obeto gordeco gaitu , Jesus ta Maria gorde cituanac baño ? Valia gaitean bada gucioc , ordu onean . Valia gaitean Jose amoroso eta poderosoaz , ta ondo joango zacu . Bada Aita Eternoa bere Seme bacar Jesus , ta bere alaba maite Maria gordetceco , Jose estimatuaz valiatu zan eta onen encomendatu ciozcan . Gu ere beraz valia gaitean , eta berari betico encomenda gaitecan . Jose Santua gana gucioc

guacen : Jose gucioc billa dezagun : Joseri dei diozagun. Jose amatcea baño atseguin andiagoric Jesus eta Maria bere Amari eciñ emango diogu : Jesus ta Maria Josec bereac ta chit bereac ditu, ta oequin guztia gurea da.

Jangoicoac bere lecuán Jose eguin zuen bere echeo Jaun , ta bere ondasunen Jabbe , edo Jesus eta Mariaren Guarda ta Gobernadore ; eta orietan ta oriequin Ceruco eta lurreco ondasun gucien Tesorero.

Iñore ecer bear badu edo escatcen badio , Jaunac esaten digu : *Ite ad Joseph.* Goacen bada gucioc Joserén Ceruco seria onetara , eta ondo merque eta doaric ba-coitzac bear , nai edo escatcen diona bere-tuco du. Valia bitez lenengo gurasoac , eta Joseri , bere familia divinoagatic , umeac ondo azitceco gracia escabiozate ; eta Santuari , gorde ditzan encomendatu ; eta San Joserén devocio eta amorioa orien biotcetan chiquitatic ondo josi bezate , ¿Nórc obeto gordeco ditu ? ¿Nón Joserén eche eta escolan baño gurasoen erreverencia , amore eta obediencia umeac obeto icasico

dute? Bijoaz Josegana: *Ite ad Joseph.*

Valia bitez ezconduac: beren arteco paquea Jose-gan arquituco dute: Eche eta escola onetan doaric eracusten eta ematen da ondo viciteco gracia: Umeric badeute, orieci eta familia Jangoicoaren bildur santuan ondo suentceco arguia: Umeric ezpadute, Josec daqui conveni zayen edo ez. Berari escatu eta beraren escuetan utci. Ta senar emazteen artean deabru charraren iduripen edo paquea quentceco, eragabeco bildurric sortu bada, ¿norc orien erremedioa obeto emango du Aita S. Josec baño? Bada Aingueru mandatariaz Jaunac berari bildurrac quendu ciozcan. Zoazte bada Josegana. *Ite ad Joseph.* Virginia edo doncella gazteac eta zarrae guciac zoazte Josegana: Bidezcoac, ichaso, edo leorrean peligroetan zaudetenac; eta eguiac lurraren gañean gauden, edo gabiltzan gucioc ichaso arazotu ta galdu onen ecaitz ta peligroen artean sarturic gabiltza: guztioe guida ta piloto seguru baten bearra degu; guacen bada Josegana: onec, Jesus eta Mariac bi-

dezcoac bideetaco peligroetan amparatu,
gorde eta ederqui libratuco gaituzte. *Ite
ad Joseph.*

¿ Bear dituzu humildade, paciencia,
caridade, castidade ta beste virtuteac?
¿ Bear dezu echecoen eta campocoen ar-
tean jarduntceco, orien ta besteen hu-
moreac eramateco, ta ez guchiago zuro al-
diac edo gurari gaiztoac sufritu, ceregan
ito edo ebaquitceco indarra eta gracia?
¿ Tentacio estu eta naigabez heteric eror-
teco, galtceco ta condenatceco zorian be-
cela arquitceen cera? Edoceñ tentacio edo-
ceñ beste peligroetan zoaz José gana: *Ite
ad Joseph.* Dei-zaiozu eta bereala adituco
zaitu. Ots eguiozu Joseri, ta bereala zure
lagun, zure amparoan dezu. Jose dau-
canac, Jesus eta Maria dauzca. Jesus,
Maria ta Jose amorez irurac bat dira.
Jesus ta Maria billatcen dituanac, Jose-
requin beti arquituco ditu. Joseran amo-
rean, bada, seculaco goacen. *Ite ad Joseph.*

BEDERATCIGARRENA.

Aita San Joseren milagroac.

Cristau guciac San Joseren chit devotoac izatea, Jangoicoac cēbat nai duen, aleguñaz esan degu: Eta ori bera Santuaren milagroaquin eracusten du. Beraren devota maite Ama Santa Teresac bere vicitzan contateen dituenaz gañera, Aita Bolanoc edo Amberesco Autore jaquiñac, Aita San Joseren vicitzan batzuec modu onetan contateen ditu.

Enrique Vande-Sanden emezortci urtecoa zala, saietceco edo ijadaco miñ ta oñace ain gogorrac atormentateen zuten, non da ez jän, ez loric eguin alzuen, ta doloz eta naigabez ill bear zuen. Lazaro Marques, Medicu chit famatuac, aleguin guciac alperrie eguin, ta etsia becela iltecco utci zuen. Enrique orduan chit biotcetic fede ta devocio andi ta confianza osoaz, Aita San Joseri bere peligro estuan

encomendatu citzayon. Santuaren Capillara eramán zuten ; bere larrían oracioa eguiten jarri orduco , biotececo ansi andi batec artu zuen. Capillatic irten ta beingoan lau esquiñaco arri icaragarri bat milagro z botá zuen : Eta Aita San Joseren favorez seculan gueyago gaitz orrec eman etcion. Beraren Confesoreac au escribitu zuen.

Beste milagroa. Isabel Sillebort , Amberesen berroquei eta bi urteco Religiosac miñ edo gaitz ori hera zuen , ta itotcerañoco oñaceac igarotzen cituen. Aleguñezco erremedioac eguin , eta Medicuac etsirie puntuero ilteco zorian utci zuten : Isabelec Aita San Joseri devocio andia cion , eta lurreco alivioaz etsi , eta Cerucora seguruago biurtu zan. Bere eriotzaco sugarraquin beste Religiosac lagundu , ta San Joseren aurrean belauñico jarri zan : biotza negarrez urturie , Santuari chit estu bere favoreá escatu cion. Aita San Josec bereala enzun , ta orra non bertan arraultza bat adiñaco arritzar esquerga bat bota , eta Santuac milagro z libratu zuen ;

eta prodigio andiaz guero , viciae irauñ cion artean , urte ascoan beññere ez miñic ta ez gaitz orren arrastoric San Joseren favoreagatic Isabelec sentitu etzuen.

Bruselasco errian andre ezcondu bat , emezorci urteren buruan , umeric gabe chit alligitua arquitcen zan. Amberesa Aita San Joseren amparora fede viciaz juan zan : Santuaren Capillan sartu eta biotceco devocio andiarequin bere Aita San Jose bitarteco artu , ta Jauuari bere benediciozco frutu edo seme bat escatu cion. Andic egun batzuetara ayrdun sentitu zan , eta bere demboran dicha andiaz seme bat eguin zuen : guero pocez heteric Amberesa biurtu zan bere Capillan Aita San Joseri bere Semea eta bere burua presentatu ta esquer andiac ematera.

Santa Isabelgo Conventuan , Religiosa gazte batec aiñ buruco miñ andiac cituen , non burotic jaucia becela , beregan ecin cegoen , ta oñacez ill bear zuen. Beste erremediuaq valio ez ta bere preladac esan cion , fede ta devocioaz Aita San Joseri encomenda cedilla , eta areñ honran

bederatci asteartetan comulga cedilla. Novena ori chit gogotic Santuari asi cion. Laugarren asteartean San Joseren milagro ta alabazac sermoi batean enzuten cegoela, oñace lengoen azcarri, ta secular baño andiangoac artu zuten; aiñ larrandiac eman cion ece bereala ill bear zuela uste zuen. Nere Santua, nere Aita San Jose, esaten asi zan, eta orra bertan biotceco alegria gozo batec artu, ta San Josec gaitz arrigarri orretatic libratu, eta beñere gueyago eman etcion.

Santuac Animen favore eguin dituen mirariac, are andiangoac dira. Galai edo gazte bat virtuteari chit emana, Jangoicoa obeto servitceco eta bere anima salvatceco Ceruco deya aditu, ta Religioan saritceco gogoarequin arquiteon zan. Gurasoac ori jaquin zutenean, Jaungoicoaz aztu, eta munduco irabacien usteaquin semea divertitu, eta Religioraco gogoa buruticquendu cioten. Baña, oidana, laster seme orretan Jaunaren azotea beren gañean icusi zuten. Mutill ori aimbeste aizatu zan, non lengo virtuteac utci, ta vicio guztie-

tan ondatu zan, eta bere gaitceraco ta bere gain izateco, soldadu sartu eta deabruen banderapean aisa ibilli zan.

Gurasoac beren castigua ezagutu eta chit estutu ciran, eta semea erremediateco, al zuten gucia eguin zuten. Semea bereganateco cartaz ta negarrez ta adisquideaz valiatu ciran; baña alperrie. Mutillaren anima galdu eta orduan erremedioaz desengañatuac becela, Aita San Joseren amparrora biurtu ciran. Pena andi onetan Novena bat Santuari eguin cioten: Eta bitarteco poderosoaren favorea bereala icusi zuten. Irugarren egunean San Josec seme gogorraren biotza higundu, eta Jau-na gana biurturic, damuz eta negarrez, seme galduaren guisa, echean sartu zan; bere zoraquerien barcacioa escatu cien belauico, eta laztanga paqueac eguin, eta viciera berri Santu bat asi, eta aurrera chit ondo vici izan zan; eta gurasoac eta semea San Joseren chit devotoac guelditu ciran.

Milagro onetan ala gurasoac nola umeac icasi bezate cér dan Jaungoicoaren bidetic

apariatzea, eta aren vorondate eta Ceruco deierari zucen eta laster ez jarraitzea. Beste favore andi bat San Josec emacume triste bati eguin cion. Onec bere desdichaz pecatu chit itsusi bat eguin zuen, ta confesatceco lotsaren lotsaz itoric, animaco antsia audiaquin arquitcen zan. Bere naigabe estu onetan Aita San Josegana biurtu, eta Novena bat biotz osoaz aguindu cion. ; Gauza miragarria! Azqueneco egunean bere biotza trucatu, arguitu, lasaitu eta Ceruco indar gozoz beteric, damu eta negarrezco confesio oso on bat, bildur eta lotsaric gabe, San Joseren favore ta milagroz eguin, eta bere animan Ceruco paquea arquitu zuen. Ta orra San Joseri encomendatzea cer dan.

Guizon galdu batec emazteari chit vici gaiztoa ematen cion, ala berezco biotz gogorrarequin, nola beste andre galdu batequin deabruac ichaturic ceucalaco, ta errian egemplo gaizto edo beaztopa, eta cer esan asco ematen zuela vici zan. Aleguinac eguin, ta ecere ere arentzat valio etzuen. Azquenic San Jose, bere bi-

tarleco seguruagana, emaztea biurtu]
 ta Novena bat eguita ofrecitu cion. De-
 vocio ta erremedio aiñ eraguillea izan zan,
 non bereala ordu artatic beticō guizona-
 ren biotza Santuac trucatu zuen; ta a-
 disquide char galdua utzi, ta bere vicico
 paque ederrean bere emaztearequin guel-
 ditu zan.

Doctriña andico milagroa da, Aita Allo-
 zac contatcen duena. Aita San Joseren de-
 voto batec bere festa urte-ero eta amo-
 re chit andiarequin eguiten cion, ta be-
 re ta beste familiac ondo gordetceco San-
 tuari erregutcen cion. Onec iru seme ci-
 tuen, eta urte bateco festan bata ill
 citzayon, eta urrengo festa edo urtean
 bestea. Devotoa chit triste guelditu zan,
 eta pena onequin dudan urrengo festa
 San Joseri eguingo cion edo ez; bada chit
 bildurtu zan. Duda onetan echetic irten,
 eta campo batean cijoala guizon gazte bi
 urcaturic edo urcamendian icusi cituan.
 Cer ote zan beguira guelditu zan, eta
 Aingueru bat etorri ta esan cion: ¿Ba-
 daquizu cer dacutsun? Jaquizu bada, ill

zaizquitzun seme biac , baldin edade onetara allegatu baciran , beren desdichaz onela urcatu eta illeo cirala. Ala ez dezucer triste egon , ezpada chit alegre. Zure bitarteco San Jose gozoac alcanzatu dizu biac aureboric edo Ainguetuac Ceruratcea, zure echearen deshounra izan etcitecen. Bildur gabe Aita San Joseri festa eguiozu, vicidan zure seme ori Obispo izango da, eta luzaro vicico dá. Onetan Ainguerna joan , ta guizon devoto ori Ceruco doctriñaz eracutsia guelditu zan. Aita San Jose aren semeenzat bera baño ascoz Aita ohea zan. Eta emendic gucioc icasi dezagun , gure devocio eta ezperanzaco santuaz ez quejatcen. Ezta cer pensatu Santuac gorrae daudela , edo enzun nai ezgaituztela. Enzuten gaituzte bai, ta beti ; ta guc uste degun baño ere obeto. Escatcen deguna ascotan ematen ez digute gure onagatic , edo ceren gure gaitceraco izango litzaquean. Jaungoicoaren Ispillu eder vician gucia dacuste , eta guc ez daquiguna ayec ondo daquite.

Gure adisquideric maiteenac becela, ez

gure naiari, ezpada gure onari begui² ratcen diote. Jesusen Esposa erregalatu Ama Santa Teresac au ondo beregan icusi zuen, eta dió, baldin ondo ez bacegoquion gauzaren bat Aita San Joseri escatcen bacion, Santuac escaria zucendu, ta bearren zuena ematen ciola. Santa maitearequin eguiten zuena, San Josec zurequin eguingo du.

Jesus, Maria ta Jose, edo iruren devocioa nola batean beti iduqui bear degun, milagro andi onec ederqui eracusten du. Aita Santuaren eguiteco andi batequin Erromatic cijoan bein batean guizon Apostolico Capuchino Santu Fray Geronimo Pistoya bere lagunarequin. Veneciaren aldean bidea galdu, eta gau batean goseac iltecco zorian arquite ciran. San Joseren chit devotoa zan Frai Geronimo, ta biac confianza guciarequin oracioan jarri, ta beren premian Jesus, Maria ta Joseri biotcetic deitu cien. Beingoan eta uste gabe, argui guztizco eder bat aldean icusi, ta arunz juan ciran: echeco bat arquite zuten, eta añ errespe-

to andico guizon eta andre bat semecho batequin, irurac bata bestea baño ederrago; oyec chitondo eta erregalo guciarequin artu cituzten; ta beren oi garbietan sartu, eta necatuac becela loac artu cituen. Ló-on bat eguin, eguna arguitu, eta biac soro batean arquite ciran bacarrie. Batera eta bestera beguiratu, ta an iñon echeric ez. Orduan Ceruco arguiarequin, Aita San Joseran favoreea ezagutu zuten, eta Jesus, Maria ta Joseran erregalo milagrosoa izan zutela; belauñico jarri eta irurai biotceco milla esker eman ciozcaten. Eta ona ichaso edo leorrear galduric dabilzanac, nola Aita San Joseri deitu bear dioten, eta Jesus, Maria eta Jose billatu bear diran.

Monserrateco Monge bat San Joseran chitezco devotoa zan. Santuaren Egiptoraco jornada, edo Jesus ta bere Ama Jaunac agindu eta eramane citueneco pauso dichosoac amore andiz pensatu oi cituen. Beñ batean au bere Conventura biurteazala, bidea mendi batean utsegin, ta bere burua galdu, eta chit estu arquite.

zan; gauac artu, eta basoco pistien eta
 bandoleroaren bildurrac eman cion. Tran-
 ce estu onetan guizon moduzco hat to-
 patu zuen, eta astocho batean andre bat
 bere aurchoa besoetan zuela. Bidea galdu
 zuela Mongeac esan, ta berai jarraitceco
 esan cioten. Jolas edo plática santuetan
 asi, eta bere sustuac azturic Mongea chit
 contentu eta gozoto cijoan, ta maravilla
 eta consueloz bete, eta bidea luzatcea nai
 zuquean. Onela conventura allegatu, eta
 puntu batean irurac desaguertu ciran; eta
 Jesus, Maria eta Jose cirala ezagutu zuen.
 Baña Ama Virgíña eta bere Esposoaren
 hitz divinoac aren biotcean aín josiac
 gueratu ciran, non da beti eriotzaraño vi-
 ciro gogoan ceuzcan, eta iruren devocio
 gozo bat beti gorde izan zuen. Guc ere
 bada, onela gure vicico pauso eta neque
 gucietan Jesus, Maria eta Jose beti amo-
 rez gure biotcean lagun izan ditzagun.

JESUS, MARIA, TA JOSEREN HONRAN
limosna.

San Vicente Ferrerrec contateen du, guizon piadoso batec urte-ero Eguberri egunean, andre pobre bat bere aurchoa besoetan zuena, eta guizon bat, Jesus, Maria ta Joseren reverencian, bere maiera edo jatera convidatu oicituela, eta bere ayec alzuen devotio ta amore guciaz servitu, eta erregalateen cituela. Oni bere eriotzaco ordua etorri, eta Jesus, Maria eta Jose agueritu, eta esan cioten: Bada zue, gure devotoa, zure maiera aimbeste hider convidatu gaituzu; guc ere gurera orain convidatcen zaitugu. Atoz, gure siervo fiela, atoz eta Ceruco gure maieran eseri beardezu: convite eta dey gozo onequin pozez heteric, bere anima Jesus, Maria eta Joseri agundu, ta orien escuetan Ceruco gloriarà igo zan. ¡ O eta Jaunaren iceanean pobreai misericordia ta limosna eguiten dienen zori onecoac ! San Joseren de-

Yotoac alduten gucian ori bera eguin de-
zaquec ; edo iru pobreri edo Misericor-
diaco eche Santuari Jesus, Maria eta Jose-
ren icenean aldan limosna eguin; eta ne-
re contu ayen pagua irurac ondo pagatuco
dizute.

SAN JOSEREN ZAZPI DOLORE ETA *zazpi gozoac.*

Devocio au Santuac berac eracutsi zuen e-
jemplo edo milagro jaquin onetan. Flandes-
co ichasoan, irureun persona ta gueyago
ontci batean ta vela betean chit gustora ci-
joacen. Baña uste gabe, orra non ecaitz edo
demboral gaizto batec artu, eta ontcia idi-
qui eta puscatu zan ; eta iru Religioso San
Joserén devotoac ez beste guztia ondatu
edo ito ciran. Iru oyec ol pusca batean
escapatu, eta iru egunean ichaso aserre
eta erio tristearequin burruca ibilli ciran.
Beren larri ta antsi ayetan chit bioteetic
San Jose maiteari ots eguin cioten, ta be-
rrala valiatu citzayen. Guizon veneragar-

Yotoac alduten gucian ori bera eguin de-
zaquec ; edo iru pobreri edo Misericor-
diaco eche Santuari Jesus, Maria eta Jose-
ren icenean aldan limosna eguin; eta ne-
re contu ayen pagua irurac ondo pagatuco
dizute.

SAN JOSEREN ZAZPI DOLORE ETA *zazpi gozoac.*

Devocio au Santuac berac eracutsi zuen e-
jemplo edo milagro jaquin onetan. Flandes-
co ichasoan, irureun persona ta gueyago
ontci batean ta vela betean chit gustora ci-
joacen. Baña uste gabe, orra non ecaitz edo
demboral gaizto batec artu, eta ontcia idi-
qui eta puscatu zan ; eta iru Religioso San
Joserren devotoac ez beste guztiaac ondatu
edo ito ciran. Iru oyec ol pusca batean
escapatu, eta iru egunean ichaso aserre
eta erio tristearequin burruca ibilli ciran.
Beren larri ta antsi ayetan chit bioteetic
San Jose maiteari ots eguin cioten, ta be-
rrala valiatu citzayen. Guizon veneragar-

ñi bat beren ondoan icusi zuten, Pilo-
to trebearen guisan, ol ori chit suavero
leorreronz ceramala, eta lurrean seguru
jarri ciran, eta Jose Santuac esan cien no-
la bera-zán, ta deitu ciotenean eriotzatic
libratecco etorrizala, ta aurrera beraren
devocioa eraman cezatela.

Gueyago Santuac esan cien: Nere atse-
guin andico Devocio bat eguin nai badezu-
te, nere vicitzaco zazpi Dolore ta zaz-
pi Gozo jaquiñen reverencian, egunero
zazpi Pater-noster eta Ave Maria esan
bear dituzute. Devocio an fedez ta biotcetic
egunero eguiten bacioten adisquide eta
bitarteco chit andi seguru bat bera izan-
go zutela, eta Jangoicoa gandic favoreric
andienae alcanzatuco eiztela.

Zazpi dolore eta gozo oyec dirade: Le-
nengo S. Joseren Dolorea zan Ama Virgi-
ña bere Esposa aurdun icusi, ta utci nai izan
zuanean. Atseguina zan: Aingueruac esan
cionean, Espiritu Santuaren graciaz eta
milagroaz Jangoicoaren Semea sortu zala.

Bigarren Dolorea: Belengo portalean
Jesus aur jayo berria alaeo desamparo eta

pobrezan icusi zuenean. Atseguña : Aingueruac festa eguilera , eta artzaiac adoracera etorri ciranean.

Irugarren Dolorea : Jesus jayo eta zorrcigarren egunean aur gozoa negarrez odola ceriola Circuncisioan icusi zuanean. Atseguña : Josec berac Jesusen icen divina eman cionean mundua salvacera cettorren aur ederrari.

Laugarren Dolorea : Simeon Santuaren aotic, Jesus onaren penac eta Ama Virginnaren biotza ezpata zorrotzac igaroco zuela , aditu zuanean. Atseguña : Simeonec esan zuanean , Jesus ona munduaren erremedio eta salvacioa izango zala.

Bostgarren Dolorea : Herodesen persecucioaren igues Ama-Semeaquin Egiptora juan zanean. Atseguña : Jesus Egipton sartu zanco , erri aietaco Idolo edo Jainco falsoac lurrera erorten icusi cituenean.

Seigarren Dolorea : Egiptotic bere echera biurtcen zala Herodesen semea Erregue sartu zala aditu zueneco bildurra. Atseguña : Galileara erretira cedilla Aingueruac esan cionean.

Zazpigarren Dolorea : bere Jesus amari
 bi urtecoa Temploan guelditu eta galdu
 zaneco pena. Atseguina : Irugarren egun-
 ean Ceruco Maisua eguinec Jerusalengo
 Doctoreai eracusten arquite zutenean.

DEVOCIO AU OBETO EGUITECO ZAZ-

*pi Meditacio beren ofrecimentu , edo
 Oracioaquin.*

1. **N**ere Aita San Jose: Oracio au izan bedi
 zure lenengo dolore eta atseguinaren reve-
 rencian. Araco zure Esposa maitea surdun
 icusi, eta aren misterio ezcutatu ori ezagu-
 tu baño len , isillie bera utci , eta juateco
 ibilli cinanean , zure biotzac artu zuen do-
 lorea gatic ; baita ere Encarnacioco mi-
 lagroa Aingueruac aguertu, eta Espiritu
 Santuaren graciaz Virgiana Amac Jangoi-
 coaren Semea bere sabelean ceucala , ta
 jalo eta Salvadoreari becela Jesus icena
 zuc eman ceguina, aguindu cizunean artu
 cenduen atseguin andia-gatic. Nic zure

Zazpigarren Dolorea : bere Jesus amari
 bi urtecoa Temploan guelditu eta galdu
 zaneco pena. Atseguina : Irugarren egun-
 ean Ceruco Maisua eguinec Jerusalengo
 Doctoreai eracusten arquite zutenean.

DEVOCIO AU OBETO EGUITECO ZAZ-

*pi Meditacio beren ofrecimentu , edo
 Oracioaquin.*

1. **N**ere Aita San Jose: Oracio au izan bedi
 zure lenengo dolore eta atseguinaren reve-
 rencian. Araco zure Esposa maitea surdun
 icusi, eta aren misterio ezcutatu ori ezagu-
 tu baño len , isillie bera utci , eta juateco
 ibilli cinanean , zure biotzac artu zuen do-
 lorea gatic ; baita ere Encarnacioco mi-
 lagroa Aingueruac aguertu, eta Espiritu
 Santuaren graciaz Virgiana Amac Jangoi-
 coaren Semea bere sabelean ceucala , ta
 jalo eta Salvadoreari becela Jesus icena
 zuc eman ceguina, aguindu cizunean artu
 cenduen atseguin andia-gatic. Nic zure

Dolore ta atseguin onetan nere vicitzan la-
gundu nai dizut ; baita ere escatu , Ama
Virgĩnac eta zuc Jesus onari erregutcea
nere pecatu ta peligro gucietatic libra na-
zala ; ta nere salvadorea izan dedilla , e-
riotza on batequin Jesus ta Maria zure-
quin beti alaba ditzadan. Amen. *Aita
gurea ta Ave Maria.*

Jose , Mariaren esposo garbia ta Jesus-
en Aita ustecoa , Ceruan ta lurrean ala-
batua izan zaitecela ; gungatic erregutu eza-
za orain eta gure eriotzaco orduan. Amen.
*Aita gurea ta Ave Maria ; eta bestea one-
la esaten da.*

2. Nere Aita San José : Oracio au izan
bedi zure bigarren dolore eta atseguina-
ren reverencian. Araco Jesus jayo ta Be-
lengo portalechoan ta beren erdian alaco
desamparo, pobreza, otza ta neque andian,
cerren arenzat ostaturie arquite etcenduen,
ta ala icusi , eta zure biotzac artu zuen
orduco pena gatic ; baita ere Aingueruac
Jaunari gloria cantatcen , ta guri paquez-
co berri onac ematen , ta artzaiac Jesus ,
gucien salvadorea , adoraten icusi , eta artu

cenduen atseguin andia-gatic. Nic zure dolere ta atseguin onetan nere vicitzan lagundu nai dizut; bai ta ere escatu, Ama Virginiac ta zuc Jesus onari erregutcea bioteeco pobreza ta espirituco humildadea eman dizagula, bera nere biotz pobrean jaio dedin lurrean, ta ni aren biotcean jaio nadin Ceruan. Amen. *Aita gurea ta Ave Maria, eta besteac beti len becela emen esaten dira.*

3. Nere Aita San Jose: Oracio au izan bedi zure irugarren dolore ta atseguinari reverencian. Zortzi eguneco aur Jesus gozoa, Circuncisioan bere odola onacea ta negar andiaquin ematen, eta Jaungoicoaren seme Santua, peccataria balitz becelaco señalearquin icusi cenduenean, zure biotzac artu zuen orduco penagatic; bai ta ere Jaungoicoac Aingueruaz gaztigatu eizun becela, Jesusen icen divinoa eman cionean, jaquinic mundua bere peccatuetatic salvatu bear zuela, artu cenduen atseguin andia-gatic. Nic zure dolore ta atseguin onetan beti lagundu nai dizut: bai ta ere escatu, Ama Virginiac eta zuc

Jesus onari erregutcea, nere Salvador izan dedilla, ta nere pasio ta inclinacio charrac ebaqui, ta peccatuetic libratu, ta Jesusec ecarri eigan salvacioa betico mereci dezadan. Amen. *Aita gurea eta besteac lenago becela.*

4. Nere Aita San Jose: Oracio au izan bedi zure laugarren dolore eta atseguina-
ren reverencian. Berrogei garren egu-
nean Jesus bere Aitari Temploan presen-
tatu, ta Simeon Santuaren aotic aditu cen-
duenean, Jesusec eramán bear cituen tor-
mentuac, eta zure Esposa maitearen ani-
ma dolorezco canibetac josico zuela, or-
duan zure biotza erdiratu zuen penazco
ezpatagatic; baita ere agure Santuac Je-
sus Jaungoicoaren semea ezagutu, ta Ana
alargun Santac arquin batean Jaunaren
alabanzac ta gure erremedioa cantatcen
cituztela aditu, ta artu cenduen atseguin
andia-gatic. Nic zure dolore ta atseguin
onetan beti lagundu nai dizut; baita ere
escatu, Ama Virginiac ta zuec Jesus onari
erregutcea, bera nic beti ezagutu eta a-
doratceco arguia, ta nere Salvadorca be

tela amatceco gracia didala, Jesusen a³
morezco vicitza beticoa seguratceco. A-
men. *Aita gurea eta besteac.*

5. Nere Aita San Jose: Oracio au izan
bedi zure hostgarren dolore eta atsegu-
ñaren reverencian. Jesus aurchoa eta
bere Ama artu, eta Aingueruaren avisoaz
Egiptora igues juan ciñanean, cerren He-
rodesec Jesus onari vicia quendu nai cion,
eta neque andi onetan zure biotzac artu
zuen pena-gatic; baita ere Jesus Egip-
ton sartcean ango Idoloac lurrera erori ci-
ranean, Jangoico eguiazcoac aien Jainco
falsoac ondancen cituela icusi, eta zue artu
cenduen atseguñ andia-gatic. Nic dolore,
ta atseguñ onetan beti lagundu nai dizut;
eta escatu., Ama Virgiñac eta zue Jesus
onari erregutcea, nere etsai, demonio,
mundo, ta araguitic libra nazala; ta Jau-
naren deya, zue becela aditu, ta beraren
vorondatea neque gucietan eguin, ta aren
Magestadea beti adora dezadan. Amen,
Aita gurea eta besteac.

6. Nere Aita San Jose: Oracio au izan
bedi zure seigarren dolore eta atseguña-

ren reverencian. Araco Ainguernac aguin^{du}
 du , ta Egiptotic Israelco zure errira cen-
 tocela , Herodesen semea Erregue zala ja-
 quin , ta aitac becela Jesus maiteari vi-
 cia quendaco eion bildarrez , zure bio-
 tzac artu zuen pena-gatic ; baita ere bil-
 dur ori quentceco Aingueruac esan cizu-
 nean, Galilea aldera seguru igaro cinde-
 cela , artu cenduen atseguin andia-gatic ;
 nic dolore eta atseguin onetan beti lagundu
 nai dizut ; eta escatu , Ama Virginiac eta
 zue Jesus onari erregutcea , munduceen
 bildur gabe nic Jangoicoari beti jarrai-
 tceco indarra didala , ta zuen amparoan
 Ceruco bidean beti ibilli , ta nere Jangoi-
 coa beti zuequin alaba dezadan. Amen.
Aita gurea, Ave Maria eta besteac.

7. Nere Aita San Jose: Oracio au izan
 bedi zure zazpigarren dolore eta atse-
 guinaren reverencian. Araco Jesus ama-
 bi urtecoa zala , Jerusalengo Temploan
 Jauna adonatu , ta echera biurtcean uste
 gabeen guelditu zanean ; eta Ama Virgi-
 narequin aren billa iru eguncan ibilli ci-
 nanean zure biotzac artu zuen pena-gatic ;

laita ere irugarren egunean Doctoreen
erdian eseriric, Ceruco Maisua becela
lurrecoai eracusten, guciac aurraren ja-
quinde eta graciaz arrituric ceudela, ar-
quitu cenduaneco zure atseguin andia-ga-
tic. Nic zure dolore eta atseguin onetan
beti lagundu nai dizot; eta escatu, Ama
Virgīnac eta zuc Jesus onari erregutcea,
nic bera nere culpaz galdu ez dezadan, eta
nere vicia lenago galdu, Jesus ofenditū ba-
ño, zuen gracion ondo vici, ta zuen amo-
rean ondo iltceco, Amen. *Aita gurea eta
lenengoan becela besteac.*

 Aita San Joserren devotoac, beste
devocio ascoren artean, San Joserren Er-
rosarioa errezatcen dute modu onetan.

AITA SAN JOSEREN ERROSARIOA.

Aita gurearen ordean esatenda.

Nere Jangoicoa, Aita ta Semea ta Espi-
ritu Santua; graciaz, alabanzac eta glo-

laita ere irugarren egunean Doctoreen
erdian eseriric, Ceruco Maisua becela
lurrecoai eracusten, guciac aurraren ja-
quinde eta graciaz arrituric ceudela, ar-
quitu cenduaneco zure atseguin andia-ga-
tic. Nic zure dolore eta atseguin onetan
beti lagundu nai dizot; eta escatu, Ama
Virgīnac eta zuc Jesus onari erregutcea,
nic bera nere culpaz galdu ez dezadan, eta
nere vicia lenago galdu, Jesus ofenditū ba-
ño, zuen gracion ondo vici, ta zuen amo-
rean ondo iltceco, Amen. *Aita gurea eta
lenengoan becela besteac.*

 Aita San Joserren devotoac, beste
devocio ascoren artean, San Joserren Er-
rosarioa errezatcen dute modu onetan.

AITA SAN JOSEREN ERROSARIOA.

Aita gurearen ordean esatenda.

Nere Jangoicoa, Aita ta Semea ta Espi-
ritu Santua; graciaz, alabanzac eta glo-

ria guztia zuri, Aita San Joseri eguñ
dizozcatzun gracia, doai eta privilegio
guciac-gatic. Amen.

Ave Mariaren ordean esatenda.

Aita S. Jose, Maria Virgiñaren diña-
co Esposo maitea, ta Jesusen Aitaren
icena dicha andiaz dezuna: Cernan eta
lurrean Aingueru eta Santu artean alaba-
tua izan zaiteala; erregu ezazu gugatic
orañ ta gure eriotzaco orduan. Amen.

Gloria Patriren lecuan esazu.

Ceruco Trinidad, Aita ta Semea ta Es-
piritu Santuari gloria; ta lurreco Tri-
nidade Jesus, Maria eta Jose Santuari
honra, orañ ta beti secula gucietan Amen.

¶ Emen Novenaco egun bacoitcean E-
leizan culpitan edo echean iracurteco,
eguneroco iru Consideraño San Joseren
Vicitza edo Pauso jaquiñen gañean ceto-
cen; baña ez luzatcea-gatic utci dira.

Orañ gure iru Devocioac asitceco, nola
Aldare ta pinturetan Jesus, Maria ta Jose
icusten ditugun, oyec bioc Jesus maitea
erdian dutela; ala gue ere Calvarioco Je-
susen Devocioa, Ama Virgiñaren Erro-

gario ta San Joser en Novenaren] erdian
emango degu , ta lenengo..

J. H. S.

AMA VIRGIÑAREN ERROSARIO SAN-
tua beardan devocioaz erreztatze
modua.

Ama Virgiñarequin hitz eguiten asitzeco] soseguz eta ondo ciñatu eta *Nere Jesu-Cristo Jauna &c.* biotcetic esan , eta guero Eleizac latinez diona *Dñe labia mea , &c.* batec asicodu onela.

ÿ. Idiquico dituzu, Jauna, nere ezpañac.

R). Eta nere aoac esango ditu zure alabanzac.

ÿ. Beguira zazu, Jauna, nere socorrura.]

R). Eta atoz laster neri laguntcera.

ÿ. Gloria Aitari, Semeari eta Espiritu Santuari.

R). Asieran zan becela, secula gucie-
tan , orañ eta beti Amen.

gario ta San Joser en Novenaren] erdian
emango degu , ta lenengo..

J. H. S.

**AMA VIRGIÑAREN ERROSARIO SAN-
tua beardan devocioaz erreztazeco
modua,**

Ama Virgiñarequin hitz eguiten asitzeco] soseguz eta ondo ciñatu eta *Nere Jesu-
Cristo Jauna &c.* biotcetic esan , eta gue-
ro Eleizac latinez diona *Dñe labia mea ,*
&c. batec asicodu onela.

ÿ. Idiquico dituzu, Jauna, nere ezpañac.

R). Eta nere aoac esango ditu zure ala-
banzac.

ÿ. Beguira zazu, Jauna, nere socorrura.]

R). Eta atoz laster neri laguntcera.

ÿ. Gloria Aitari, Semeari eta Espiritu
Santuari.

R). Asieran zan becela, secula gucie-]
tan , orañ eta beti Amen.

ASTELEN, TA OSTEGUNETACO BOST
Misterio Gozosoac.

LENENGO MISTERIOA.

Jangoicoaren Semearen Encarnacioa.

Emen Sacerdoteac, edo batec Ofrecimentua esango du ; ta guero obeto errezatceco, ta Indulgenciac irabaztoco, batec beti contu eramán, ta Pater noster ta Ave Maria asi, ta besteac soseguz beti eranzungo dute.

OFRECIMENTUA.

O Virgiña Maria, Jangoicoaren Ama miragarria eta gure Erreguiña ! Amar Ave Maria oyec eta Pater noster au izan bitez zure biotzac artu zuen atseguinaren erreverencian, San Gabriel Aingueruac berri onac ecarri, eta Aita Eternoac bere Alabatatzat, Semeac Amatzat ta Espiritu Santuac Esposatzat artu cinduenean. Jangoi-

coa zure sabelean guizon eguindaco Mis-
 terioric miragarrien onegatic, arren al-
 canza eiguzu gure biotcetaco humiltasun
 zurearen antzeco bat ; gure pecatuen da-
 muaz penitencia eguiteco arguia, Princi-
 pe Catolicoen eta oyen Erreinoetaco pa-
 quea, eta Jangoicoa servitceco osasuna
 eta gracia. Amen.

*Emen Pater nosterra, ta amar Ave Ma-
 ria errezatcen dira.*

BIGARREN MISTERIOA.

*Ama Virgiñac Santa Isabeli eguin cion
 visita.*

OFRECIMENTUA.

O Virgiña Maria, Jangoicoaren Ama
 eta virtute guztien Jabca ! Amar Ave
 Maria oyec ta Pater noster au izan bitez
 zure biotzac artu zuen atseguinaren er-
 reverencian, Jangoicoa zure sabelean artu,
 ta caridade viciaz zure lengusu Santa
 Isabel icustera joan ciñanean, bera Ce-

rucio ondasunez beteteera , eta San Juan Amaren sabelean santificatcera. Zuen bien, eta zuen Seme bien artean orduan igarociran Misterio escutatuac ezagutzeco , eta gure animac penitenciaz santificatceco bear dan gucia , arren alcanza zaiguzu ; eta Principe Catolicoen eta oyen Erreinoctaco paquea , ta gure Jauna serviteco osasuna ta gracia. Amen. *Pater noster* , ta amara *Ave Mariac emen eta beste-etan.*

IRUGARREN MISTERIOA.

Jangoicoaren Semearen jayotza

OFRECIMENTUA.

O Virgüña Maria, Jangoicoaren Ama ; ta ondasun gucien Iturria ! Amar Ave Maria oyec eta Pater noster au izan bitez Jesus zure sabeleco Semea munduari eman edo jayo , eta trosa pobre garbietan bildu, ta abereen estrabian eratzan cenducenean zure biotzac artu zuen atseguñaren reverencian. Zure Seme , ta gure Jaun onen

jayotza Santua-gatic gure biotzetaco garbitasuna arren alcanza zaiguzu, beraren amorioan berriro jayo gaitean, eta Principe Catolicoen eta oyen Erreinoetaco paquea, eta Jangoicoa servitu eta amatceco osasuna eta gracia. Amen.

LAUGARREN MISTERIOA.

Ama Virgiñaren Purificacio eta Presentacioa.

OFRECIMENTUA.

O Virgiña Maria, Jaungoicoaren Ama eta garbitasun guciaren ontzi ederra! Amar Ave Maria oyec eta Pater noster au izan bitez zure Semea besoetan, bere jarlecurie precioso-enean becela, gure erremedioraco Temploan ofrendatu cendueñean zure biotzac artu zuen atseguñaren reverencian. Misterio onetaco argui ta ejemplo ederrac-gatic arren gure animaco illuntasuna quendu, eta Jesus gure dicha guztia ezagutceco beardan arguia alcanza zaguzu; eta Principe Catolicoen eta oyen

Erreinoetaco paquea , ta Jangoicoa servitu eta amatceco osasuna ta gracia. Amen.

BOSTGARREN MISTERIOA.

*Jesus amabi urtecoa galdu , eta Temploan
arquitu zanecoa.*

OFRECIMENTUA.

O Virgiña Maria , Jangoicoaren Ama eta anima galduen Ceruco bide segurua! Amar Ave Maria oyec eta Pater noster au izan bitez Ama maitea becela , zure Semearen billa ibilli , eta Temploan Ceruco Maisua becela , lurrecoai eracusten arquitu cenduenean , zure biotzac artu zuen atseguinaren reverencian. Jaun au egunero obeto billatceco , eta Maisu onen doctrina obeto icasteco , arren beraren argui bero bat alcanza zaiguzu ; baita ere gure pecatuen penitencia edo Confesio on bat eguiteco bear dan gracia , eta Principe Catolicoen eta oyen Erreinoetaco paquea , eta Jaungoicoa servitu eta eriotza on baten gracia. Amen.

AMA VIRGIÑAREN LETANIAC.

Janna , erruqui zaite.

Cristo , erruqui zaite.

Jauna , erruqui zaite.

Cristo , adigaitzatzu.

Cristo , enzun gaitzatzu.

Ceruco Aita Jaungoicoa.

R. Erruqui zaite guzaz.

Munduaren Redentore Seme Jangoicoa.

R. Erruqui zaite guzaz.

Espiritu Santu Jaungoicoa.

R. Erruqui zaite guzaz.

Trinidad e Santu , Jaungoico bat cerana.

R. Erruqui zaite guzaz.

Maria Santa.

Jaungoicoaren Ama Santa.

Virgiñen Virgiña Santa.

Cristoren Ama.

Gracia Jangoicozcoaren Ama.

Ama guztiz garbia.

Ama guztiz castoa.

Virgiña ceralarie Ama.

R. Erregulu ezazu gogatic.

Ama tacharic gabea.
 Ama sortecetic garbia.
 Ama maitegarria.
 Ama miragarria.
 Creatzallearen Ama.
 Salvatzallearen Ama.
 Virgiña guztiz beguiratua.
 Virgiña veneragarria.
 Virgiña alabagarria.
 Escu andico Virgiña.
 Virgiña biotz beraá.
 Virgiña leyala.
 Virtute guztien ispillua.
 Jaquinduriaren eser lecuá.
 Gure poz emallea.
 Ontci espirituala.
 Ontci errespetagarria.
 Devocioaren ontci andia.
 Arroza misteriosoá.
 Daviden Torrea.
 Marfillezco Torrea.
 Urrezco Echea.
 Batasunaren Cucha.
 Ceruco Atea.
 Egun sentico Izarra.

p]. Erregulu ezazu gugaric.

Erien Osasuna.
 Pecatarien Igneslecu.
 Estuasunen consueloa.
 Cristauen laguntzallea.
 Aingueruen Erreguiña.
 Patriarcaen Erreguiña.
 Profetaen Erreguiña.
 Apostoluen Erreguiña.
 Martirien Erreguiña.
 Confesoreen Erreguiña.
 Virgiñaen Erreguiña.
 Santu gucien Erreguiña.

n. Erregutu ezazu gungatic.

y Jaungoicoaren bildots munduco pe-
 catuac quentcen dituzuna. n) *Barca eigu-*
zu Jauna.

y Jaungoicoaren bildots munduco pe-
 catuac quentcen dituzuna. n) *Entzun gai-*
tzatzu Jauna.

y Jaungoicoaren bildots munduco pe-
 catuac quentcen dituzuna. n) *Erruqui zai-*
te guzar.

Aña. Zure amparora gatoz, Jaungoi-
 coaren Ama Santa, ez ditzadazula aditu ga-
 be utci gure premietan eguiten dizqui-
 tzugun escariac, baicic libra gaitzatzu be-

ti peril gucietatic, Virgüna gloriáz eta bendicioz betea.

ÿ Erregutu ezazu gugatic Jaungoicoaren Ama Santa.

R) *Irichi ditzagun Cristoc aginduac.*

ORACIOA.

Erregutcen dizugu, Jauna, issuri dezazula gure animetan zure gracia: Cristo zure Semea guizon eguin zala Aingueruaren aotic jaquindu degun ezquero, aren pasio eta gurutcearen bidez erresurreccioo gloriara eramana izan gaitecen. Cristo gure Jaun beraren merecimentuac gatic. *Ala guerta dedilla.*

ÿ Jaungoicoaren laguntza izan dedilla beti gurequin.

R) *Ala izan dedilla.*



ASTEARTE ETA OSTIRALECO MISTE-
rio *Dolorosoac.*

LENENGO MISTERIOA.

*Getsemanico baratzan Jesus maiteac equin
zuen Oracioa.*

OFRECIMENTUA.

¡ **O** Virgiña Maria , Jangoicoaren Ama
ta martiri guztien Erreguiña ! Amar Ave
Maria oyec eta Pater noster au izan bitez
zure biotzeko Semea eriotzarañoco angus-
tiaz estuturic , odolezco icerditan desegui-
ten zan orduan , zure biotz maitegarriac
artu zuen dolorearen reverencian. Zure
Seme Jesus oracio artan gure pecatuac-
gatic eriotzara ofreci-erazo zuen amorio
andia-gatic , arren gure culpen eguiazco
damu bat eta Jaunaren vorondatea beti
eguiteco indarra elcanza zaguzu; eta Prin-
cipe Catolicoen eta oyen Erreinoetaco pa-
quea , ta gure Jauna servitceco osasuna
ta gracia. Amen.

BIGARREN MISTERIOA.

*Gure Jesus innocentea Coluna bati loturic,
nola azotatua izan zan.*

OFRECIMENTUA.

O Virgiña Maria, Jangoicoaren Ama ta pacienciaren ispillu vicia! Amar Ave Maria oyec ta Pater noster au izan bitez zure Seme ederra, bere soñecoac lotsa andian quendu, azotez urratu, ta odolatan cijoanean zure biotz amorosoac arlu zuen dolore andiaren reverencian. Zure Semearen arrigarrizco paciencia ta amore onegatic, arren gure culpen soñeco zar itsusia quentceco, ta oyec mereci duten castigua ta penac paciencian eramateco, biotz humill bat alcanza zaiguzu; eta Principe Catolicoen eta oyen Erreinoetaco paguea, eta gure Jauna servitceco osasuna eta gracia. Amen.

IRUGARREN MISTERIOA.

*Jesus onari aranzazco Coroa nola josi
cioten.*

OFRECIMENTUA.

O Virgiña Maria , Jangoicoaren Amā eta triste gucien Consueloa ! Amar Ave Maria oyec eta Pater noster au izan bitez zure Seme Jesus , gucien eguiazco Erregueari , bere buru Santua aranzaz josi ciotenean zure biotzac artu zuan , ecin esan alaco , dolorearen reverencian. Gure pecatuen eriotzaco aranza oriec berari eta zuri eman cizuten tormentu fortitza-gatic, arren gure culpen ondorengo aranzac ta nequeac ondo eramateco bear degun paciencia alcanza eiguzu ; eta Principe Catolicoen ta oyen Erreinoetaco paquea , eta gure Jangoicoa servitu ta amateco osasuna eta gracia. Amen.

LAUGARREN MISTERIOA.

Gurutzea bere gañean artu, ta Jesus Calvariora eramán zutenecoa.

OFRECIMENTUA.

O Virgíña Maria, Jangoicoaren Ama eta lurrean bidezco galduen Argui ederra! Amar Ave Maria oyec eta Pater noster au izan bitez Calvarioco bidean zure Semea gure culpen carga pisua Gurutzean eramala, ta nequeaz aren azpian erorten icusi cenduenean, zure biotz humillae artu zuan pare gabeco dolorearen reverenciañ. Jesus maiteac eta zue Aita Eternoari iduqui cñioten obediencia miragarria gatic, arren alcanza zaguzu gure gurutze ta nequeen artean aren vorondateari zuen ondoren jarraitceco obediencia humill bat; eta Principe Catolicoen eta oyen Erreinoetaco paquea, eta gure Jauna servitceco osasuna eta gracia, Amen.

BOSTGARREN MISTERIOA.

*Jangoicoaren Semea nola Gurutcean
josia izan zan.*

OFRECIMENTUA.

O Virgiña Maria, Jangoicoaren Ama ta tormentuen ondo gabeco ichasoa! Amar Ave Maria oyec eta Pater noster au izan bitez zure sabeleco frutu bedeincatua, gu salvatcea gatic, Gurutcean josia icusi, ta negarrez ta odola ceriola gugatic erregutcen, ta illic aren biotza lanza gogorrac idiquitcen icusi, eta zure biotzac artu zuen dolorearen reverencian. Zure Semearen Gurutceco dolore ta amore gucia-gatic arren alcanza zaguzu gure passio ta gogo eragabe guciac Gurutcean jositeco virtutea, eta biotceco damuaz penitencia edo confesio on bat eguiteco bear dan gucia; Principe Catolicoen eta oyen Erreinoetaco paquea, Jangoicoa servitecog

eta amalceco , eta erioza on bat eguite-
co gracia. Amen.

*Letania ta Oracioac Misterio Gozoso-
etza becela. 115 garren orrian.*

**ASTEASQUEN, LARUMBAT ETA IGAN-
DECO MISTERIO GLORIOSOAC.**

LEÑENGO MISTERIOA.

Jesucristoren Resurreccio Gloriosa.

OFRECIMENTUA.

O Virgüña Maria , Jangoicoaren Ama ta
Aingueruen Erregüña ! Amar Ave Ma-
ria oyec eta Pater noster au izan bitez ,
zure Semea , erioa vencitu ta glori-
az beteric , Aingueru eta Santuen artean erre-
suscitaturic , zu icustera eta igarotaco pe-
nac bere glori-az aztu-erazotcera etorri-
zanean , zure biotzac artu zuen Ceruco a-
legriaren reverencian . Gure esperanza-
ren glori-azco Misterio onegatic arren con-
ciencia justu garbi baten espirituco ale-

gracia alcanza zagnzu; eta Principe Catolicoen eta oyen Erreinoetaco paquea, eta gure Jangoicoa servitu eta amatceco osasuna eta gracia. Amen.

BIGARREN MISTERIOA.

Jesucristo nola Ceruetara igozan edo miragarritzco Ascensioa.

OFRECIMENTUA.

¡O Virgíña Maria, Jaungoicoaren Ama eta Ceruco ate ederra! Amar Ave Maria oyec eta Pater noster au izan bitez, zure Seme Jauna, Magestade guztiaz janciric, Ceruetara igotcen icusi cenduenean zure biotzac artu zuen alegriaren reverencian. Jesus maiteac, Aita Eternoaren escuian jarriric, daucan poderio guciagatic arren zure bitartez gure biotzac lur-reco nequeen artean beregana beti jasotceco gracia alcanza zaguzu, zurequin batean bera icusteco eta adoratceco: Principe Catolicoen eta oyen Erreinoetaco pa-

quea , eta Jaungoicoa servitceco eta a-
matceco osasuna eta gracia. Amen.

IRUGARREN MISTERIOA,

Espiritu Santuaren etorrera,

OFRECIMENTUA.

O Virgiña Maria , Jaungoicoaren Ama
eta gure Argui ederraren Ama Santisima !
Amar ave Maria oyec eta Pater noster au-
izan bitez , Eleiza Santuaren argui eta
consueloraco Espiritu Santua Semeac Aita
gandic bialdu zuenean , eta zure Anima
beste gucienac baño gueyago bere Doay
ederrez ta gloriaco ondasunez bete zu-
nean , zure biotzac artu zuen alegriaren
reverencian. Arren Espiritu consoladore
onen su-gar vici bat , zure biotceco on-
teci garbian becela , bera ezagutceco ta
amatceco alcantza zaguzu ; eta Principe
Catolicoen eta oyen Erreinoetaco paquea ,
eta Jangoicoa servitceco osasuna eta gra-
cia. Amen.

LAUGARREN MISTERIOA:

*Virgiña Ama Cerura igo zanece, eda
aren Asuncioa.*

OFRECIMENTUA.

O Virgiña Maria, Jangoicoaren Ama eta peccatarien amparo segurua! Amar Ave Maria oyec eta Pater noster au izan bitez, amorio gozozco zure eriotza preciosoaren, eta erresucitatu eta gloriaz janciric, Aingueruen erdian Ceruetara igo ciñaneco gloria paregabearen reverencian. Cerutar guztiac orduan artu zuten atseguin andiagatic, arren zure Mantu-pean vici guer ran peccatarioi gure eriotzaco orduan lagundu zaguzu, zure escuetan eta Jaunaren amorean gure anima eman, eta Zu icustera betico igo gaitean Cerura; eta Principe Catolicoen eta oyen Erreinoetaco paquea, eta Jangoicoa servitceco eta amalceco osasuna eta gracia. Amen.

BOSTGABREN MISTERIOA.

*Ama Virjinarez Corocacio, edo Ceruan
nola Corocatu izandu zan.*

OFRECIMENTUA.

¡O Virgiña Maria, Jangoicoaren Ama,
Aingueru eta Santo gucien Corocac ede-
rena! Amar Ave Maria oyec eta Pater nos-
ter au izan bitez, Trinitade Santissimoac,
esan al baño gloria andiagoaz, gucien
Erreguiña ta Aingueru guciac baño go-
rago igo, eta eman cizun Dignidade gu-
ciz altuaren reverencian. Zuc or goyen
dituzun Gloriazco honra eta ondasun guz-
tiac-gatic, arren alcanza zaguzu lurreco
gauzac oiñ-pean utci, eta Cerucoac zure
ondoren eta zu icusi artean billatcea; eta
orretaraco Jaunarequin batean pecatuen
eguiazco damuz gucien confesio on bate-
guita: eta Principe Catolicoen eta oyen
Erreinoetaco paquea, eta Jaungoicoa be-
fi amatceco osasuna eta gracia. Amen.

Letania ta Oracioac 115 garren orrian.



AMOREZCO ETA DOLOREZCO
JESU-CRISTOREN PAUSOAC.

CALVARIOCO ESTACIOAC

DEVOGIOAZ EGUITECO EGERCICIOA.

Devocio onetan Jesucristorequin hitz eguiteco , soseguz cinaatu , *Nere Jesucristo Jauna* , edo Acto contriciozcoa biotcetic eguin , eta batec gucien icenean , Ofrecimentua esango du onela.

OFRECIMENTUA.

¡Aita Eternoa , Jann guztiz Poderosoa :

Beguirra , ez guri ezpada zure Seme maite Cristoren arpegi ederrari: Ta Calvarioco bide Santu onetaco Pauso guztiaç , beraren biotceco amore eta intencioaz batean , Zure gloriaric andieneraco izan bitez ; eta Ceruco Ejercicio onetan diran Indulgencia edo Barcacio guztiaç , Aita Santuac nai duten becela eguiñaz , irabaci nay ditugu ; eta Ama Virgiñaren escuetatic , Zuc nayen ditazun Purg atorioco Animèn sufragioan , eta gure salvaciõaco izan bitez. Amen.

ESTACIOETACO CANTA EDO COPLAC.

Estrivilloa. *Nai badezu idiqui
 Ceruco atea ,
 Gurutce Santua da
 Ango quiltcea.
 Ceruco bidea
 Nai dezu icasi ,
 Cristoren pausoai ;
 Jarraitu beti.*



Sentenciatu dute
 Jesus maitea
 Gurutcean iltcera:
 ; O cer penea !

LENENGO ESTACIOA.

*Eriotzaco Sentencia Jesu-Cristori eman-
 cioten lecuá.*

Pensa ezazu Cristaua ; nola Jesus gure
 Redentorea , Ostiral Santu goicean , host
 milla ta gueyago azote , aranzazco Co-
 roa ta beste tormentuaz gañera , Guru-
 tcean ta lapur biren erdian ilteera Pila-
 tosec. condenatu zuan.

ORACIOA.

O Nere Jesus, Redentore maitea ! Azote, aranza, pena ta lotsaz beteric, aiñ isill ta aiñ humill zure eriotzaco sententia gure culpac-gatic artu cenduana ! Zure biotceco amore ta humildade one-gatic, arren Jauna, indazu gracia, e-guiazco penitenciarequin nere pecatuen cate-etatic libratceco, eta zure Tribunal justuan nere favoreco sententia nic aditceco. Amen.

Pater nosterra, Ave Maria ta Gloria Aita Santuaren intenciora, eta au Pauso gucietan. Guero bacoitzac esaten du:

Misericordia, Jauna, ni peccatariaz ; damu det zu ofenditua. Bedeincatua izan bedi Jesusen Pasio Santua eta Ama Virgñaren Concepcio garbia: Indazu, Jauna, betico zure gracia, Amen.



Orain arteen ditu,
 Gurutcea batean,
 Gure pecatuac
 Bere gañean.

BIGARREN ESTACIOA.

Jesu-Cristori Gurutcea eman cioten lecuá.

Pensa ezazu, Cristaua, nola Jaunari, bur-
 laz janciricaco soñeco zarra, tiraca Co-
 roarequin quendu ciotenean, bere soñe-
 coac janci, ta coroa berriro tormentu go-
 gorrarequin sartu cioten; eta eriozco bor-
 reroac gure pecatuen carga guztia edo
 Gurutcea bere gañean eman cioten.

ORACIOA.

O Nere Jesus, Bildots guztiz mansoa!

Isaac justuac baño obeto zure sacrificioraco
 egurra, zure Aita-ren obediencia eta gu-
 re amorea gatic, zure sorbaldan eramau
 cenduena! Zure biotceco Ontasun one-
 gatic, arren indazu gracia, nere era ga-
 beco gogo gaizto guciac Zure voronda-
 teari biciró sugetatu, eta nere culpai on-
 doen dagoquien penitencian, Gurutcea be-
 ti Zure ondoren gogotic eramau, eta lur-
 reco neque oequin Ceruco Coroa irabaci
 dezadan. Amen. *Pater nosterra, ta besteac.*



Emen erori zan
 Jesus gurea,
 Gurra jasotceco
 Bere aurrera.

IRUGARREN ESTACIOA

*Gurutcea-requin Jesus lenengo erori
zan lecua.*

Pensa ezazu , Cristaua , nola gure Jesus maitea chit necatu , ta oñen gañean eciñ egon , eta Gurutcearen cargarequin lur-rera erori zan. Beguira nola infernucocanalla ayec, Jaunari lagundu bearrean , osticoea , golpeca ta arrastaca erabilli , ta nequez jaiqui erazo zuten.

ORACIOA.

O Nere Jesus , Jaun guztiz poderosoa , ta gure amorez onela argaldu , ta lurra jo arteraño Gurutce-pean macurtua ! Zurre amore ta paciencia sin gabe onegatic , arren zure escua indazu , nere culpa pi-suen azpitic , eguiazco penitenciarequin zugana jaiquiteco , eta zure Gurutcearen ondoren lurreco neque eta doloreetan pocic ibilli nadin , eta zure Arpegui ederra Cerucoglorian icusi dezadan , Amen.
Pater nosterra &



Norc esan lezaque
 Amaren penca,
 Onela icusita
 Bere Semea.

LAUGARREN ESTACIOA.

*Jesu-Cristoc bere Ama Santisima topatu
 zuen lecua.*

Pensa ezazu, Cristana, nola Calvarioco bide onetan, Jesus onac bere Ama maitea, pena ta negarrezco ichaso bat eguiñic, topatu zuan. Beguira ondo, begui amorosoaz biac alcar icusi, eta nola biotz batac besteari amorez hitz-eguingo cion, ta biotz laztan biac dolorez ito edo estutuço eiran.

ORACIOA.

O Amarie maiteena, dolorez eta az-

siaz betea ! ; Cór ezpata zorrotzae zure
 Anima josico zuen , zure biotceco Semea
 eta Aingueruen edertasuna tratu artan
 icusi cenduenean ! ; Burua aranzaz josi-
 ric ; arpegui eder ura chiztuz , odolez
 eta autsez ichusituric ; eta gure pecatuen
 carga edo Gurutcea gañean zuela , eta
 golpeca eramate! ; O Amaric affigi-
 tuena ! Arren indazu zure Semearen eta
 zure pena oyen lastima eguiazeo bat , gu-
 re pecatu-en barcacioa eta znen amorioa
 betico arqui dezagun. Amen. *Pater nos-
 terra.* &



; Gurutcea eramaten
 Nai dezu lagundu ?
 Bada emen nai dute
 Lagun bat artu.

BOSTGARREN ESTACIOA.

Jesus maiteari Gurutcea eramaten laguntceco, Simon Cirineo artu zuten lecua.

Pensa ezazu, Cristaua, dolorezeo bide onetan, nola gure Jesus aiñ argal ta nequez cijoan ece, Judu odolgueroac Gurutcearen cargarequin icara, ta erortceco zorian icusi, ta Simon ceritzan Cirineo guizon bat Jaunari laguntceco artu zuten; baña ez lastimaz, baicic cerren Gurutceco tormentuan ilteen icusi nai zuten.

ORACIOA.

O Salvatore maitea! gure pecatuen carga zure gañean artu, eta gure Animen billa, aiñ nequez Pauso oyetan ibilli ciñana, eta Simon dichosoaren ejemploan, Calvarioco bidean zuri jarraitcen eta laguntcen eracutsi ciguzuna! Iguzu arren, Jauna, zure pasioco paciencia, gure pecatuen damua eta zure penen biotceco lastima andi bat: Gurutcea eramaten oraiñ Zuri lagundu, eta orren frutua goza dezagun zu alabatcen Ceruco glorian, Amen.



Arpegnico icerdi
Eta odoletan,
Zapi bat busti du
Iru dobletan.

SEIGARREN ESTACIOA.

*Veronica esaten dan Andre piadosac Jesus
onari bere Arpeguia garbitu cion lecu.*

Pensa ezazu, Cristaua, nola Jaunaren arpeguia chistuz, odolez eta autsez beteric Veronica Santac icusi, eta iru doblezco zapi garbi bat artu, eta gucien artetic sartu, ta Arpegui divinoa garbitu cion, eta iru tolesturetan Jaunac bere Arpeguia estampaturic, orren paguan, atci cion.

ORACIOA.

O Nere Jesus, eguiazco edertasunaren
 Ispillua! ;Cembat nere pecatuac-gatic ichu-
 siago, ambat gureztat, Veronica San-
 tarentzat becela, maiteago. Baldin gure
 culpac orrela ichusitu bacinduzten, orien-
 damuac edo eguiazco penitenciac, Zure
 dolozco icerdi ta loyac quentceco, za-
 pi garbiac izan bear dute. Iguzu, Jauna,
 gracia, biotceco negarraquin gure ani-
 mac garbitu, eta zure Imagiña vici bat
 orietan jositceco, eta Ceruan Zure Arpe-
 gui ederra beti icusteco, Amen,



Bigarren aldiā
 Emen da erori,
 Eta zu etcera
 Contuan jauci,

ZAZPIGARREN ESTACIOA.

Jesu-Cristo bigarren aldian erorizan lecuá.

Pensa ezazu, Cristaua, Erritic camporaco ate batean, nola gure Jauna Gurutcearen cargac eritu, ta gucia argaldu, ta bigarren aldian erori, ta lurra jo zuan. Beguira nola borrero oyec golpeca jaso zuten, eta Jerusalem galdua Jesus onac utci zuen.

ORACIOA.

Onero Jesus misericordiazco Aita! Munduaren Jabe bacarra zu izanie, zoraio eta erriaren deshonra baciña becela, Jerusalemie campora atera edo bota cinduzten: ; Eta orregatic ere Erri dicha gabe ari lastimaz beguiratu ciñion! Arren, Jauna, zure Piedade guztiaz gure animai beguira zaiezu, ta Gurutcea eramatenie pocie lagunduco dizut; eta gure culpatic Erritic bota bazaituzte, gue gure biotcean artuco zaitugu, zurequin beti bicitceco, Amen.



Pecatua gatic
 Negar eguizu;
 Bada nere penac
 Orrec eman ditu.

ZORTZI-GARREN ESTACIOA.

*Jerusalengo andreaki Jesus onac hitz-
 equin cien lecua.*

Pensa ezazu, Cristaua, nola Jesus piadosoac, bere deshonra eta nequeen artean, lapur infame baten guisa bacijoan ere, andre piadosa, lastimaz ta negarrez aren ondoren cijoacena, esan cien: Jerusalengo alabac; ez nigatic negar equin, baicican ceren buruac gatic ta zuen umeac gatic, cerren orien gañera gaitz andiac etorri bear duten.

(143)
ORACIOA

O nere Jesus, Artzai ona becela, gu²re animen billa ihilli ciñana! Calvario-
co bide gogor artan eta zure penen ar-
tean ere, andre piadosai eta ayetan gu-
ri, pecatua-gatic bear becela negar e-
guiten eracutsi ciñiguna. Arren, Jauna,
argui vici bat iguzu, ardi onen guisan
zure dey amorosoa aditu, eta zuri, Ar-
tzai onari becela, zuzen beti jarraitceco,
ta gure biotceco negarraquia orain Zu-
ri lagundu, eta guero gure salvacioco,
deya zure ao gozotic betico adi-dezagun.
Amen.



¡ O pecatuen
Gauza aztuna!
Irugarrenean
Jodu emen lurra!

BEDERATZI-GARREN ESTACIOA

Irugarren aldian Jesus erori zan lecuá.

Pensa ezazu, Cristana, nola aldaparen igoeran indarra faltatu, ta Jesus maitea irugarren aldian erori, eta bere Arpegui ederra autsez bete zuen. Jequi nai, ta eciñ : Eta etsai gogorra osticoca, tiraca eta deadarrez esan cioten : Ea, laster jaiqui : Gurutcean ill bear du, an illic icusi nai degu.

ORACIOA.

O nere Jesus, Ceruco Maisu amorosoa !
 ¡ O nola zure Gurutcea eta lurreco nequeac amore onez eramatera animatzen gaituzun ! ¡ Ay Jauna ! Nere culpac dirazu bulzaca eta golpeca lurrean irugarren aldian erabilli zaituztenac ! Arren, iguzu gracia, orien penitencia eguin, eta Gurutcearen penac gure culpen saria becela artu ditzagun ; Zure doloreac eta amorioa contemplatu, eta orien sarian Ceruco dicha betico arqui dezagun, Amen.



Ona non daucazun
 Jesus billotsic,
 Burutic beatcera
 Zauriz beteric.

'AMAR-GARREN ESTACIOA!'

*Jesu Cristori bere soñecoa quendu
 cioten lecuá.*

Pensa ezazu, Cristaua, nola borrero odol
 zale ayec lastimaric gabe, Jangoicoaren
 Semeari bere soñecoa lotsa andian quen-
 du, eta tratu gaiztoaquin aiñ batean jar-
 ri crazo, eta beazunez nastutaco ardoa
 eman cioten. ¡ O nola burlaca eta gaiz-
 qui esaca emen deshonoratu zuten !

ORACIOA.

O nere Jesus paciencia miragarriaren Is-
pillua ! ¡ Cór naigabe eta angustiac Zure
biotzac artuco cituen, munduaren beguie-
tan Zure soñecoac quendu , llaga sagra-
duac berritu , eta lotsa gorrian beazuna
edateco eman cizuenean ! Arren , Jauna,
iguzu indarra , pecatu eta pasioen soñe-
co zarra quendu , eta Zure amorezco so-
ñeco berria jantcitceco , eta emengo atse-
guin falso beazunez beteac utci, eta eguiaz
Zure atseguinac arquitceco. Amen.



Oñac eta escuac
Iltzez josirie ,
Emen dago Cristo
Penaz heteric.

AMAICA GARREN ESTACIOA;

*Jangoicoaren Semea Gurutcean josi zuten
lecu.*

Pensa ezazu , Cristaua, nola Jesus Bildots mansoa , aiñ issil gure pecatuac gatic sacrificatu bear zana , Gurutcearen gañean ezarri eta tiraca zañac urraturic , iltee gogorraquin' josi zuten , eta ayec errema- chatceco , Jaun divinoaren gañean jarri , eta golpe bacoitcean Ama Santisimaren biotz amorosoa Semearen Gorputzare- quin batean urratcen zuten.

ORACIOA.

O nere Jesus, pecatuac quentcen dituzun Bildots inocentea ! ; Ay ! ; Eta cer amorezco carobi vicia zure biotza orduan egongo zan ! Bada aiñ humill, eta pocie zure escu eta oiñ sagraduac gurutcean jositceco eman ciñituen. Zure amore eta paciencia onegatic , iguzu , Jauna, gracia , gure escu eta oñac , pecatuen cateac urratu , eta zure bildur eta amorezco itceaz josi , eta Zure biotcean beti vici gaitcan. Amen.



Emen Jesus iltzan
 Guizona-gatic ,
 Acordatu zaitez
 Orañ eta beti.

'AMABI GARREN ESTACIOA'

*Jesus gure vicitza Gurutcean jaso , eta
 ill zan lecuá.*

Pensa ezazu , Cristana , nola Jangoico
 eta Guizon , eguiazco gure Jesus , Guru-
 tcean josi eta jaso zuten , eta Gurutcea
 asentalceco bere zañac desoguin eta pusca-
 tu , eta mendi Santu artan gure Salvado-
 rea airean agueru zan. Beguira , nola la-
 pur biren erdian , tormentu eta burlen ar-
 tean ill zan ,

(149)
ORACIOA!

O nere Jesus, Ama Virginiaren frutu be-
deincatua, ta (gaur ordu onetan) guro
pecatuac gatic madaricatua becela, gu-
re salvacioco frutu gozo eguin, eta ar-
bola Santuan egon ciñana ! Gure indul-
genciaco, edo barcacioco eguna au da ;
eta ori zure tormentuac, penac eta Llagac ;
ori zure negar eta biotceco deadarrac Aita
Eternoari escatcen diote. Ala biz, Jauna ,
eta gure culpac eguiazco penitenciaz de-
seguin , eta Zurequin ill, eta betico vici
gaitean. Amen.



Gurutce gañelic
Bere Amagana ,
Emen jechitcen da
Jesus laztana,

'AMAIRU GARREN ESTACIOA.'

Gorputz Santua jechi , eta Ama Virgiñari eman cioten lecua.

Pensa ezazu , Cristaia , nola gure Jaunaren doloreac eriotzarequin acabatu , eta Ama maitearenac dirauten. Gorputz illa lanzadaz idiqui , eta Ama Virgiñaren anima josi zuten ; eta Jose eta Nicodemus Santuac Gurutctic jechi , eta Amari presentatu cioten. ; Cér onen penac , cér negarrac !

ORACIOA.

O nere Ama Santisima , pena eta angustiazco Ichaso ondo gabea ! ¿ Nore esan ; edo pensa dezaque zure animan cér igarro zan , zure biotceco Semea illic besoetan artu cenduenean ? Aren buru , escu eta oñac , eta biotz idiquia ieusi , eta ; cér tormentu eta doloreac artu cinducen ! Arren , bada , gure Amari maiteena , orie-

gatic iguzu eguiazco lastima andi bat,
 pecatuen damuz betico orienzat ill, eta
 zurequin Ceruan vici gaitean. Amen.



Obi berri bat nai du
 Zure biotcean
 Jesus illac, betico
 Zu vici zaitean.

AMALAU GARREN ESTACIOA.

*Obian edo Sepulcro berrian Jesusen
 Gorputza sartu zuten lecuá.*

Pensa ezazu, Cristauna, nola dolorez-
 co Amaren beso-etatic nequez Gorputz
 Santua Jose eta Nicodemusec artu, eta
 lzara berri eder batean eguiazco Cristo

garbiro untatu, eta arrizeco obi berrian devocio andiaz sartu zuten. ¡O cer pauso onetaco Ama Virgiñaren dolore eta negar samñac !

ORACIOA.

¡O martiri guztiē Erreguiña ! Angustien pauso onetan, Jesus zure amorezco eta dolorezco lore-pilla edo ramillete bat eguin, eta zure biotzaren erdian beti gorde cenduena. Zure martirio pare gabe onegatic, arren iguzu zure escua eta ducharic andiena, ceña dan zure soledade triste onetan zuri lagun eguitea, gure culpen penitenciarequin lurreco gauzac utci, eta zure seme Jesus, eta zu beti amatceco Ceruan. Amen.

¶ Emen Calvarioco beste Egercicio bat meditacio eta oracio luceaquin cetorren, bacoitzac nai bazuan soseguz eguiteco; baña orain aldian liburu au ez luzatceagatic utci dá.

AITA SAN JOSE GLORIOSOA,

REN NOVENA.

*Beste devocioetan becela, onetan ere, egun
oyetaco avise eta erregla jaguñac di-
ra : Ciñatu, Actu contricioz-
coa eguñ, eta guero :*

EGUNERO ASITCECO ORACIOA.

Aita San José, Patriarca gloriosoa, Je-
sus maitearen aita ustecoa, eta Ama
Virgiñaren eguiazco Esposo dichosoa, ala
vicitzan nola eriotzan zure devotoen bi-
tarteco poderosoa. Baldin Jesus Divinoa-
ren, Ama Virgiñaren eta zure honra-
raco bada Novena enetan guc nai eta es-
catcen deguna, alcanza eiguzu gracia au,
eta bestela Jaunari esca zayozu obeto da-
goquiguna beraren gloriaraco, zure hon-
ra ta gure salvacioraco, Amen.

LENENGO EGUNECO ORACIOA.

Nere Jesus, Aingueru gucien Jauna, ceñai, gu vici gueran artean, ondo gobernatcea agundu diezun. Gure guardaco Espiritu onguille oyen merecimentuac ofrecitcen dizquitzut, baita ere zure Aita usteco San Jose gloriosoarenac, ceña zure ama maitearen eta zure Aingueru guardacoa becela eguin cenduan. Aingueru lagun, Jose Santuaren garbitasun miragarria gatic, gure animetaco garbitasuna arren iguzu, Jauna; eta Novena onetan escatcen degun favorea zure gloriaraco, Santuaren honraraco eta gure salvacioraco baldin bada. Amen.

Emen iru pater noster, Ave Maria eta gloria Trinitade Santisimoaren Jesus, Maria eta Joseren reverencian esan; eta guero.

EGUNERO ESATEN DAN ORACIOA.

Aita San Jose gloriosoa, Ama Virgiña,

fen Esposo pare gabea, Jaungoicoaren Semearen Aita ordeco eta Familia Sagra-
duaren Burua eta aguintari bacarra. Ne-
re biotceco atseguñic andiena zure pri-
vilegio oyetan arteen det; cerren Trigi-
dade Santissimoac bere Eheco edo Ce-
ru vici artaco Jabe edo Principe iza-
teco diña eguin cinduan: Eta Aita Eter-
noac bere Iecuan, Aita baciña becela,
bere Seme bazar ta aren Ama maitea
zure contura utci, eta zure neque ta
icerdiaquin bien janaria irabazteco zò-
ri oneco dicha eta cargua eman cizun.
; O Santu guztien dichosoena! Milla es-
quer Jaunari, Jesus eta bere Amari,
zuri eguin cizquitzuten favore guztiac
gatic; eta Jangoicoa Aurcho gozo egui-
ñic zure besoetan artu, eta ascotan e-
man ciñiozcan zure biotceco laztan amo-
rosoac gatic. Orregatic bada, nere Ai-
taric onena, zure Jesus eta bere Ama
gandic arren alcanza zadazu nere peca-
tuen barcacioa, ta zuen gracion paqueaz-
co vicitza santu bat, Jaunaren voron-
datea beti eguiñaz, Zu nere bitarteco po-

derosoa nerequin cerala, zure besoetan
Ama Virginiaren amparoan eta Jesusen
biotcean eriotza on batequin nere anima
emateco; baita ere Novena onetan esca-
tten dizugun favorea gure salvacioraco
baldir bada. Amen.

*Emen fede vici eta esperantza osoare-
quin Aita San Joseri eta Ama Semeai;
bacoitzac bere biotcean nai eta bear duen
mesede edo gracia escatcen die.*

GUERO SANTUARI ELIZAC EGUITEN
dion Oracio au esaten da.

Jesusen Ama Maria, Jose Santuarequin
Esposatua cegoela, Aita Eternoaren Se-
mea Espiritu Santuaren graziaz bere Sa-
belean zuela arqutu zan.

- ŷ. Jangoicoac Jose Santua eguin zuen
bere echeco Jaun andi.
aj. Baita ere bere Ondasun guztien
jabe ta aguintari.

ORACIOA,

O Jesus gure Jaungoicoa, gugatic Gyi-

Don eguina, eta zure Aita Eternoac Jose Santuaren cõntura eman cinduena! Zure Ama Santisimaren Esposo maite onen amore eta reverencia gatic, guc mereci ez deguna, arren, Jauna, iguzu; beraren ta zure Amaren amparoan beti Zure gracion vici gaitean. Amen.

¶ Bigarren egunean ta besteetan onela beti eguiten da, ezpada bigarren oracioa, ceña dan urrengoetic bat.

BIGARREN EGUNECO ORACIOA.

Nere Jesus, Arcangel guztien Jauna, ceñai zure gloriaraco ta gure salvacioraco diran eguitecoric andienac zucentcia aguinda diezun. Espiritu eraguille oyen merecimentuac ofrecitcen dizquitut, baita ere zure Aita usteco San Jose gloriosoarenac, ceñari Arcangel estimatuinari becela, Aita Eternoac bere gloriaraco eta oneraco munduan secular izandu dan, ta izango dan eguitecoric andiena, edo Zu Jangoicoaren Semea guizon eguini, jayo ciñanetic bere con-

tura artea fiatu cion. San Jose maite ba^{ca}
carrari onetan eguin cion honra andia
gatic, arren indazu, Jauna, zure legue
santuco nere obligacio guztiaç, zuc nai
dezun becela, ondo cumplitceco gracia:
eta Novena onetan escatcen degun favo-
rea, Zure gloriaraco, Santuaren honra-
raco eta gure salvacioraco baldin bada,
Amen.

IRUGARREN EGUNECO ORACIOA.

Nere Jesus, Principadu guztien Jauna,
ceñai beste Aingueruaquin batean, gure
salvacioaren contu iduquitcea agundu
cien. Gure animen celoaz hetericaco
Espiritu oyen mercedentuar ofreciten
dizquitzut, baita ere Zure aita usteco San
Jose gloriosoarenac, ceña gucien salva-
cioraco besteac baño gueyago eguin zuan,
Zu, aurcho divino gozoa, bere contura ar-
tu, eta aci cinduanean. Jose Santuaren
amorioa-gatic, arren indazu, Jauna,
nere eta beste gucien salvacioaren egar-
ri andi bat, eta Zu nere biotcean beti
iduquitceco, eta nic eta mundu guztiaç

Zu beti amatceco gracia: Eta Novena onetan escatcen degun favorea, Zure gloriaraco, Santuaren honraraco, eta gure salvacioraco baldin bada. Amen.

LAUGARREN EGUNECO ORACIOA,

Nere Jesus, Potestade gucien Jauna, ceñai demonioac sugetatu eta lotutceco escu eta indar chit andia eman ciñien. Espiritu guciz poderoso oyen merecimentuac ofrecitcen dizquitzut, baita ere zure aita usteco San Jose gloriosoarenac, ceñari infernucoc gucien gañean zure escu eta virtute divinoa eman ciñion, zure eche ta familia sagradua ecertan ere inquieta etcezatzen. Aita San Joseren bidez indazu arren, Jauna, Zure escuata gracia, deabruen tentacio guztien contra lazqui peleatceco nere vicitzan, eta are gueyago eriotzaco orduan, eta nere San Jose maitea aldean dedala beraren escuetan nere anima emateco: eta Novena onetan escatcen degun favorea, Zure gloriaraco, Santuaren honraraco, eta gu-

re salvacioraco baldin bada. Amen.]

BOSTGARREN EGUNECO ORACIOA.

Nere Jesus, Aingueru Virtuteen Jauna, ceñai milagro andi eta gauza miragarriac munduan eguiteco virtutea eman ciñien. Espiritu miraguille oyen mercedentnac ofrecitcen dizquitzut, baita ere Zure aita usteco San Jose gloriosoarenac, ceñari milagroric andienac eguiteco criatura guztiac obedecitcen cioten, icusirie Zu, gucien eguille ta jabea, Joseran obediencian pocic ceundela. Zure miragarrizco humildade onegatic indazu, Jauna gracia, zure vorondate santuari nere gauza gucietan amorez sugetateco, orrela nere animan Zure milagroric andienac eguiteco, Zure misericordiaz pres-tatu nadin. Eta Novena onetan escatcen degun favorea, Zure gloriaraco, Santuaren honraraco, eta gure salvacioraco baldin bada. Amen,

SEIGARREN EGUNECO ORACIOA.

Nere Jesus, Aingueru dominacioen Jauna, ceñai beragoco beste Aingueruai aguinteco poderioa eman eñien, berac zurequico humildade andian beti daudela. Espiritu chit altu oyen merecimentuac ofrecitcen dizquitut, bai-ta ere Zure Aita usteco San Jose gloriosoarenac; ceña zure eche eta Familia sagraduaren Buru eta Aguintari zala, honraric andien orretan gucien humillena izan zan. Jose Santuaren dicha pare gabe onegatic, arren indazu, Jauna, zuc nai dezun eguiazco humildadea, Zu eta zure Ama maitea becela ni ere, dicha andiaz, zure Legue Santuari osoro sugetateco: Eta Novena onetan escatcen degun favorea, Zure gloriaraco, Santuaren honraraco eta gure salvacioraco baldin bada. Amen.

ZAZPIGARREN EGUNECO ORACIOA.

Nere Jesus, Aingueru Tronoen Jauna,

ceñetan zure Magestadearen gloriaco Ie-
 cuan becela jarri, ta zure Aunditasunac
 atsedeten duen. Zori oneco Espiritu oyen
 merecimentuac ofrecitcen dizquitzut, bai
 ta ere zure aita usteco San Jose gloriosoa-
 renac, ceñec beso garbi amorosoetan zu-
 re Magestade andia, Aurcho gozo egui-
 ñic, aimbeste bider artu cinduen, ta
 atseden ta atseguñic andienac bioc artu
 ciñituzten. Zuen bien arteco Ceruco go-
 zaldi oriec-gatic indazu, Jauna, gracia,
 nere biotza humildade ta amore gar-
 bias prestatceco; Zu, nere eguiazco atse-
 guin bacarra, bere Jarlecuan becela be-
 ti nigan iduqui zaitzadan: Eta Novena
 onétan escatcen degun favoreca, Zure glo-
 riaraco, Santuaren honraraco eta gure
 salvacioraco baldia bada. Amen.

ZORTZIGARREN EGUNECO ORACIOA.

Nere Jesus, Querubin jaquintsuen Jauna,
 ceña zure fiñ gabeco Jaquintasunetic aiñ
 ugari bete cinduen. Zure arguitasun e-
 derrez apainduricaco Espiritu oyen mere-

cimentuac ofrecitcen dizquitzut, bai-ta ere zure aita usteco San Jose gloriosoarenac, ceñari, Zu ondo gobernatceco Aitari eta nagusiari becela, misterio divinoen revelacio, eta bear cituen Ceruco jaquinde eta arguiac eman eiñozcan. Zure aita maite onegatic, arren Jauna, indazu santuen jaquindea, edo eguiazco zure bildarra ta amorioa, beti zure vorondatea nere biotzaren erdian iduqui ta gorde dezadan. Eta Novena onetan escatcen degun favoreca, Zure gloriaraco, Santuaren honraraco eta gure salvacioraco baldin bada. Amen.

BEDERATZIGARREN EGUNECO ORACIOA.

Nere Jesus, Serafin edo amorezeo Aingueruen Jauna, ceñai zure ontasun guztiac amorezeo su eta garrac Zu beti amatceco eman ciezen. Espiritu irazaqui edo abrasatu oyen mercimentuac ofrecitcen dizquitzut, bai-ta ere zure aita usteco San Jose gloriosoarenac, ceña Serafin guztiac baño zori obecoa becela, Zu icu-

si, adoratu ta laztan gozuen artean bere hesoetan artu, eta zure amorerie garbien eta iracequienean urtutea zan. Bien arteco amore divino gozo onegatic, arren Jauna indazu, Zu, nere amorezco Jaungoico bacarra, nere biotz guztitic eta gauza gucien gañean, nere vician eta eriotzan eta beti amatceco gracia: Eta novena onetan escatcen degun favoreca zure gloriaraco, aita San Joseren honraraco, eta gure salvacioraco baldin bada. Amen Jesus.

JESUS, MARIA ETA JOSE,

JOAQUIN ETA ANA.

Familia sagraduan lurtean izan ciran, eta orain Ceruan diran bost persona dichosoenac dira: oyei devocio andi bat iduqui bear diezu, eta nai badezu egu-nero deitu, esan oracio au.

ORACIOA.

Gure Jaungoicoa: zure Semea gu gatic

guizon eguiteco, ta lurrean agueriteco ;
 Ama Virgiñaren esposo eta gurasotzat
 Jose, Joaquin eta Ana, munduco gucien
 artean escogitu, eta zure bendicioz bete
 cinduena. Jesus, Maria ta Jose, Joa-
 quin eta Ana zure atsegin andico bost
 persona sagradu oyen eguiazco devocio
 eta amorioa iguzu, eta gure culpac-ga-
 tic mercei ez deguna, oyen bitartez eta
 amorez, zue Aita, zure Seme eta Espiri-
 tu Santuarequin eman eiguzu, zu gu-
 re Jauna, emen beti amateco eta aye-
 quin batean Ceruan alabatceco. Amen.

Emen guero bost Ave Maria.

J. H. S.

DOLORETACO AMA VIRGIÑAREN

DEVOCIOA, ETA BEDERATCI UBRENA.

Ama Santisimaren Misterio edo Pauso
 guztiaquin gure Erri oetan dan amorio
 andia, Jaincoa alabatceco gauza da. Ba-
 ña Ama Virgiñaren Doloreaquico emen
 oidan erreverencia, chit señalatua da,

ta gucien biótcetan chiquitatic sortu, eta beti aci da; eta arrazoi andiarequin. Bada umeric erreglatuenac, Amariç gozoenari zor dioten zorioneco legue ta devocioaren marca aguiria au da. Alagurre gende piadosoac deitzen diote: *Doloretaco Ama Virgiña*; *Piedadeco Ama*; *Augustietaco Ama*; eta *Soledadeco Ama Santisima*; eta icen eder oyequin Ama Virgiñaren *Imagiña milagrosoac*, eta chit devocio andicoac, lecu ascotan veneratzen dirade.

Pauso devoto orieç eta beste orrelacoac Ama Virgiñaren Doloretan sartcen edo aditzen dirade. Oyen gañean, Aita Francisco Garciae luzaro eta ederqui escriptu zuen: eta Santuetatic onec dacarrena bera sopra da, Ama Santisimaren Doloretaco devocioa emateco. An dacar, nola Ama Virgiñaren dolore, angustia eta Soledadeco pena guztiac, Jesus, bere Semearen Pasioco pauso eta guruceco Eriotzan cimendatu edo fundatu ciraden. An dio, orieç cembat, nolacoac eta cein gogorraç izan diran. An dacar

San Alberto andiaren dotriña, ceña dan; Jesu-Cristoren Pasio Santuco penac gogora ecarri, eta devocioaz orietan pentsateac, Cristau onari provechu gueyago eguiten diola, ur ta ogui urte oso batean barau ateratceac baño; eta azotez bere burua, odol asco emateraño, zatitceac baño.

Gauza jaquiña da, Semearen tormentuac Amaren dolorequin batean ondo consideratceac berez, eta bere devotoentzat nolaere baiteco suavidade gozogoia dacartela. Bien tormentuac eta penac samiñac eta garratzac izandu ciraden; baño orien consideracioa bien devotoentzat chitezco gozoa eta provecho-soa da. Orregatic, novena así baño leen, Ama Virgiñaren zazpi doloreac iru modutara, laburcho badere, esan edo contactu bear ditugu. Aita Garciae era onetan dacarci.

Lenengo dolorea: Ama Virgiñac bere Semea Jerusalengo Temploan presentatu zuanean, eta Simeon santuac aur divinoa besoetan artu, ta Espiritu Santuaren arguiac esan cionean Amari, bere anima

dolorezco ezpatac josi eta igaroco ciola ,
edo Jesusen Pasio eta eriotzan amac era-
man bear cituan penac.

Bigarrena : Ainguernac San Joseri a-
guindu cionean , Jesus jayo berria ta be-
re Ama artu , eta Egiptora igues eguin
cezala ; cergatic Herodesec Aurrari vieia
quendu nai cion. Berri triste onequin
Ama maiteac ; cer pena bere biotcean ar-
tucco zuan !

Irugarrena : Jesus , amabi urtecoa za-
la , bere amac eta San Josec Jerusalengo
Templora eraman , eta galdu citzaye-
nean . ; Cer naigabe ta penac Ama San-
tissimac bere Semearen billa ibilli zanean ;
eta bere ondasun guztia Temploan iru-
garren egunean arquite zuan artean !

Laugarrena : Ostiral Santuz Jerusalen-
go calean amac topatu zuanean bere Seme
divinoa , gurutce pisua bere gañean cera-
mala , an josiric tormentuz iltceco. Ama
Semeac alcar icusi , eta beguietatic biotce-
tara ; cer dolore ta pena gogorrae sar-
tucco ciran !

Bostgarrena : Calvarioco mendian A-

ma Santisimac bere biotceco Seme bacar-
ra gurutcean iltee gogorraquin josirie ,
eta penazco lotsa andian gora jasoric icu-
si zuanean : andie zazpi hitz divinoac
aditu, ta Aitari bere espiritua eman, ta illic
icusi zuanean.

Seigarrena : Jose eta Nicodemusec gor-
putz Santua gurutzetic erachi, eta bere
besoetan utci ciotenean ; eta bere Seme
inocentea etsai odol-guiroac nola paratu
zuten , soseguz beguira jarri zanean. ; Cér
penazco ichaso ondo gabea Amaren bio-
tza orduan egongo zan !

Zazpigarrena : Guizon santu biac besoet-
atic bere Semea artu, eta obi berrian
devocio guciaz sartu zutenean : eta Ama
dolorosa guztizco bacardade edo Soledade
tristean negarrez guelditu zanean. Onen
animan orduan cer igaro zan ¿norc esan
dezaque ?

Zazpi Dolore jaquiñac orieci dira. Ba-
ña nola gure Españiaraco Aita Santuac
bere Buldan dion, Ama Virgiñac Seme-
aren pasioan igaro cituen zazpi doloreac,
festa berrian veneratcen dirala, Aita Gar-

ciac berac urrenguaco contateen ditu onela.

Lenengoa : Ostegun Santu arratsean Jesus amorosoa bere pasio eta eriotzaraco prestatu, eta bere Ama maitea-gandic despeditu zanean, onen biotz amatsuac artu zuan dolore esan al baño andiagoa. ¡ O nola bere Semearequin lantzanga negarrez urtuco zan !

Bigarrena : Jesus bere Semea Coluna bati lotu, eta azote gogorraquin urratteen icusi zuanean, eta gucien aurrean alaco lotsa ta pena andian. Eta Ama maitea (berac Santa Brigidari esan cion becela) beguira eguala. ; Ay cer tormentu eta nai-gabeac onen biotcecoac !

Irugarrena : Azoteen ondoren aranzazco coroa, burlazco Erregueari becela, etsaiac Jesus onari buruan josi ciolenean ; Amac cequian nola here Semea Erregue gucien eguiazco Erregue bacarra zan. Tormentu ta burla pisu oien artean ¿ norc pisa dezaque Amaren dolorea ?

Laugarrena : Jerusalengo calean Amac bere Semea Gurutcearen cargarequin magurturic, eta erorten zala icusi zuanean :

Eta lapur birequin, orien erdian ilcera
Jaungoicoaren ta bere Semea ceramatela.

Bostgarrena: Calvariora igo, ta bere
Seme Santua icusi zuanean gucien aur-
rean, ta lotsa aundian soñecoac quendu,
ta Gurutcean etcin-erazo, eta borreroac
iltce gogorraquin Jesusen escu divinoac
eta oiñ Sagraduac jositeen ciozcatela. ; O
cer Amaren tormentua !

Seigarrena: Gurutcean illic, ta lan-
zadaz josirie bere Semea icusi, eta gui-
zon santu biac bere besoetara erachi cio-
tenean: Eta ala Jesus ederra icusi, ta
dolorez beterie ari beguira egon zanean.

Zazpigarrena: José eta Nicodemus San-
tuac Amari bere Seme ta consuelo ba-
carra obiraco quendu ciotenean. ; Ay cer
angustiac ! ; Cer negarrac ! ; Cer Soleda-
de tristea ! Onela gueratu zan Ama.

Aita Cornelio Alapide chit jaquintsu ta
devotoac beste era batera Ama Virgña-
ren Doloreac contatcen ditu ; ta eiran gu-
ciac aren biotza Gurutcearen ondoan zaz-
pi modutan josi zutela dió.

Lenena: Cerren Gurutcean icusten zue,

na, Jesus bere Seme bacarra zan: eta Amac ondo cequienac becela, bere burua ta bicia baño ere gueyago estima-teen, ta amateen zuen. Dolorearen neurria amorea da: Eta nayago zuen, alba-zan, Amac Pasio gucia igaro, bere Semea ala icusi baño. ; O cer Amaren do-lore a alaco Semeagatic 1

Bigarrena: Cerren alaco tormentu gogor andietan cegoena, bere Semea ta Jaincoaren Seme eguiazcoa zan; eta onec Gorputz guztian burutic oñetara, sentidu ta parte bacoitcean, barrendic eta campotie, dolore ta penac izan cituen; eta guztia Ama doloretuac bere biotcean eram- man cituen.

Irugarrena: Cerren tormentu orietan icusten zuana, Jaun andia, gure Re- dentore eta burua zan: eta guizonic bi- llauena, gentil bat bada ere, iltceen icus- tean lástima ematen badu, ; cer pena izango zan Ama maitearena, Jaungoi- coaren Semea azote, aranza eta tormen- tuaquin iltceen icustea?

Laugarrena: Tormentu orien iraupena

edo lucetasuna Jesus onac bere bici guztian biotcean igaro zuan; eta ordu orientan, gurutcean ill arteraño, gorputcean eramanean cituan; eta Ama Virginiac bere biotcean, ta Jesus ill ezquero ere bai. ; O cer onen pena Semeari lanzada ematean, obian sartcean, ta bere soledadeco bicitza tristean !

Bostgarrena : Tormentu orietan bere Semearen bacardade ta desamparoa ; bada Apostoluac iguesi cebiltzan, eta bacarric utci zuten. Aingueruen ta Aita Eternoaren amparoric icusten etzuan ; bere Ama bacarrari ta an ceudenai beguira ceguan. ; O cer tormentu gogorra !

Seigarrena : Bere Semearen contra, aimbeste mingañ zorrotz madaricatuac esaten cituzten guezur, burla, gaizqui esaca ta buroac edo blasfemia icaragarriac, aditcen cegoan. ; O cer naigabe ta pena ! Dudaric gabe, tormentu andientatic bat, Ama Virginiac onetan izan zuan.

Zazpigarrena : ordu orietaco bere semearen betico vista, edo aren pena eta tormentuac icusi bearra, ta ari begui-

ratcea. Orregatic Santuac diote: Ama Santisima bere biotcean martiria baño gueyago zala; bada Semearen gaitz, pena eta tormentu guztiac, Amaren anima beti pasatu zuten.

Eta oiec dira onen devotoenzat iru modu oietan nic arquite ditudan zazpi doloreac, edo Ama Virgiñaren biotz maintean icusten ditugun zazpi Ezpatac, arenean becela gure biotcetan betico jositceco. Doloreen festac bi urteero celebratcen ditugu. Eta zazpi doloreen contu eta iceanean beste ecin contatu ala tormentu, pena eta dolore, eta guciac esan al baño andiagoac aditcen dirade.

Orañ Ama Santisimaren Novena onetan, besteetan becela, artu bear dira soseguz ta era onean bederatzi egun; eta ez errenca ondo ezpadator; baicican devocioaz eguingo diran moduan; eta baicoitzari ondoen datozquion egunetan. Ama Virgiñac eta Santuac ori nai dute, baicoitzac bear duena alcanzatzeco.

Egun batean beintzat confesatu eta Comulgatu bear da; limosnaren bat eguin

pobreaki, ta cerbait iracurri edo enzun,
ta egunero orren gañean consideratu bear
da; eta orrela beste obra onac.



DOLORETACO

AMA VIRGIÑAREN NOVENA!

Devocio au aldan moduric onenean egun-
teco, Ama Virgiñaren aurean belauniko
jarri, eta beti ondo ciñatu, *Nere Jesu-
Cristo Jauna*, edo Acto Contriciozcoa bio-
tzetic eguin, eta guero eguneroco Oracioac
asiteen dira onela.

¡ O Virgiña Maria, Jangoicoaren Ama

pobreaki, ta cerbait iracurri edo enzun,
ta egunero orren gañean consideratu bear
da; eta orrela beste obra onac.



DOLORETACO

AMA VIRGIÑAREN NOVENA!

Devocio au aldan moduric onenean egun-
teco, Ama Virgiñaren aurean belauniko
jarri, eta beti ondo ciñatu, *Nere Jesu-
Cristo Jauna*, edo Acto Contriciozcoa bio-
tzetic eguin, eta guero eguneroco Oracioac
asiteen dira onela.

¡ O Virgiña Maria, Jangoicoaren Ama

miragarria, eta zure Semearen Pasio ta Eriotzan dolorez ta penaz alde gucietatic betea ! Baldin Jaunaren vorondatea bada, Novena onetan nai dedan favorea nie alcanzatecca, zure Doloreac-gatic esca zaiozu berari ; eta bestela bera ta zu obeto servitecco ondoen dagoquidan gracia. Amen.

LENENGO EGUNECO ORACIOA.

¡ Nere Ama Santissima, eta martiri guztien Erreguina ! ; Cér dolorea zure biotzac artuco zuen, araco zure Seme Jesus Angustietaco calean Gurutcearequin icusi, eta Calvariora jarraitu eñionean ! Orduan arc bere gorputcean, eta zuc biotcean igarro einduzten tormentu guztiac, Aita Eternoari presenta zaiozcatzu, nere pecatuen damuzco penitencia eguinaz, zuen amoriora biurtu nadin ; eta indazu Novena onetan escatcen dedan favorea, Jaunaren gloriaraco eta nere salvacioraco baldin bada. Amen.

Emen Ama Virginiaren Dolore guztien

*eta zazpi jaquiñen erreverencian zazpi Aze
Maria eta gloria esan, eta guero.*

EGUNEROCO ORACIOA.

¡ O munduco Amaric affligituena, ta pe-
catarien Ama bacarra ! Or daucazu Gu-
rutcean zure Seme laztana, eta Aita Eter-
noari ezqueintceco sacrificio edo ofrenda-
ric onena. Ori da gure culpen erremedioa
ta zor gucien pagu osoa, ta guztia baño
andiagoa. Escazayozu, bere Seme maiteari
beguiratu, eta gure pecatuac barcateco
bigundu dedilla : eta pecatari eta infiel
gucia bere graciara ecarri ditzala.

*Emen fede eta confianza osoaz bere bio-
tza jaso, ta Ama Virginiaren bitartez ba-
coitzac nai duen favorea escatcen du, eta
guero esango du onela.*

JESUS CRUCIFICATUARI ORACIOA.

¡ Nere Jesus maitea ! Bada zure amo-
rioac gurutceic zure Ama dolorosoaren
mantu-pean utci, ta dicharic andienaz e-

guin guinduen beraren dolore ta negarrem
umeac. Arren Jauna, zure eriotza-gatic
betice vicitza iguzu: eta zure odolaz ta
aren negarraz garbitu ta señalatuac bece-
la, gorde gaitzatu zure biotcean orañ eta
gure eriotzan. Amen.

BOST LLAGA SAGRADUEN ADORA- CIOA.

¡ Nere Ama doloretacoa ! Zure Semeac
nigatic artu cituen bost llaga preciosoa
zure aurrean adoratu nai ditut : ta orie
adoratcean, zuc iduqui cenduen Espiritu ta
amorioa beti iduqui nai nuque.

EZQUERRECO OÑECO LLAGARI.

¡ O nere Jesusen Llaga preciosoa ! Biotz
guztiaz adoratcen zaitut, ta orregatic ez-
eatcen dizut, Jauna, nere pauso ta ibille-
ra gaiztoaquin eguin dizquitudan ofensa
gucien barcacioa. *Pater Noster, eta Gloria
Patris.*

guin guinduen beraren dolore ta negarrem
umeac. Arren Jauna, zure eriotza-gatic
betice vicitza iguzu: eta zure odolaz ta
aren negarraz garbitu ta señalatuac bece-
la, gorde gaitzatu zure biotcean orañ eta
gure eriotzan. Amen.

BOST LLAGA SAGRADUEN ADORA- CIOA.

¡ Nere Ama doloretacoa ! Zure Semeac
nigatic artu cituen bost llaga preciosoa
zure aurrean adoratu nai ditut : ta orie
adoratcean, zuc iduqui cenduen Espiritu ta
amorioa beti iduqui nai nuque.

EZQUERRECO OÑECO LLAGARI.

¡ O nere Jesusen Llaga preciosoa ! Biotz
guztiaz adoratcen zaitut, ta orregatic ez-
eatcen dizut, Jauna, nere pauso ta ibille-
ra gaiztoaquin eguin dizquitudan ofensa
gucien barcacioa. *Pater Noster*, eta *Gloria
Patris*.

ESCUICO OÑECO LLAGARI.

¡ O nere Jesusen Llaga preciosoa ! Biotz guztiaz adoracoen zaitut , eta orregatic ezacoen dizut , Jauna , nere hitz ta obra gaiztoaquin eguin dizquituzdan ofensa gucien barcaioa. *Pater noster , eta Gloria Patri.*

EZQUERRECO ESCUCO LLAGARI.

¡ O nere Jesusen Llaga preciosoa ! Biotz guztiaz adorateen zaitut , eta orregatic ezacoen dizut , Jauna , nere beguiaz ta beste sentidnaz eguin dizquituzdan ofensa gucien barcaioa. *Pater noster , eta Gloria Patri.*

ESCUICO ESCUCO LLAGARI.

¡ O nere Jesusen Llaga preciosoa ! Biotz guztiaz adorateen zaitut , eta orregatic ezacoen dizut , Jauna , nere memoria , entendimentu ta vorondateaz eguin dizquituzdan ofensa gucien barcaioa. *Pater noster , eta Gloria Patri.*

COSTADU SAGRADUCO LLAGARI.

¡ O Nere Jesusen llaga preciosa ! Biotz guztiaz adoracen zaitut , eta orregatic ezcatcen dizut , Jauna, nola zure biotza lantza gogorraz josi , eta zure Ama Santisimarena Ezpata zorrotzac , ala nere anima zure amorioaz betico josi dezazula ; bada ill nayago det zu ofenditu baño. Amen. *Pater noster , eta Gloria Patri.*

BOST LLAGAI SAN FRANCISCO JA

VIERREC EGUNERO EGUITEN CIEN ORACIOA.

¡ Nere biotceco Jauo eta Jaungoico Jesu-Cristo ! Bost llaga Gurutcean , eta beste ecin contatu ala zure Pasioan, gure amorioae ar-erazo cizquitzenac-gatic escatcen dizut , zure odol preciosoaz redimitu guinduzunoe, arren zure ontasunac gorde , eta zure gloriara eraman gaitzala. Amen.

Ÿ. Ora pro nobis Virgo Dolorosissima.

Ÿ. Ut digni efficiamur promisionibus Christi.

OREMUS.

Deus, in cujus passióne secúndúm Sí-
meónis Prophetiam, dulcissimam ánimam
gloriósæ Virginis & Matris Mariæ doloris
gládus pertransivit, concède propitius:
ut qui transfixiónem ejus & passiónem
venerádo recólimus, gloriósis méritis &
précibus ómnium Sanctórum Crucifidéliter
astántium intercédentibus, pasiónis tuæ e-
fféctum felicem consequámur. Qui vivis &
regnas per omnia secula seculorum Amen.



Bigarren egunean ciñatu, Actu Contriciozcoa eguin, eta lenengo Oracioa eta beste atcenecoac beti egunero esaten dira.

Bigarren Oracioa egun bacoitceraco da wrrengoetatic bat.

BIGARREN EGUNECO ORACIOA.

¡Nere Ama Santísima, eta martiri gu-
sien Erreguiña! ¡Cér dolorea zure bio-

tzac izango zuen , araco Gurutcearen ondoan zutic eta firme ceundela , zure sa-
beleco frutu bedeincatua arbola artan jo-
sirie , ta gure pecatuac-gatic agonian icusi
cenduenean, eta zure biotza dolorezco icha-
so bat, eta zure beguiac negarrezco itur-
ri bi eguiñic ! Arren zure piedadeaz be-
guira zadazu , nere culpen eguiazco peni-
tenciaz zure Semearen odol preciosoan nere
anima garbi dedin; eta indazu Novena one-
tan escatcen dedan favorea, beraren gloria
eta nere salvacioraco baldin bada. Amen.

*Emen zazpi Ave Maria , eta lenengo egu-
neco beste Oracioa*

IRUGARREN EGUNECO ORACIOA.

; Nere Ama Santisima, eta martiri guz-
tien Erreguiña ! ; Cer dolorea zure biotzac
izandu zuen , araco zure Semeac S. Juan
amatuaren contura zu utci , eta aren bu-
ruan gure guztien Ama eguin cinduenean,
ta zure Doloreen umeac gu izateco , zure
contura utci guinduenean ! ; O Amarie go-
zoena ! Beguira zaguzu bada , eta zure

mantu-pean gorde, ta Jaunaren voronda-
tea dan becela, vici berri santu bat e-
guiten lagundu zaguzu; eta iguzu Nove-
na onetan escatcen degun favorea, bera-
ren gloriaraco eta gure salvacioraco baldi-
din bada. Amen.

LAUGARREN EGUNECO ORACIOA.

¡ Nere Ama Santisima, eta martiri gu-
cien Erreguiña ! ; Cer dolorea zure biotzac
izango zuen, araco zure Seme Jaunari,
Judu eta Gentil ichuac, zure beguietan
alaco barla ichusi eta gaizqui esacac, aren
escarnioan, lotsaric gabe esatean ! ; O cer
tormentua zue orieac aditcean, eta zure
Semea Aita Eternoari bere Espiritua aguin-
du, eta iltcen icusi cenduenean ! Pena gu-
cien gogorren onegatic arren beguira za-
dazu neri, culpa gociac eguiazco damuz
garbitceco, ta Jesus inocentea ta nere sal-
vadorea beti alabatceco: eta indazu Nove-
na onetan escatcen dedan favorea, bera-
ren gloriaraco eta nere salvacioraco baldi-
din bada. Amen.

BOSTGARREN EGUNECO ORACIOA.

¡ Nere Ama Santísima eta martiri gu-
 cien Erreguiña ! ¡ Cer dolorea zure bio-
 tzac artuco zuen , araco zure Semea Gu-
 rutcean illic icusi ezquero , eta tormentuac
 igaro ciralacoan , icusi cenduenean Sol-
 dadu bat , lantza jaso eta Jesus onaren bio-
 tza idiquitcen , eta zurea erdiratcen ! Or-
 duan saiets Sagradutie , gure salyacioco
 atea idiqui , eta odola eta ur garbia Iturri
 artatie irteten icusi cenduen. Zure tor-
 mentu eta dolore onegatie arren beguira
 zadazu , eta odol precioso eta ur gozo ar-
 tan nere anima garbitcen lagundu zadazu ,
 Ceruco ate artatic seguru sartu nadin : eta
 Novena onetan escatcen dedan favorea ,
 beraren gloriaraco eta nere salyacioraco
 baldin bada. Amen.

SEIGARREN EGUNECO ORACIOA.

¡ Nere Ama Santísima, eta martiri gu-
 cien Erreguiña ! ¡ Cer dolorea zure bio-

tzac artuco zuan, araco Jesus zure Semeari aranzaco Coroa, eta iltce odolez beteac atera ciozcatenean ! ¡Ay ta nolaco fede eta amorioaz zure esueetan artu, eta adoratuco cenduen ! Orduan igaro cenduan dolore eta pena tristea gatic, arren beguira eguidazu, nere begui eta beste sentiduetan aranza oriec, eta iltce oriec nere biotcean josi ditzadan, eta pecatu gucien gorroto vici batequin guztien barcacioa izan dezadan : eta Novena onetan escalcen dedan favorea, Jaunaren gloriaraco baldin bada. Amen Jesus.

ZAZPIGARREN EGUNECO ORACIOA.

¡ Nere Ama Santisima, eta martiri gucien Erregina ! ¡ Cer dolorea zure biotzac artuco zuan, araco Seme divinoaren gorputza eta artan, bere diñaco Aldareric ederren eta garbienean, edo zure beso virginaletan artu cenduanean ! Au da zure Angustietaco pauso icusgarria. ¡ Ay, ta nola beguiratuco ciñion gorputz divino Espiritu Santuac zure Sabelean eguin zuen

ari! Len guztiz ederra, eta orañ tormentuz itsusitua, eta nere culpac-gatic deseguiña, Zure penacn artean arren beguira niri, orien lotsar ta damuz bien piedada billatcen dedan oni; eta Novena onetan escatcen dedan favoreca, bien gloriaraco eta nere salvacioraco baldia bada Amen.

ZORTCIGARREN EGUNECO ORACIOA.

¡ Nere Ama Santisima, eta martiri gucien Erreguiña! ;Cer dolorea zure biotzac artuco zuan, araco zure Semearen burua, escuac eta oñac, eta gorputz guztia icusten jarri ciñanean! Zure negar tristeaquin aren arpeguia garbitu, eta untatceco eta obiraco jancitceco, dolorez heteric eman cenduen. Zure animaco pena orregatic, arren, beguira zadazu neri, eta nere pe-catuen penitencia eta vicitza berri santu bat eguiten lagun zadazu, zure Semea nere biotcean betico artu eta gorde dezadan; baira ere Novena onetan escatcen dedan favoreca alcanzatceco, beraren gloriaraco eta nere salvacioraco baldia bada. Amen.

BEDERATCIGARREN EGUNECO

ORACIOA.

¡ Nere Ama Santisima, eta martiri guztien Erreguiña ! ¡ Cer dolorea zure biotzac artuco zuen , araco zure Seme laztana obian sartu eta utci cenduenean , eta penaz illa becela bacarra , eta zure biotceco vicitza gabe guelditu ciñanean ! ¡ O Aingueruac eta criatura guztia ! Zuen Erreguiñari lagun eguiozute bere luto eta Solidade triste onetan. Arren nere culpaen barcacioa zure doloreac-gatic Jauna-gandic alcanza zadazu ; eta Novena onetan escauten dedan favorea, beraren gloriaraco eta nere salvacioraco baldin bada. Amen Jesus.



AMA VIRGIÑARI SAN AGUSTIÑEC

EGUIN CION ORACIOA.

Acorda zaitez , ¡ O Virgiña Ama , piedade guciaz betea ! Iñoiz ere edo secular

ez dala aditu, zure amparora etorri danie,
 eta bere nequeetan zuri deitu dizunie,
 desamparatua izandu dala. Ni bada con-
 fianza onequin animaturie, zu gana las-
 terca biurteen naiz ; Virgîña guztien Vir-
 giña Ama, zugana nator ; zure aurrean
 negarrez esque nago. Ez arren bada, ó
 Jaungoicoaren verbo edo hitz divinoaren
 Ama, nere hitzai gor eguin, baicican ne-
 re oneraco orieci enzun, eta onez adiezazu.
 Au escatcen dizut zure Semearen pasio ta
 eriotza gatie, eta zure dolore guztia gati-
 tic. Amen Jesus.



ARQUIVIDEA.



S arrera : Devocioa cer dan. Orrica.	3
Lenengo Calvario eta errosarioaren	
Misterio escutatuac aguertcen dira. . .	7
Bigarrena : Calvarioco devocioaren	
mirariac.	11
Irugarrena : Errosario Santuaren	
maravillac.	30
Laugarrena : Aita San Joserren No-	
blecia eta dignidadea.	46
Bostgarrena : Jangoicoac bere Aita	
Jose maitea nolacoa equin zuen. . . .	51
Seigarrena : Aita San Joserren Mara-	
villac.	58
Zazpigarrena : Nondic eta nola Aita	
San Joserren devocioa asi zan.	67
Zortzigarrena : Aita San Joserren	
privilegioac.	75
Bederatcigarrena : Aita San Joserren	
Milagroac.	86
Jesus , Maria eta Joserren honran	

<i>limosna</i>	97
<i>Aita San Joseren zazpi dolore eta zazpi gozoac</i>	98
<i>Devocio au obeto equiteco Zazpi me- ditacio beren ofrecimentu edo Oracioa- quin</i>	101
<i>Aita San Joseren Errosarioa</i>	107
<i>Ama Virgiñaren Errosario Santua beardan devocioaz errezatceco modua</i>	109
<i>Ama Virgiñaren Letaniac</i>	115
<i>Amorezco ta dolorezco Jesucristoren pausoac</i>	129
<i>Aita S. Jose Gloriosoaren Novena</i>	153
<i>Ama Virgiña Doloretacoen Novena</i>	175
<i>Bost llaga sagraduen adoracioa</i>	178

FIN.





[Faint, illegible text, likely bleed-through from the reverse side of the page. The text is arranged in several paragraphs and is difficult to decipher due to its low contrast and blurriness.]







